

TXOSTENA

36


BERDINTASUNAREN BALIOAK DUEN

ERAGINA EUSKADIKO

BATXILERGOKO 2. URTEKO

IKASLEEK GOI-MAILAKO

IKASKETAK HAUTATZERAKOAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IZENBURUA:	“Berdintasunaren balioak duen eragina Euskadiko Batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan”
EDITOREA ETA EGILEA:	EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakunde. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
LAN TALDEA:	ADIMEN Investigación: Marce Masa (azterlanaren arduraduna), Estíbaliz Berroeta, Idoia Retolaza, Laura Ortuondo
MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:	ARRIN. Comunicación y Diseño
DISEINU GRAFIKOA:	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
DATA:	2016ko maiatza
DESKRIBATZAILEAK:	Berdintasuna, erdi-mailako ikasleak, erdi-mailako hezkuntza, lanbide-orientazio ikerketak, genero-ikuspegia
ALE KOPURUA:	500
INPRIMATZAILEA:	Irudi
ISBN:	84-89630-44-5 978-84-8963-44-4
L.G.:	VI - 187 - 2016

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
-------------------------	---

1. SARRERA	13
-------------------------	----

Lehen zatia:

Ikerketaren helburuak eta diseinua

2. HELBURUAK	17
---------------------------	----

2.1. Helburu nagusia	17
----------------------------	----

2.2. Helburu espezifikoak	17
---------------------------------	----

3. IKERKETAREN DISEINUA	18
--------------------------------------	----

3.1. Abiapuntua: gogoetak berdintasunaren irudipenaren inguruan	18
---	----

3.2. Balioak neurtzeko gauza izango den ikuspegi teoriko-metodologiko baten eraikuntza	19
--	----

3.3. Gure proposamena: egoeraren edo bizipenaren perspektiba	20
--	----

3.4. Kasu-azterketa: aukeraren arrazoiak	21
--	----

3.5. Ikuspegiaren osotasuna: ikasle neska, ikasle mutilak, amak, aitak eta irakasleen kolektiboa	22
--	----

3.6. Ikerketaren faseak	23
-------------------------------	----

3.6.1. Lehen fasea: testuinguru bibliografikoa	23
--	----

3.6.2. Bigarren fasea: elkarrizketa sakonak irakasleen kolektiboari eta ama/aiten ordezkariari	23
--	----

3.6.3. Hirugarren fasea: eztabaida-taldeak, ikasle neska eta mutilekin eta ama eta aitekin	24
--	----

3.6.4. Laugarren fasea: galdeketen elkarlaneko diseinua	25
---	----

3.6.5. Bosgarren fasea: unibertsoa, hautaketa eta ikastetxeekin harremanetan jartzea alor kuantitatiboko lana garatzeko	26
---	----

– Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen unibertsoa	26
--	----

– Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen lagina	29
--	----

– Irakasleen laginak	30
----------------------------	----

– Ama/aiten lagina	31
--------------------------	----

3.7. Landa laneko iruzkinak: arrakastak eta ikaskizunak	31
---	----

3.7.1. ... fase kualitatiboan	31
-------------------------------------	----

3.7.2. ... fase kuantitatiboan	33
--------------------------------------	----

3.8. Txostenaren egitura: aukeraren prezioa	36
---	----

Bigarren zatia:
Nor dira?

4. BATXILERGOKO 2. URTEKO IKASLE NESKA ETA MUTILEN PROFILA EUSKADIN	41
4.1. Ezaugarri soziodemografikoak	41
4.2. Hezkuntza-ezaugarriak	43
4.3. Bizikidetzta-unitatearen ezaugarriak	45
4.4. Egungo interesa politikarekiko eta parte-hartze esperientziekiko	47
4.5. Egungo interesa emakumeen mugimendu/elkarrekin eta parte-hartze esperientziekiko	48

Hirugarren zatia:
Nola ikusten dute beren burua?

5. DITUZTEN BALIOAK	51
5.1. Erretratu axiologikoa	51
5.2. Eragin-agenteak	52
6. NORBERAREN AUTONOMIA: BALIO NAGUSIA	54
6.1. Ditutzen esperientziak eguneroko erabaketan	54
6.2. Norberaren autonomia generoaz haragoko eskubide bezala	56
6.3. ...Baina eskubidearen itzulpena ez da hutsean egiten: burujabetasun ekonomikoa	58
6.4. Pertsona burujabeagotzat dauzkate beren buruak aurreko belaunaldiak baino.	59
7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA: NESKAK, BIZIPENETIK; MUTILAK, URRUNAGOTIK	61
7.1. Balio garrantzitsua, emakumeentzat batik bat.	61
7.2. Belaunaldi barruko kontzientziak	64

Laugarren zatia:
Nola ikusten dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaurko egoera?

8. AURRERAPENAK PERTSONIFIKATZEA; OZTOPOAK IDENTIFIKATZEA	69
8.1. Pertzepzio orokorra eta belaunaldien arteko alderaketa	69
8.2. Emakumeen diskriminazioaren kontzientzia: egungo egoera eta arrazoiak	70
8.3. Emakumeen berdintasun ezak irauten du, baina aurrerapenekin: jarraitasunaren arrazoiak	72
8.4. Laneko agertokia: zain dituzten berdintasun ezen kronika aurreratua	77
8.5. Aurrerapenak etxe-familia mailan eta afektibitatean	81
8.6. Eta aurrerapausoak ere bai hezkuntza-ingurunean	83

Bosgarren zatia:
Goi-mailako zein prestakuntza-ibilbide hautatuko dute?

9. HAUTAKETAN INPLIKATUTAKO BALIOAK: DISKURTSOA	89
9.1. Norberaren autonomian oinarrituta hartutako erabakia	89
9.2. Aukera berdintasunean hartutako erabakia	91
9.3. "Gustuz/bokazioz": hautaketako protagonista	92
9.4. Balioen zeharkakotasuna gorabehera, generoaren arabera zenbait nabardura	97
10. DISKURTSOETATIK PRAKTIKETARA: AZKEN AUKERAK	99
10.1. Unibertsitate-ibilbideari ematen zaio lehentasuna, nesken artean bereziki	99
10.2. Titulazioak eta jakintza-arloak: "emakumea-irakaslea-medikua", "gizona-ingeniaría-teknikaria" ereduak	100
10.3. Genero-adskripzio handiagoa goi-mailako titulazioetan batxilergoko modalitateetan baino	104
10.4. Genero estereotipoak goi-mailako titulazioetan: laneko segregazioaren gelaurrea	107
10.5. Norberaren autonomia edozertarako erantzun gisa: kausa eta efektua	109
10.6. Autonomia hautaketa egitean, bai, baina unibertsitatera: familia-ingurunearen eragina	111

Seigarren zatia:
Nola ikusiko dituzte beren buruak?

11. GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA AMAITU ONDOREN	117
11.1. Lanbide askotarikotasuna, baina segregazio horizontalerantz	117
11.2. Segregazio bertikala erantzukizuneko lanpostuetan	119
11.3. Beste balio inplizitu batzuk pertsona heldu gisa duten proiektioan	120

Zazpigarren zatia:
Nola ikusten dituzte gurasoek eta irakasleen kolektiboak?

12. KONBERGENTZIAK ETA ÑABARDURAK	125
12.1. Egungo interesa emakumeen mugimendu/elkarteekiko eta haien garrantzia	126
12.2. Erretratu axiologikoa	127
12.3. Eragin-agenteak	128
12.4. Norberaren autonomia alderatua	130
12.5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoera gaur egun	131
12.6. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren kontzientziazioa eta garrantzia	133
12.7. Goi-mailako ibilbideak: unibertsitatea da aukera	134
12.8. Zer balio dauden inplikatuta goi-mailako ibilbidea aukeratzeko orduan	135

12.9. Familia-ingurunearen sostengu maila titulazioa burujabetasunez hautatzean	137
12.10. Genero-estereotipoak goi-mailako titulazioetan	140

Zortzigarren zatia:

batxilergoko ikasle neska eta mutilen belaunaldia: joerak zortzi urte geroago

13. BELAUNALDI BARRUKO ALDERAKETA-ADIERAZLEAK	145
13.1. Unibertsitate-ibilbidearen jarraitutasuna, nesken artean bereziki	145
13.2. Segregazio horizontala lehenean mantentzen da	146
13.3. Kristalezko sabaiaren moteltzea?: Nagusi izateko gogoaren hazkundera nesken artean	147
13.4. Pertsona heldu gisa duten proiektzioa	148

Bederatzigarren zatia:

Emakumeen iritziak euskadin: joerak hiru urte geroago

14. ALDERAKETA ADIERAZLEAK EMAKUME BERAIEN ARTEAN	151
14.1. Gaur egungo interesa politikarekiko, emakumeen mugimendueki	151
14.2. Norberaren autonomia: aldeak esperientziatik abiatuta	152
14.3. Emakumeen diskriminazioaren kontzientzia gaur egun	154
14.4. Emakumeen berdintasun eza mantentzen da, baina gainbehera doa	155
14.5. Lan mundua: osatu gabeko agertokia berdintasunaren arloan.	156

Hamargarren zatia:

Ondorioak, bibliografia eta eranskinak

15. ONDORIOAK	161
--------------------------------	------------

BIBLIOGRAFIA	169
-------------------------------	------------

ERANSKINAK

1.E. Taulen eta grafikoen aurkibidea	173
2.E. Ikasle neska eta mutilen galdeketa	181
3.E. Ama/aiten galdeketa	196
4.E. Irakasleen kolektiboaren galdeketa	204
5.E. Azterlanean parte hartu duten ikastetxeak	211



AURKEZPENA



Emakundek beste saio bat egin du errealitate soziala zein den jakiteko, horren berri izatea ezinbesteko premisa baita botere publikoek edozein motatako esku-hartze egiteko. Saio horren emaitza dugu azterlan hau: *"Berdintasunaren balioak duen eragina Euskadiko Batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan"*.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren helburuak betetzera dator azterlana. Izan ere, balio-aldaketa sustatu nahi da Planaren bidez, eta, horretarako, beharrezkoa da genero-estereotipoak eta pertsonei sexuaren arabera izendatzen zaizkien rolak ezabatzea, eta berdintasuna balio gisa garatzea, bai norbanakoarentzako balio gisa, bai gizartearentzako balio gisa. Gutxitu egin behar da sexuen arteko alde kuantitatiboa ikasketak hautatzerakoan, batez ere, sexuaren araberako bereizketa handieneko ikasketetan eta laneratzeko eta lanbideratzeko aukerarik handiena ematen dutenetan; hori ere VI. Planean finkatutako helburuetako bat da, erabakigarria izaki emakumeek aukera gehiago eta baldintza hobekak izan ditzaten bai enplegua lortzeko, bai lanbidean gora egiteko.

Jakin nahi dugu EAEko herritarren eguneroko jokamoduetan zenbateraino den balio "finkatua" emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, hots, diskurtsoan bezain finkatuta ote dagoen; horra hor azterlana egiteko arrazoi nagusia. Azterlanean agerian uzten da berdintasuna "politikoki zuzena den baliotzat" jotzen dela gizartean –hala zabaldu da belaunaldien eta sozializazio-eragileen artean–, baina horrek ez duela esan nahi hala jarduten denik.

Esker ona eman nahi diet azterlan hau egitea ahalbidetu duten guztiei, eta, bereziki, ikasleekin aritzeko aukera eman duten ikastetxeetako irakasle-taldeei. Nahi genuke azterlan hau hausnarketarako tresna bat izatea, eta, halaber, lagungarri izatea ikastetxeetan ikasleen orientazioa hobetzeko, eta, hartara, ikasleek aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapenik gabe hautatzeko.

Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1

SARRERA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak balioekiko duen interesa ez da gauza berria. Denboran urruti geratzen da honezkero *"Generoa eta baloreak"* (1994) jardunaldia; gerora, 2009an, *"EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta"* argitaratu zen; 2012an, bi lan argitaratu ziren: *"Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduntze-prozesuei egin dien ekarpena"* eta *"Erantzukidetasuna, balioak eta generoa"*; 2013koa dugu *"Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkideagoan"* lana. Argitalpen horiek, ikerketa honekin batera, egunerokotasunean gertatzen denaren ondoan egoteko gure apustu irmoaren erakusle dira.

Txosten honetan ikerketa baten emaitzak bildu ditugu. Ikerketa horretan parte hartu dute Euskal Autonomia Erkidegoan Batxilergoko 2. maila egiten ari diren 1.303 ikaslek (32 ikastetxetakoak), eta ikasle horien 105 irakaslek eta 140 gurasok.

Ikerketak ikuspuntu integrala du, ikergaia generotik eta belaunaldien ikuspegitik landuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioan parte hartzen duten eragile guztiak modu oso batean ulertu ahal izateko. Eta, helburu horrekin berarekin, berdintasunaren balioaren eragina une jakin batean neurtzeko hautua egin zen metodologikoki. Une hori goi-mailako hezkuntzako ibilbideari buruz hartu beharreko erabakiarena izan zen. Ikerketan zehar ikusiko denez, balio baten berriazko garrantzia, elkarren kontra dauden balio askoren artean duen eragina, praktikan jartzen denean ezagutzen da (edo agerian uzten denean).

Ikerketa honek hain garrantzitsua eta konplexua den balioen gaia argitzen lagunduko du. Gainera, adierazle berriak eta adierazle konparatiboak lortzeko aukera ematen du. Eta, guztiaren gainera, berdintasunaren alorreko ildo berriak ikertzeko aukera ematen du. Espero dugu irakurleentzako interesgarriak izatea, berriz ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak gisa honetako ikerketen alde egin duen apustu irmoari esker.

LEHEN ZATIA

**IKERKETAREN HELBURUAK
ETA DISEINUA**

HELBURUAK

2.

HELBURU NAGUSIA

2.1

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak duen eragina identifikatzea Euskadiko AEko batxilergoko 2. urteko ikasleek, neska eta mutil, goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzerakoan.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

2.2

1. Arreta jartzea, osoko planteamendu batetik, erabaki hori hartzean inplikaturik dauden hiru gizarte- eta belaunaldi-agente nagusiren iritziei: Batxilergoko 2. urteko ikasleak, neska eta mutil; haien gurasoak; eta Euskadiko AEko irakasleen kolektiboa.
2. Berdintasunaren balioari buruzko diskurtsoaren eta berorren aplikazio praktikoaren artean (hau da, erabaki zehatz bat hartu behar denean: goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzea), egon daitezkeen haustura potentzialak argitara ateratzea, beste egoera batzuetarako ikasbidetzat balio dezaten.
3. Belaunaldi horren barruan egon daitezkeen genero-desberdintasunen existentzia identifikatzea.
4. Belaunaldi berorren emaitzak kontuan harturik, aldaketak edo jarraikitasunak existitzen diren ikustea duela zortzi urte egindako "EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta" (Emakunde, 2009) azterlanarekin alderatuta (belaunaldi arteko alderaketa).
5. Ikustea, era berean, aldaketarik edo jarraikitasunik dagoen belaunaldi honetako emakumeen iritzietan (17 urte) duela bi urte 18-65 urte bitarteko emakumezkoekin egindako *Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan* (Emakunde, 2013) azterlanarekin alderatuta (belaunaldi arteko alderaketa).
6. Adierazleak sortzea jakin ahal izateko egungo egoera zein den *Euskadiko AEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planeko "Balioak aldatzea"* programan zehaztutako helburuak lortzeko bidean.
7. Ezagupenak mahairatzea jarduera ildo potentzialak markatzeko eta, gure testuinguruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa praktikan jartzearen maila (sedimentazioa) neurtzeko gai diren adierazleak ezartzeko.

IKERKETAREN DISEINUA

3.

Kapitulu honetan, azterlan honen diseinu teorikoa eta metodologikoa eraikitzeko balio izan duten funtsezko ildoak aurkezten dira.

ABIAPUNTUA: GOGOETAK BERDINTASUNAREN IRUDIPENAREN INGURUAN

3.1

Ikerketa honetako *hipotesi nagusia* "diskurtsoaren" –emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bertute publiko bihurtu baita gure ingurunean, hau da, balio sozialki zuzena, inklusiboa bai indibidualki eta bai erakunde-instituzioei dagokienez– eta belaunaldi, genero eta talde sozialen eguneroko "praktikaren" artean legokeen *desoreka* da, azken eremu horretan zalantzagarriagoa baita berdintasunaren balio hori.

Diskurtsoaren eta praktikaren arteko desoreka horri "berdintasunaren irudipena" (Valcárcel, 2008:200), "berdintasunaren erretorika" (Emakunde, 2012:191), "demokrazia partziala" edota "itun zinikoa" (Simón Rodríguez, 2010:94) deitu zaio.

Berdintasunaren irudipen edo erretorika hori eraikitzen laguntzen duten arrazoiak asko dira eta oso erlazio estuak dituzte beren artean. Horietako bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna agenda publikoan kokatzeko ahaleginaren intentzio gabeko ondorioa izan daiteke. Lege arloko normalizazioak uste izateko bidea ematen du normalizazio soziala lortuta dagoela, baina errealitate beraren bi plano horiek logika desberdinak dituzte.

Gure ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren diskurtsoa normalizatuta egotea, agian, nahasmendua sortzen ari da abiapuntuaren –hor egongo ginatete– eta helmugaren artean. Memoria galera hori, atrofia historiko moduko hori, batez ere emakume eta gizon gazteenen belaunaldietan pertsonalizatzen da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa beren "eguneroko paisaia (diskurtsiboaren)" parte baita. "Uste dute dena lortuta dagoela, ez badakite ere ez zer lortu zen eta zeintzuk lortu zuten: beste gabe, egintzat ematen dute eta guztiak jarrai dezan uzten dute. Ez dira ohartzten egiteko dagoen agendaz, ez dute hauteman ere egiten. Eta ez litzateke halako zerbait gertatzen den lehen aldia" (Valcárcel, 2008: 201).

Gure gizarteko diskurtsoan onartuta dagoela badirudi ere, euskal herritarren eguneroko praktikan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zenbateraino den balio "finkatua" neurtzen saiatuko den lan-ildo bat interesatzen zaio Emakunderi.

Euskadiko A Eko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana. X. Legegintzaldirako gidalerroak (Emakunde, 2014) planeko "Balioak aldatzea" programak islatzen du zer nolako interesa eta garrantzia duen erakundearentzat azterketa sakon bat egiteak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balio hori eguneroko jardunean zenbateraino finkatuta dagoen neurtzeko gauza izango diren adierazleak "ad hoc" sortzeak. Edo, beste modu batera esanda, zenbaterainoko erretorika maila dagoen, norainokoa den irudipen hori egungo euskal gizartean.

Dokumentu honek frogatzen du "ad hoc" sortutako adierazle estatistiko horiek lortzeko dagoen eskea. Eskari hori, bestalde, ez da berria. Aitzitik, Emakunde azterlan aplikatuak bultzatzen ari da, esate baterako, hiru azterlanetan gauzatu den ikerketa ildo aplikatua, ahalduntzea gai gisa hartuta, zeinak adierazleak sortu baititu euskal emakumeen belaunaldi-arku guztirako (Emakunde, 2009, 2012, 2013).

BALIOAK NEURTZEKO GAUZA IZANGO DEN IKUSPEGITEORIKO- METODOLOGIKO BATEN ERAIKUNTZA

3.2

Baina, posible al da balioak neurtzea? Diseina al daiteke, zehatzago esanda, ikuspegi propio bat eta lanabes kuantitatibo bat kapaz izango dena adierazleak sortzeko neurtuko dutenak ea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zenbateraino den egungo euskal herritarren portaerak orientatzen dituen balioetako bat?

"Biztanleriaren balorazio-lehentasunak neurtzeko inkesta metodoaren bidez egiten den zeinahi ahaleginen aurrean itxaropen apalak edukitzea komeni da. (...) Onena honako hau litzateke: hainbat hilabetetan zehar egindako inkesta sakonen bidez lortutako balioak ikeretzea, eta ez inkesta labur batean oinarrituta, azken metodo honekin, ezinbestean, burura datorren lehen gauza erantzuteko joera nagusituko baita." (Inglehart, 1991:135).

Balioen ikerketa aplikatuetan erreferentziako egile den pertsona baten hitz horiek argi eta garbi mugatzen dute gure zereginaren norainokoa. Erronka handi bat dugu aurrez aurre: nabarmenki kulturala eta ukiezina den zerbait –balioak, hain zuzen, eta zehazkiago, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa– adierazleetara bihurtzeko zeregin guztiz konplexua, inkestak erabiltzearen bitartez.

Gizarte arloko ikerketen eremuan balioak adierazleetara bihurtzeko dauden muga horiei, beste hiru oztopo erantsi behar zaizkie gure kasuan: horrelako ikerlan aplikatuetako balioen teorizazio falta orokortua; azterlanik ez egotea non berariaz adierazten den emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa; eta, azkenik, balioetan haragitutako dimentsio emozionalek duten bazterketa.

Lehen alderditik hasita, oro har, hurbilpen enpirikoek suposatutzat emandako errealitate gisa hartzen dituzte balioak, egitura axiologiko bat balira bezala, gainegitura, ideologia, pertsonen zalantzan jarri gabe bere egiten duten kultura objektibo modura. Nahikoa litzateke haietaz galdetzea argitara ateratzeko, gure gizarte-bizitzako beste dimentsio batzuek galdeetzen den bezala (Orizo, 1996; Elzo, 2002; Bartolomé eta Silvestre, 2007; Calzada, et al., 2013).

Azterlan aplikatu horien berrikuspen bibliografikoak, guregandik hurbilenekoak barne (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2004; Arartekoa, 2009; Leonardo, 2012) beste gabezia bat identifikatzen du: emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioaren adierazle zehatzen falta. Hitz egiten da berdintasunaz, baina Europako ideia liberalen hirugarren zutabe gisa, askatasunarekin eta haurridetasunarekin batera, baina ez balio horren genero-dimentsioaz (Rosanvallon, 2012).

Bestalde, identifikatutako azterlan aplikatuak pertsonen portaeraren kontzepzio arrazoizko bat suposatutzat ematetik abiatu ohi dira. Jakintzat ematen da balioak egintzaren aurretikoak direla, arrazoizkotasunean jada artikulatuak daudela eta, gainera, koherentziaz adiera-

ziko liratekeela kasuan kasu, pertsona bakoitzaren hierarkia axiologikoaren arabera. Baina errealitate oso urrun dago (Cardús, 1995:70 eta hur.) *indibidualtasunaren fantasia hau subjektu modernoaren eraikuntza sozio-historikoan*, Almudena Hernandok deskribatu duen bezala (2012). Pertsonok, izan ere, gure ustezko balioak gradu desberdinetan erakusteko ahalmena dugu, bai ingurune informal batean (adibidez, lagunekin eta/edo senitartekoekin daukagun elkarrizketa batean), bai –eta hori litzateke kasua– ingurune formal eta kontrolatu batean, esate baterako, inkesta bidezko ikerketa zientifiko batean. Goffmanek adierazi zuen bezala (1987:267), inpresioen eguneroko maneiatze bat dago, gizarte-bizitza eratzen duen bilbadura moral horretan espero denaren arabera.

Balioekiko ezin hurbilpenetan dimentsio emozional hori integratzea guztiz egokia dela dirudi. Balioak presente egoten dira identitateen eraikuntzan bertan, eta hain “haragituta” ezen oso nekez jartzen baitira arrazionalki zalantzan; beren funtzioa, hain zuzen ere, naturalizazio horixe da, “a priori” mailako izaera hori, jakintzat ematen den errealitate izaera hori, azkenean “egiaren erregimen” bihurtzen dela (Foucault, 1992:187). Horregatik, jarreraren kasuan, “errazagoa gertatzen da jarrera horien osagai kognitiboa aldatzea –berdintasuna bultzatu duten bigarren sozializazioko prozesuetan– jarreraren osagai afektiboak eta ekin-tzarako prestasuna aldatzea baino, ikasketa-prozesu goiztiar eta, neurri handi batean, inkon-zienteetan modelatuak egoten baitira hauek” (Emakunde, 2012:192).

GURE PROPOSAMENA: EGOERAREN EDO BIZIPENAREN PERSPEKTIBA

3.3

Ikerketa honen erronka printzipala da nola bateratu dimentsio bakar batean eta inkesta ba-ten erantzunetan jarreraren dimentsio hirukoitza (kognitiboa, afektiboa eta konduktuala); nola atera bistara dimentsio emozionalez jositako diskurtso bat, arrazionala ez dena, adierazten ez dena, eta, bestalde, salatu edo deseraiki nahi dugun ordena hori legitimatzen duena.

Gurpil zoro horretatik irteteko balioen azterketara *egoeraren edo espresioen perspektiba* deitu diogunaren bitartez hurbiltzen saiatuko gara. Perspektiba honek Erving Goffman (1987) hartzen du abiapuntu gisa, zeinak gizarte-harremanak paper edo rol jakin batzuen antzezpen gisa ulertzea proposatzen baitzuen (perspektiba “dramaturgikoa” ere deitzen zaio). “Praktika dramatiko” horien egoera zehatz baten adierazpena edo eszenaratzea, Goffmanen iritzian, azterketa zientifiko-sozialerako perspektiba egokienetakoa da zeinahi gizarteren bizkarrezurra osatzen duten oinarriak ez ezik, gizarte horretako estereotipoak, irudikapenak, balioak eta, batez ere, identitate propioak ezagutzeko.

Horrela, perspektiba horretan bermaturik diogu praktika sozialetatik abiatuz eta haien bitar-tez bakarrik ondoriozta daitezkeela haiei eusten dieten balio implizituak. Horrela, “zenbait gauza (besteekin elkarlanean aritzea, bizitzak salbatzea, elkartasuna agertzea) horrelakoak egiten dituzten pertsona klasekoak garelako egiten ditugu, nortzuk garen kontuan harturik, egin behar ditugula uste dugulako. Eta, hain zuzen ere, egintza jakin horien bitartez adie-razten ditugu sinbolikoki gure printzipioak eta balioak. Horrek esplikatzeko du, kasu haue-tan, egintzaren erabilgarritasuna ez dela instrumentala, sinbolikoa baizik, hau da, egintza adierazgarria dela: haren bidez zerbait esan nahi dugu, nor garen, alegia”. (De Francisco, eta Aguiar, 2003:23).

Gure kasura etorrira, eguneroko eta ohiko praktika sozialetan bideratutako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioaren “adierazgarritasunari” jarri beharko litzaioke arreta,

praktika horiek definitzen baitute nortasun indibiduala eta soziala. Ahaztu gabe, era berean, praktika sozial horien eszenaratzea egoera, testuinguru, agertoki edo "une" jakin batean gertatzen dela, gizarte-, belaunaldi- eta biografia-baldintza jakin batzuetan (Goffman, 1991).

Ikuspegi hori bat dator, orain ia hogeit hamar urte, Emakundek bultzatutako Biltzarrean Salvador Cardúsek aldeztutako planteamenduarekin. Hona zer esan zuen balioez: "irizpidea edo horrelako zerbait dira, joko-araua, aukera bat egin behar denean erabakiaren oinarrian dagoena; horrela, bada, "Bourdieuaren habitus kontzeptura" hurbiltzen zen. (Cardús, 1995:83).

Eta egoera, testuinguru edo une jakin batean antzeztu diren praktika sozialei arreta jartzeak eta haietatik norberaren jardunean eta egituretan eragina duten balioak ondorioztatzeak inplikazio metodologiko bat dakar: egoera zehatz horiek esperimendatu ari diren edo duela gutxi esperimendatu dituzten pertsonak soilik hartu ahal izango dute parte aktiboki azterlan aplikatuan. Esperimenduari lehentasuna ematen dion "fokalizazio" horrekin, gainera, ahalik eta gehien "arindu" nahi lirateke ikasitako diskurtsoak edo sozialki espero daitezkeenak –adibidez, inkestetan "zer egingo zenuke, baldin eta...?" edo tankerako baldintzazko galderen bidez planteatzen direnak– eta, kontrara, zer egingo duen galdetuko dute zuzenean, erabaki hori une honetan edota oso denbora gutxi barru hartu beharrekoa delako.

KASU-AZTERKETA: AUKERAREN ARRAZOIAK

3.4

Ikuspegi fokalizatu horren defentsa gure ikerketa honen "kasura" ekarriko dugu lortu nahi dugunaren harira: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak, beste faktore batzuen artean, zer paper jokatzeko duen ezagutzea hurrengo goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeke unean (Unibertsitatea edo Goi-mailako Lanbide Heziketa), 2014/2015 ikasturteko ikasleek EAEko Batxilergoko 2. ikasturtea amaitzen dutenean.

Hiru arrazoi egon dira azterketa-xede hau aukeratzeko: alde batetik, balio horien adierazpena "une" oso jakin batean fokalizatzen da, une horretan hartzen den erabakiak ondorioak izango baititu, maila batean, pertsona baten ibilbide biografikoan. Zeinahi motatako determinismoak alde batera utzita, batxilergoaren amaiera, gure testuinguruan, emakume edo gizon batek pertsona heldu gisa izango duen bizi-orientazioa markatzen duen "une" bat da oraindik. Horregatik, "igarotze-erritu" (edo "instituzio-erritu") gisa har daiteke. Interes handikoa iruditzen zaigu identifikatzea zenbateraino jarraitzen duten prestakuntza-ibilbideek genero-estereotipoak berritzen, edota zeintzuk diren XXI. mendean sozializatu den belaunaldi honek –17 urteko neskek eta mutilak– euskarri gisa dituen balioak, erabakiak hartu behar dituztenean.

Bigarren arrazoiak da "unearen" balio sinbolikoari baliagarritasun metodologikoa ere erantsen zaiola: izan ere, jada adierazitako eta Emakundek bultzatutako ahaldundun arloko ikerketa-ildoari jarraipena ematea ahalbidetzen du, eta horrela konparazioko eta luzetarako parametro batzuk ezartzea "EAEko nerabeak. Hurbilketa ahaldundunetik abiatuta" (Emakunde, 2009) azterlanarekin. Azterlan hura 14 eta 17 urte arteko euskal neska eta mutilen autonomiarako eta erabakiak hartzeko estrategiak ezagutzen zentratu zen, ahaldundunaren testuinguru-kontzeptiotik. Izan ere, ahaldundunak "gauza desberdinak esan nahi ditzake emakume bakoitzarentzat, haren premia eta asmoen, testuinguru pertsonalaren, bizitzako momentuaren eta gizarte-ingurunearen arabera". (Emakunde, 2009).

Ahaldundunaren egoeren eta momentuen mendeko prozesu gisa –gizarte-ingurunearen eta bizitzako kokapenaren arabera, bultzada edo geraldien mende (Del Valle et al., 2002:201)–

ikusten duen perspektiba hori mantendu da ikerketa honetan ere, Euskadiko emakume adindunekin (Emakunde, 2012) eta helduekin (Emakunde, 2013) egindako azterlanetan egin zen bezala.

Ildo horretan, eta kasu-azterketa hau aukeratzeko hirugarren arrazoi nagusi gisa, Batxilergoko 2. urteko nesken iritziak ezagutzeak belaunaldi honetako (17 urte) emakumeen iritzietan aldaketak edo jarraitutasunak dauden egiaztatzea ahalbidetzen du, duela bi urte, 18 eta 65 urte arteko emakumeei egindako *Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan* (Emakunde, 2013) azterlanarekin alderatuta. Interes handiko belaunaldien arteko alderaketa izango da, Euskadiko emakumeen egungo egoeran eta haien pertzepzioan garrantzi handia duten gaiei buruzko euskal emakumeen iritzien panorama marratzuko baitu.

IKUSPEGIAREN

OSOTASUNA: IKASLE

NESKAK, IKASLE

MUTILAK, AMAK,

AITAK ETA IRAKASLEEN

KOLEKTIBOA

3.5

Ikerketa faseak banaka ikustera igaro aurretik, azterlan honen alderdi oso garrantzitsu bat osoko ikuspegia izan da goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia hartzeko "unean" jokoan zeuden eragile guztiak eta bakoitza kontuan hartzeko.

Gainera, osoko perspektiba hori bikoitza da, bai *genero aldagaia* eta bai *belaunaldi arteko aldagaia* sartzen baitira. Lehen kasuan, bai neska ikasleen eta bai haien ikaskide mutilen iritziak ere kontuan hartu dira. Horrek generoaren arabera erantzunetan egon daitezkeen aldeak ikustea ahalbidetzen du, eta belaunaldi honen egungo erretratu bat lortzea. Aurre-rago ikusiko den bezala, azterlan honetan garrantzi handia duen ezagutza-planoa da.

Eta bigarren kasuan, berriz, tartean sartu nahi izan ditugulako auzi honetan inplikaturik dauden bi agente sozial eta belaunaldi arlokoak, haien iritziei zuzenean eta aldi berean arreta jarririk: Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen *amak eta aitak* eta *irakasleen kolektiboa*.

Horrela, jokoan sartzen diren balioen perspektiba osoagoa eta testuinguruan hobeto kokatua lortzen da, erabaki hori hartzeko unean "balioa zeri ematen zaion" ikusten baita, eta bide ematen du belaunaldiko –eta, ondorioz, belaunaldi arteko– argazki gehiago lortzeko.

IKERKETAREN FASEAK

3.6

Eman dezagun orain ikerketa osatu duten faseen berri.

LEHEN FASEA: TESTUINGURU BIBLIOGRAFIKOA

3.6.1

Azterlan honetako erreferentzia bibliografikoen bilduma, batez ere, ikerketa teknikak garatzen dituzten ikerlan, liburu, artikulua, erreferentzia eta abarretara orientatu zen, bereziki izaera kuantitatibokoetara (galdeketak) eta ikasleen kolektiboarekin erlazioa zutenetara, bai balioen arloan, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan, bai hezkuntzaren eta generoaren arteko erlazioen eremuan.

Lehen fase honetako ondorio nagusietako bat guztiz doituak erreferentzien eskasia izan da. Espero zena, bestalde, aurrez adierazitako ikuspegia kontuan hartzen bada. Hala eta guztiz ere, badira zenbait erreferentzia nahitaez aipatu beharrekoak, hain zuzen ere, egiazko erreferentzia izan direlako guretzat, ondorengo hauek dira:

- Izaera orokorrez, erabilgarritasun handikoa izan zaigu Emakumearen Institutuak bul-tzatuta Álvaro Pagek ondutako *Propuesta de un sistema de indicadores sociales de igualdad entre géneros* lana, nahiz eta orain 20 urte argitaratua izan (1994).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta belaunaldi gazteenen arteko harremanen esparruan, interesgarriak dira Pallarés (2012), López Reusch (2012) eta Fernández-Llebrez eta Camas-en (2013) lanak, berdintasun ezean jarraitasun mehe eta ñabarduraz beteei jartzen baitiete arreta.
- Hezkuntzaren eta generoaren arteko erlazioen esparruan eta aukera berdintasunaren eremuan, interes handikoak izan zaizkigu Buchan (1993), Gómez Bueno et al. (2000), Rodríguez Menéndez eta Peña (2005), eta Martínez Garcíaren (2007) azterlanak.
- Batxilergoan prestakuntza-ibilbidea aukeratzearekin berriazko lotura dutenen artean, berriz, honako hauek aurkitu ditugu: Cortés Pascualen ikerketak (2010, 2012), Capilla eta Caserorena (2012), Santanarena (2009, 2012, 2013), Ceperoren doktorego-tesia (2009), eta Gaviria (1993), López Sáez (1995) eta Sánchez García et al. (2011) egileen azterlanak, funtsean, genero-estereotipoek unibertsitateko karrerak aukeratzeko orduan duten eragina azterketa-xede dutenak.

BIGARREN FASEA: ELKARRIZKETA SAKONAK IRAKASLEEN KOLEKTIBOARI ETA AMA/AITEN ORDEZKARIEI

3.6.2

Aurreko ikerketetan izandako esperientzia arrakastatsuek ere izan zuten eragina oraingo honetan metodo eta teknika kualitatiboak eta kuantitiboak segidan konbinatzen dituen estrategia metodologiko bat diseinatzeko. Lehenik eta behin, jardunbide egoki honek "esplorazio estrategia" bat jarri zuen abian, "metodo kualitatiboa" (eta haren tekniketako bi, elkarrizketa sakonak eta eztabaida-taldeak) erabiltzearen bitartez, hala zuzenean eta

hasieratik ezagutzeko azterlanaren xede diren kolektiboek eguneroko bizitzan nagusiki zer egoera bizi dituzten, betiere, errealitate horietara hobeto egokitutako informazioa biltzeko tresna bat osatzeko helburuarekin. Bigarrenik, "adierazgarritasun estrategia" bat jarri zen abian, "metodo kuantitatiboa" (eta haren tekniketako bat, "galdeketa") erabiltzearen bitartez, horrela haien iritziei buruzko informazio zuzena eta estatistikoki adierazgarria biltzeko xedearekin.

Lehen estrategiatik hasita, 2014ko irailean sei elkarrizketa sakon egin ziren: bi ikasketa-arduraduni, Batxilergoa ematen den ikastetxeetako bi irakasle emakumezko; EHIGEn (Gurasoen Elkartea) zuzendariari (emakumezkoa) eta BIGEn (Bizkaiko Gurasoen Elkartea) koordinatzaileari (emakumea hori ere).

Gidoi irekia diseinatu zen pertsona berriemaile horien iritzia ezagutzera bideratuta honako gai honi buruz: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak zer nolako pisua duen eskolaren esparruko egunerokotasunean Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen artean eta haien gurasoengan. Teknika kualitatibo hori aukeratzeko arrazoia (eztabaida-taldeenaren orde) gai praktiko bat izan zen: eskola esparruan parte-hartzaileengana errazago iristeko aukera, klaseen arteko "hutsarteak" baliatuz.

Hautatutako pertsonen posta elektronikoz bidali zitzaizen gidoia, azterlanaren sinestamenduarekin batera, eta elkarrizketarako ordua eta lekua finkatu ostean, emaitza gisa lortutako informazio kualitatiboaren lehen azterketa bat egin zen, nolabait zedarriz joateko, lehenik, hurrengo fase kualitatiborako gidoiaren esparruak eta, gero, galdeketa jaso beharreko esparru eta gai tematikoetarako.

**HIRUGARREN FASEA:
EZTABAIDA-TALDEAK,
IKASLE NESKA ETA
MUTILEKIN ETA AMA
ETA AITEKIN**

3.6.3

2014ko urrian, hiru eztabaida-talde egin ziren, bi neska eta mutil ikasleen artekoa, eta beste Batxilergoko 2. urteko ikasleen gurasoen artekoa.

Kasu guztietan, talde-dinamikak gauzatzearen bitartez azterketaren xede ziren bi kolektiboetako iritzia eta bizipenak zuzenean lortzea bilatzen zen. Esan behar da, edonola ere, ikerketa honen esparruan, teknika kualitatibo horren planteamendua eta garapena, batez ere, galdeketa galderak diseinatzera (4. fasea) bideratutako hasierako informazio ekoi-zpena lortzeko "kontroleko talde" gisa erabili zirela.

Landa lanaren iruzkinen atalean adieraziko den bezala, eztabaida-taldeen konposizioa eta berorien osaketa nahi zenaren eta ahal zenaren arteko konbinazio bat izan zen eta, emaitza gisa, ondorengo hiru dinamikak hauek gauzatu ziren:

1. Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen eta unibertsitateko hainbat titulaziotako (gizarte-, ekonomia- eta osasun-zientziak) 1. ikasturteko ikasle hasiberrien arteko talde mistoa (8 parte-hartzaile).
2. Ingeniaritzako 1. ikasturteko ikasle neska eta mutil hasiberrien talde mistoa (11 parte-hartzaile).
3. Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen ama eta aiten talde mistoa (12 parte-hartzaile)

Egindako elkarrizketa sakonetan bezala, taldeko dinamikak gauzatu eta grabatu ostean (haietako bi Bilbon eta bestea Gasteizen), emaitza gisa lortutako informazioa aztertu zen galdeketako esparru eta gai tematikoak diseinatzeko orientazioarekin.

**LAUGARREN FASEA:
GALDEKETEN ELKARLANEKO
DISEINUA**

3.6.4

Galdeketa da, zalantzarik gabe, ikerketa honetako "piezarik garrantzikoena". Eta aurrez adierazi dugun bezala, azterlan honetako elementu giltzarriak galdeketa batera bildu eta "itzultzea" izan da, dudarik gabe, zeregin gogorrena. Nolabait esanda, gainera, ia hirukoiztu egin da eginbide hori, galdeketa bat egin behar izan baita Batxilergoko 2. urtearen esparruko intereseko kolektibo bakoitzarentzat (ikasle neska eta mutilak, irakasleen kolektiboa eta gurasoak).

Beste aldi batzuetako esperientzia baliatuz, bai testuinguru bibliografikoak eta bai garatutako bi teknika kualitatiboek zereginaren konplexutasuna maila batean behintzat "arintzea" ahalbidetu zuten. Hala ere, azken galdeketari egindako ekarpenari dagokionez, azaroan gauzatutako beste talde dinamika bat izan zen jarduerarik garrantzikoena. Diseinatutako galdeketaren lehen zirriborroa egiteko, izan ere, urriko eztabaida-taldeetan parte hartutako ikasle neska eta mutilen artetik hautatutako talde bat bildu zen.

Esandako zirriborrora orientatutako talde dinamika horretan bi parte bereizi ziren: lehenik, ikasle neska eta mutil bakoitzak banaka bete zuen galdeketaren lehen bertsioa, eta alboan, era berean, ulertzen ez zituzten alderdiak idatzi zituzten; bigarrenik, galdeketak parte-hartzaileei sortu zizkieten inpresioak partekatu zituzten taldean, egin zitzaizketen ekarpenei arreta jarriarik, bai galderen enuntziarioa egitean eta bai erantzunetan; ikasle neska eta mutilen beren esperientzia propioa erabili zuten nork bere ekarpenak egiteko.

Logikoa den bezala, galdeketaren aktibitate sozializataile horretan ikerketa sustatu duen erakundea bera ere txertatu zen, eta hainbat ekarpen egin zituen esparru eta eremu zehatzetan, harik eta emaitza gisa, azkenean erabili den galdeketa ondu zen arte.

Komeni da adieraztea diseinatutako hiru galdeketetan, Batxilergoko 2. urteko ikasle neskak eta mutilak zirela, zuzenean edo zeharka, galderen eta erantzunen protagonistak. Haiei buruzko galdeketa zen, lan honek azterketa-xede dituen alabak, semeak edota ikasleak ziren neurrian. Horregatik, ez gurasoei eta ez irakasleei ez zaizkie beren belaunaldiari edo beren buruari buruzko iritziak eskatu, aldiz, haien iritziak ere egunero bai etxeetan eta bai ikasgeletan bizikide dituzten 17 urteko neska-mutilen belaunaldiari buruzkoak dira.

Horrela, hiru galdeketen diseinuan egin behar izan den ahalegin handienetako bat kasu bakoitzean galderak egokitzea izan da, baina erantzun berberak mantenduz, emaitzetan alderagarriak izan zitezten. Hiru galdeketak eranskin modura gehitu dira.

**BOSGARREN FASEA:
UNIBERTSOA, HAUTAKETA
ETA IKASTETXEEKIN
HARREMANETAN JARTZEA
ALOR KUANTITATIBOKO
LANA GARATZEKO**

3.6.5

Fase honetan sartu diren aktibitate guztiak xehakaturata banakatu ditugu.

BATXILERGOKO 2. URTEKO IKASLE NESKA ETA MUTILEN UNIBERTSOA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Estatistika Atalari neurri egindako informazio eskaera bat oinarri gisa harturik, abiapuntuko ikasle neska eta mutilen unibertso modura 2013-2014ko ikasturtea aukeratu zen xede horretarako, zeren eta laginaren hautaketa egiteko momentuan, ez baitzeuden artean finkatuta 2014-2015eko matrikulazioaren emaitzak, eta horrek eragina zuen sexu aldagaiaren arabera informazioaren banakatzean.

Geure kaptazio-estrategia propioa kontuan harturik, unibertso horretan Euskadiko ikastetxeetako eguneko irakaskuntzako Batxilergoko 2. urteko ikasleak soilik sartzen dira; esandako horiek, bestalde, 2013-2014ko ikasturtean matrikulatutako ikasle neska eta mutil guztien ia % 97 dira.

Hala, kolektibo honen unibertsoa 13.883 ikaslekoa da; haietatik % 52,8 ikasle neskak dira (7.331) eta gainerako % 47,2 ikasle mutilak (6.552). 542 talde leudeke guztira; horrek esan nahi du taldeko 25,6 ikasleko –neska eta mutil– ratioa dagoela taldeko.

1. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen, sexuaren, taldearen eta taldeko pisuaren ratioaren arabera. 2013-2014 ikasturtea guztizkoak

Modalitateak	Guztira	Neskak	Mutilak	Taldeak	Taldeko pertsonen ratioa
Arteak	464	324	140	19	24,4
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	6.147	3.664	2.483	245	25,1
Zientzia eta Teknologia	7.272	3.343	3.929	278	26,2
Guztira	13.883	7.331	6.552	542	25,6

Batxilergoko hiru modalitateei arreta jarririk, ikasle guztien % 52,4 Zientzia eta Teknologia egiten ari dira, % 44,3 Humanitateak eta Gizarte Zientziak, eta % 3,3 baizik ez "Arteak" modalitatea.

Nolanahi ere, nabarmendu beharreko elementu bat da neska ikasleek presentzia handiagoa dutela, bai absolutuki eta bai ehunekotan, Gizarte Zientzien (guztizkoaren % 59,6) eta

Arteen (gutzizkoaren ia % 70) modalitateetan; aldiz, ikasle mutilak gehiago dira Zientzia eta Teknologien modalitatean (gutzizkoaren % 54).

2. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen, sexuaren, eta taldearen arabera. 2013-2014 ikasturtea. Ehunekoak

Modalitateak	Guztira	Neskak	Mutilak	Taldeak
Arteak	3,3	4,4	2,1	3,5
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	44,3	50,0	37,9	45,2
Zientzia eta Teknologia	52,4	45,6	60,0	51,3
Guztira	100,0	52,8	47,2	100,0

3. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen eta sexuaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Ehunekoak

Modalitateak	Guztira	Neskak	Mutilak
Arteak	100,0	69,8	30,2
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	100,0	59,6	40,4
Zientzia eta Teknologia	100,0	46,0	54,0
Guztira	100,0	52,8	47,2

4. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen eta hizkuntza-ereduaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Gutzizkoak

Modalitateak	D ereduak	A ereduak	Ar ereduak	X ereduak	GUZTIRA
Arteak	317	147			464
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	3.630	2.367	124	26	6.147
Zientzia eta Teknologia	4.763	2.336	118	55	7.272
Guztira	8.710	4.850	242	81	13.883

D ereduaren pisua garrantzi handikoa da Batxilergoko 2. urtean, gutzizkoaren % 62,7 baita. Ondoren, A ereduak ia % 35 kontzentratzen du. Orokorrean, ereduaren arabera banaketa hori gertatzen da hiru modalitateetan.

Lurralde historikoak aintzat harturik, Batxilergoko 2. urteko bi ikasletatik bat Bizkaian kontzentratzen da (gutzizkoaren % 50,3), % 35,7 Gipuzkoan eta ia % 14 Araban.

5. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen eta hizkuntza-ereduaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Ehunekoak

Modalitateak	D eredua	A eredua	Ar eredua	X eredua	GUZTIRA
Arteak	68,3	31,7			3,3
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	59,1	38,5	2,0	0,4	44,3
Zientzia eta Teknologia	65,5	32,1	1,6	0,8	52,4
Guztira	62,7	34,9	1,7	0,6	100,0

6. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen eta lurralde historikoaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Guztizkoak

Modalitateak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Arteak	85	211	168	464
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	842	3.213	2.092	6.147
Zientzia eta Teknologia	1.008	3.564	2.700	7.272
Guztira	1.936	6.988	4.965	13.889

7. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak modalitatearen eta lurralde historikoaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Ehunekoak

Modalitateak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Arteak	18,3	45,5	36,2	3,3
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	13,7	52,3	34,0	44,3
Zientzia eta Teknologia	13,9	49,0	37,1	52,4
Guztira	13,9	50,3	35,7	100,0

Azkenik, Euskadiko AEan 202 ikastetxe daude guztira Batxilergoko 2. urtea ematen dutenak 2013-14 ikasturtean, haietatik ia % 57 titulartasun pribatukoak dira (115) eta % 43,1 titulartasun publikokoak (87).

Gaingiroki, ikastetxeen banaketak matrikulatutako ikasleen lurraldekako banaketa errepikatu du, baina Bizkaiko lurraldeak pisu handiagoa hartzen duela (% 53,5).

8. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikastetxeak lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Guztizkoak

Modalitateak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Publikoak	13	46	28	87
Pribatuak	11	62	42	115
Guztira	24	108	70	202

9. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikastetxeak lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera. 2013-2014 ikasturtea. Ehunekoak

Modalitateak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Publikoak	14,9	52,9	32,2	43,1
Pribatuak	9,6	53,9	36,5	56,9
Guztira	11,9	53,5	34,7	100,0

BATXILERGOKO 2. URTEKO IKASLE NESKA ETA MUTILEN LAGINA

Hasierako unibertso gisa 2013-14 ikasturtean Batxilergoko 2. urtea egiten ari zen ikasle neska eta mutilen multzoa harturik, *hasieran kalkulaturako lagina, estatistikoki adierazgarria jotzen zena, 995 galdeketakoa zen*. Lagin horrek, beraz, +/-% 5eko errore estatistikoa izan dezake gehienera, % 95eko konfiantza mailarekin eta $pq=0,50$ eko errore-marjinarekin: % 56,6, $pq = 0,75$: % 49 eta $pq = 0,90$: % 33,9.

Ondoren, 995eko lagin estimatu horren banaketa azalduko dugu modalitatea, sexua, hizkuntza-eredua, lurralde historikoa, ikastetxea, titulartasuna eta taldeak aldagaietan oinarrituta.

Inkestatze lana ahalik eta gehien doitu zen segmentazioko aldagai horietara. Eta emaitzen kapituluari islatuko den bezala, azkenean halaxe egin zen, estimaturakoa baino ere neska eta mutil ikasle gehiagoren parte-hartzea gauzatu baitzen: 1.303 galdeketa, hasieran kalkulaturako lagina baino ia % 25 gehiago.

10. TAULA. Lagin banaketa modalitatearen, sexuaren eta taldeen arabera

Modalitateak	Guztira	Neskak	Mutilak	Taldeak
Arteak	33	23	10	2
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	441	263	178	18
Zientzia eta Teknologia	521	240	282	22
Guztira	995	525	470	42

11. TAULA. Lagin banaketa modalitatearen eta hizkuntza-ereduaren arabera

Modalitateak	D eredua	A eredua	Ar eredua	X eredua:	GUZTIRA
Arteak	23	11	0	0	33
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	260	170	9	2	441
Zientzia eta Teknologia	341	167	8	4	521
Guztira	624	348	17	6	995

12. TAULA. Lagin banaketa modalitatearen eta lurralde historikoaren arabera

Modalitateak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Arteak	6	15	12	33
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	60	230	150	440
Zientzia eta Teknologia	72	255	193	521
Guztira	139	501	356	995

13. TAULA. Lagin banaketa ikastetxeen eta titulartasunaren arabera

Modalitateak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Publikoak	3	10	6	18
Pribatuak	2	13	9	24
Guztira	5	22	15	42

IRAKASLEEN LAGINAK

14 eta 15. tauletan ikusten den bezala, ia osorik bete da parte hartu duen irakasleen kolektiboarentzat ikerketa honetan hasieratik erabakitako lagina (% 92,1). Azkenean, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilekin hainbat modutako loturak dituen kolektibo horretako 105 pertsonak hartu zuten parte guztira.

14. TAULA. Irakasleen kolektiboaren hasierako lagina

Hasierako irakasleen profilak	GUZTIRA
Taldeko irakaslea inkestaren uean	51
Orientatzailea	21
Ikasketa arduraduna	21
Beste bat	21
Guztira	114

15. TAULA. Irakasleen kolektiboaren azkeneko lagina

Irakasleen profilak, azkena	GUZTIRA
Taldeko irakaslea inkestaren uean	42
Orientatzailea	21
Ikasketa arduraduna	21
Beste bat	21
Guztira	105

AMA/AITEN LAGINA

Osotasun bokazioa duen ikerketa aplikatu honen garapenean aurreikusten zen zailtasun printzipaletako batean arrazoa emanez, Euskadiko A Eko Batxilergoko 2. urtean alabak eta/edo semeak dituzten ama/aiten kolektiboaren parte-hartzea, azkenean, dezentez apalagoa izan da egiten ziren estimazio baxuenak baino.

Aurreikusten zen estimazio apalena % 15koa zen, hau da, gutxi gorabehera, 140 inguruko lagin bat; baina erantzun osoak 72 kasutan bakarrik lortu dira, aurreikuspenaren % 51,4, alegia.

16. TAULA. Ama eta aiten kolektiboaren hasierako eta amaierako lagina

Parte hartzen duten amak eta aitak	GUZTIRA	%
Ama	53	73,6
Aita	19	26,4
Parte-hartzearen gutxieneko estimazioa	140	
Partaidetza %	51,4	
Guztira	72	100

Hurrengo atalean sakonago aztertuko ditugu ama/aiten kolektiboaren parte-hartze eskas horren arrazoiak, baina 16. taulak erakusten digu, orobat, erantzun horien guztien ia % 74 ikasle neska eta mutil horien amek emandakoak direla; horrek agerian uzten du, era berean, genero femeninoaren protagonismoa beren alaba eta semeek eskola-ingurunean egiten dutenaren jarraipena egitean.

LANDA LANEKO

IRUZKINAK:

ARRAKASTAK

ETA IKASKIZUNAK

3.7

Atal honetan azaltzen dira landa lan osoan zehar –gutxi gorabehera sei bat hilabete iraun du bere bi faseetan (kualitatiboa eta kuantitatiboa)– gertatutakoaren ezaugarri nagusiak. Eta kontuan harturik parte hartu duten kolektiboen arteko desberdintasunak eta aplikatutako tekniken aniztasuna, azterlanaren izaera berritzailea ahaztu gabe, ikuspegiari eta edukiei dagokienez, esan behar da ez dela ikerketa erraza izan eta arrakastak eta ikaskizunak izan dituela.

... FASE KUALITATIBOAN

3.7.1

Ikasle neska eta mutilen kasuan, azterlana ofizialki abian jarri zenean, 2014ko maiatzaren erdi aldera, ez zen jada erraza Batxilergoko 2. urteko ikasleengana "iristea"; eta ez bakarrik ikasturtea amaitzen ari zirelako, baizik eta, batez ere, unibertsitaterako sarbide-probaren prestakuntzan buru-belarri kontzentraturik zeudelako.

Horregatik, fase kualitatibo hori hurrengo irailera aldatzea erabaki zen. Hala, esandako fase horretan ahalik eta oreka handienarekin hartu zuten parte bai Batxilergoko 2. ikasturte hasiberriko ikasle neska eta mutilak eta bai unibertsitate-titulazioko 1. urte hasiberriko ikasleek, neska eta mutil. Kasu batean, haien iritziek handik hilabete batzuetara hartu beharreko erabakiak aurreratuko zituzten; bestean, berriz, "a posteriori" emandako iritzia ziren, artean berria bazeukaten ere, beren erabakian eragina izan zuten faktore eta balioen abanikoari buruz.

Ikasle neska eta mutilekin egindako hiru talde dinamikak eraginkorrak izan ziren, egia esan, zeukaten helburu nagusiari begira: galdeketa atontzea. Ikasleak, neska eta mutil, oso eroso egon ziren uneoro. Hala ere, aipatzekoak dira bi egitate azpimarragarri. Lehenengoa da gazteek jartzen zituzten nahasmendu eta harridura aurpegiak dinamika moderatzen zuten pertsonak behin eta berriro mahairatzen zituztenean emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia zuten gaiak, diskurtsoetan adierazi gabeko ñabardurak aurkitzearen. Horrela, ikerketa honen fase kualitatiboan aurretiaz ikusi ahal izan zen azterlan honen egitate giltzarrietako bat: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jakintzat ematen den balio bat dela, eta 1998 inguruan jaiotako ikasleen belaunaldi honek ez duela zuzenean arazo gisa ikusten.

Agerian geratu zen berriro oso zaila dela galdeketa batean islatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak zenbaterainoko eragina duen erabakiak hartzerakoan, agian, arrazionalizatu gabeko elementuak sartzen direlako, lortuzat ematen direnak sozializazio prozesuetan eta (generoko) identitate indibidual eta sozialen eraikuntzan.

Ikasleekin gauzatutako talde dinamiketan nabarmentzekoa den bigarren egitatea da erabakiak burujabetasunez hartzeak (ahalduntze indibiduala) pisu handia hartu zuela ikasleen iritzien balio edo ardatz nagusi gisa. Hala, ez zitzaion axola izan beren erabakietan –bai orokorretan eta bai, zehazkiago, Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean gustatuko litzaiekeenaz edo egingo dutenaz erabakia hartzean– burujabetasunak duen balioaz mintzatzea, eztabaidatzea, eta iritzia ematea; hau da, ñabardura eta xehetasun mordoa eman zuten, ia existitzen ez zirenak emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioaz ari zirenean, gai hori, hitzez adierazi edo problematizatu ordez, beren gain hartua baitute.

Irakasleen kolektiboaren kasuan, landa lan kualitatiboaren garapenak sentsazio anbiguak sortu zituen. Ez da erraza norberaren iritzietatik harago kokatu eta ikastetxean hautematen denera mugatutako mailan mantentzea, bai orain eta bai duela gutxi, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzean berdintasunaren balioak izan dezakeen eraginari dagokionez. Eta lehendik argi bazegoen irakasleentzako galdeketa diseinuaren orientazioa ikasleei buruz duten iritzia dagokionez, ez irakasleek berek dituzten iritziez, elkarrizketa sakonek sendotu egin zuten egitate hori.

Azkenik, ordezkariak eginkor elkarriketa sakonen bidez –eta eztabaida-talde baten bitartez– bildu ziren ama/aiten kolektiboaren iritzia fase kualitatiboan. Aurreko horri estu loturik, EHIGEko ordezkariak diren elkarteekin aurrez egindako elkarrizketen bidez Batxilergoko 2. urteko ama/aitak kaptatzeko geneukan estrategiak, tamalez, huts egin zuen. Batxilergoko 2. urteko ikasleen gurasoak kaptatzeko estrategia birdiseinatu ostean, kolektibo horretara ikastetxeetako irakasleen (zuzendarien) bidez iristen saiatu ginenean, berriz, konturatu ginen bi agente horien arteko komunikazio maila benetan eskasa dela.

Azterlan honek egiaztatu ahal izan du zuzenean eskola-komunitateko elkarte sare formal eta/edo ez-formaletan ama/aiten duten presentzia edo inplikazio maila gutxituz joaten dela alaba edo semearen hezkuntza mailak gora egiten duen neurrian.

Nolanahi ere, EHIGeko kide aktiboago batzuekiko zuzeneko harremanaren bitartez ama/ aitekin gauzatutako eztabaida-taldea oso dinamikoa izan zen. Esandako taldean guraso bakoitzaren itxaropenak, ilusioak, desirak eta nahiak plazaratu ziren, baina errealtatearekiko lotura ere bai beren alaba eta semeen etorkizunari buruz markatutako ziurgabetasun egoeraren aurrean.

... FASE KUANTITATIBOAN

3.7.2

Azterlanaren sustatzaile gisa EMAKUNDE identifikatzea edo ez izan zen gehien eztabaidatu eta aztertu zen alderdietako bat inplikaturako hiru kolektiboetara ikerketaren berri emate-rakoan, arriskua baitzegoen esperotako erantzunak, politikoki zuzenak, jasotzeko.

Izatez, ondorio potentzial hori "moteltzeko" intentzioz, ikasle neska eta mutilekin egindako talde dinamiketan ez zitzairen inoiz adierazi nor zen azterlanaren sustatzailea. Hori, ordea, ezinezkoa zen azterlanaren dimentsio kuantitatiboan, bai ikasleen kasuan, bai bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen kolektiboetan lan egiten zuten pertsonekin, eta bai ikasleen gurasoekin, non legez eta instituzio gisa egokia den azterlanaren erakunde bultzatzailea zein den iragartzea.

Azken gabeko eztabaida batean sartzea litzateke ikerketa bultzatu duen erakundea zein izan den jakiteak pertsona parte-hartzaileek emandako erantzunen egiazkotasunean zenbaterainoko eragina izan duen neurtu nahi izatea. Gure ustez, halakorik balego, eragin hori dezentez txikiagoa litzateke ikasleen kolektiboan, neska eta mutil, eta gurasoenean. Baina fase kualitatibo eta kuantitatiboetako seinale batzuen arabera, beharbada, irakasleen kolektiboan legoke, egotekotan, tankera horretako eraginen bat. Egon ziren batzuk, oso gutxi, egia esan, behin eta berriro azaldu bagenien ere erantzunak izengabeak eta isilpekoak zirela eta emaitzak ez espezifikoki baizik eta globalki tratatuko zirela, ikastetxeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan garatzen ziren praktiken inguruko "auditoria" moduko zerbait bezala ulertu zutenak.

Behin hori azpimarratuta –zeinak, neurri handi batean, kontzeptuz, markaz eta logoz gero eta aseago dagoen testuinguru bateko gizarte errealtatearen izaera "performatiboa" gogorarazten baitu–, aurreko atal batean adierazi den bezala, azterlan honen abiapuntu teoriko eta metodologiko definitzaileenetako bat aztergai diren kolektiboengana, Batxilergoko 2. urtea amaitu ondoren, goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko erabakia aktibo dagoen "momentuan" iristen saiatzea zen. Gure testuinguruan, "une" hori ikastetxeetan gertatzen da otsailean eta martxoan, goi-mailako aukeren behin-behineko izen-emateak egin behar direnean. Horrela bada, ikerketa une horretan presente egon zedin, ikastetxeekin harremanetan jarri ginen 2015eko urte honetako urtarrilean eta otsailean.

Ikerketa aplikatu orotako alderdi oso garrantzitsu bat terrenoa alde aurretik ongi prestatzea da. Azterlan honetako denbora garrantzizko bat, beraz, inkestatze-lan hori prestatzen eman da, hiru aktibitateetan, batez ere:

1. Emakundetik sinestamendu bat bidali zen, posta bidez, gure Autonomia Erkidegoko ikastetxeen hautaketa edo lagin zabal batera; gutunean, azterlanaren ildo nagusien berri emateaz gainera, adierazten zitzairen, agian, berorretan aktiboki parte hartzeko eskatuko zitzaizela.
2. Posta igorpena egin ondoren, telefono bidezko komunikazio bat gauzatu zen parte harrezaketen ikastetxeetako arduradun bakoitzarekin, lehen eskutik azaltzearen azterla-

naren helburuak eta jakitearren zenbaterainoko prestasuna zuten esandako ikerketan parte hartzeko.

Arduradun horri jakitera eman zitzaion ez zegoela ikasleei adierazterik nor zen azterlanaren azken sustatzailea, eta berori aurrera eramateaz arduratuko zen erakundearen izena eman behar zuela soilik. Era berean jakinarazi zitzaion ez zela komeni bera presente egotea galdeketa egiten zen bitartean.

3. Hala, ezagutu zenean, alde batetik, ikastetxearen prestasuna azterlanean aktiboki laguntzeko, eta bestetik, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen kopurua, modalitatearen, hizkuntza-ereduaren eta titulartasunaren arabera, *bi etapako laginketa* bat bitarteko zela, bigarren hezkuntzako unitateen (ikastetxeak eta, haien barruan, ikasgela espezifikokoak) eta azken unitateen (ikasgela horietako neskak eta mutilak) ausazko hautaketa bat egin zen, ikasgela bat edo gehiago, eta data eta ordu egokiena izendatu ziren esandako galdeketak gauzatzeko.

Komeni da hemen esatea egun bat edo bi lehenago deitu eta ikastetxeko arduradunarekiko eta/edo kontaktuarekiko hitzordua sendotzen zela, eta, bide batez, ikastetxera joango zen inkestagilearen izena jakinarazten zitzaiola.

Oro har, jarrera eta prestasun ona egon da hasieran hautatutako ikastetxe gehienen aldetik, laginaren ezaugarrietara ongi doitzen baitziren. Bidezkoa da islatzea, bestalde, jarrera hobea aurkitu genuela titulartasun publikoko ikastetxeetan. Landa lanetan gertatu ohi den bezala, data guztiak ez dira onak, baina kasu honetan Batxilergoko 2. urteko ikasketa plana are doituagoa izaten da, unibertsitateko sarrera-probak sortzen duen errespetua dela eta; horregatik, ordu bete eskatzea denbora-eskaera oso altua iruditu zitzaien. Horri erantsi behar zaio azterketak, errekupeazioak, ikasketa-bidaia, eta unibertsitateetan ateak zabaltzeko egunak ere izaten direla, inauteriak eta garaiko elurteak ahaztu gabe.

Ikasgelara etorrira, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen oso gaingiroki aurkeztu zitzaien ikerketa, behin eta berriro gogoraraziz axola ziona neskak eta mutilek zer dioten eta egiten duten jakitea zela, ikasleek beraiek esaten dutenetik abiatuta, eta ez beste pertsona batzuek haietaz esaten dutenetik.

Garrantzia ematen zitzaion islatutako informazioaren izaera izengabe eta isilpekoari, ohar-taraziz galdeketa ez zegoela norberaren identifikazioa eskatzen zuen galderarik. Esaten zitzaien, orobat, ez zutela ipini behar ez izenik eta ez abizenik galdeketa. Era berean, ikasle neska eta mutilen beren hizkuntza-ereduaren arabera ematen zitzaien galdeketa. Eta haietakoren batek bere hizkuntza-eredu ofiziala ez zen beste hizkuntza batean erantzutea nahiago baldin bazuen, eskatutako hizkuntzan ematen zitzaion.

Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek galdeketa erantzuteko orduan identifikatu zituzten arazo nagusiak galdera batzuen ulermenean zentratu ziren, eta zenbait kasutan, baita galderaren luzeraren/trinkotasunaren inguruan ere. Eta horrelakoetan gertatu ohi den modura, galdeketa amaitu ostean, elkarrizketa kolektibo guztiz interesgarria hasi zuten neska eta mutilek, teknika kuantitatiboan txertatutako gaiei jarraipena ematen zitzaie.

Ikasle neska eta mutilen zuzendutako galdeketak ikasgelan bertan betetzen ziren, landa lanaren garapenaz arduratzen zen pertsonak adierazitakoei kasu eginik eta eskola-orduen barruan.

Irakasleei dagokienez, ikastetxera heltzean jasotzen zuten galdeketa eta erantzunekin itzultzen zuten datuak jasotzeko ardura zuen pertsona ikastetxetik joan baino lehenago. Kasuren batean, irakasleen agenda-arrazoia zirela medio, ez zen posible izan galdeketa egunean

bertan jasotzea eta aurrez frankeatutako gutun-azal bat utzi zitzaien, hura bete eta, era anonimoan, postaz bidal zezaten.

Azkenik, azterlan honetan kaptaziora zuzendutako estrategia metodologikoaren hutsegite handiena Batxilergoko 2. urteko ikasleen ama/aiten kolektiboan gertatu zen. Fase kualitatiboan ikusi zenean zer zailtasunak zeuden EHIGEn bitartekaritzarekin kolektibora heltzeko, pentsatu genuen haien alabak eta semeak zirela pertsona haiengana iristeko eduki genezakeen bide bakanetako bat, bakarra ez baldin bazen. Eta estrategia horretan, web orriko galdeketa iruditu zitzaigun aukera arinena edo eragozpen gutxien sortzen zue-na, paperezkoa erabiliz gero ikasle beraiek arduratu beharko baitzuten hura itzultzeaz, bai ikastetxean utzita edo bai posta bidez.

Horretarako, azkenik, ondorengo estrategia diseinatu zen:

1. Ikasgelan galdeketa gauzatu ondoren, aktibitatean parte hartu zuen taldeko ikasleei, neska eta mutil, Emakundek sinatutako gutun/sinestamendu bana entregatu zitzaien, beren ama/aitei eta/edo arduradun gisa zituzten pertsona helduei eman ziezaieten.
2. Gutunean, azterlanaren aurkezpen bat egin eta erantzunen isilpekotasuna eta izenga-betasuna segurtatu ondoren, web bidezko lotura bat eskaini zitzaien galdeketa bertan bete zezaten. Galdeketara sartu ahal izateko, bi sarbide-kode ere eman zitzaizkien bizikidetzaren unitate bakoitzeko.

Azkenean, ama/aiten parte-hartze maila ikerketan markatutako helburuen azpitik geratu dira, aurrezko atal batean jada adierazi den bezala. Komunikazio prozesu honetako opakutasuna gorabehera, gure iturrien arabera, parte-hartze murriz horrek ez du loturarik ez web plataformaren inguruko arazoekin, ez-eta ikasleen gurasoak interneten erabileran trebatuta egotearekin edo ez egotearekin. Eta hori diogu ze, web orriko galdeketa zuten beste ikerketa aplikatu batzuetan ez bezala, kasu honetan bertan behera edo osatu gabe utzitako galdeketak oso gutxi izan zirelako. Horrek esan nahi du, hasiera-hasieratik, galdeketa parte hartzeko gutun/sinestamendua jaso zuten ama/aiten kopurua oso apala izan zela.

Ikasleen ama eta aitengana heltzeko zailtasun operatiboak kasu honetan ez dira dimentsio teknologikoetan kokatu, baizik eta sozialetan, ez on-line, off-line baizik. Ikerketa taldeak Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilei izendatu zien bitartekari rola ez zuten helburua lortu. Izatez, zenbait ikastetxek aurrez jakinarazi ziguten zailtasunak zituztela informazioa etxeetara hel zedin. Eta egiaztatu genuen etxera eramateko utzi genien gure gutun/sinestamendua, hainbat alditan, bai mahai gainean, edota ikasgelako zakarrontzira botata geratu zela.

Batxilergoko 2. urteko zenbait ikaslek, neska eta mutil, zuzenean adierazi ziguten bezala, badirudi askok ez zituztela beren gurasoekin partekatu nahi eurek egindako galdeketa jasota zeuden zenbait galdera, nahiz eta azterlanaren dimentsio honetan haien laguntza eskatu genuen unean behin eta berriro esan eta segurtatu genien galdera haiek ez zirela "intimitateetan" sartzen.

Aurreko hiru kapitulu horiez gain, azterlanaren emaitzak honela egituratu dira:

- 4. kapitulan Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen profil soziodemografikoa, hezkuntzakoa, eta haien bizikidetza-unitatearena azaltzen dira; hor islatu dira, orobat, politikarekiko eta emakumeen mugimendu/elkarteeekiko gaur egun duten interesa, eta berorietan duten parte-hartze maila.
- 5. kapitulan hasten da txosten honen hirugarren zatia, non ezagutu nahi den nola ikusten dituzten beren buruak belaunaldi honetako neska eta mutilek. Kasu honetan, erretratu axiologiko moduko bat ez ezik, balio horietan eragiten duten agenteena ere erakusten da.
- Azken alderdi horri lotuta, 6. kapituluak norberaren autonomiaren baliotik eratortzen diren adierazle guztiei jartzen die arreta.
- 7. kapituluak, berriz, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zuzeneko lotura duten Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzien adierazleak aurkezten ditu.
- 8. kapitulan, txosten honen laugarren zatia kontzentratzen da. Berorretan, aurrekoan ez bezala, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaur egungo egoerari buruz duten ikuspegia ezagutu nahi da. Kapitulu honetan, belaunaldien arteko pertzepzioak interesatzen zaizkigu, emakumeen egungo berdintasun-ezen egoerak eta zer agertokitan adierazten diren beroriek.
- 9. kapitulan hasten da azterlanaren bosgarren zatia; hor ematen da ezagutzera ikasleek egiteko asmoa duten goi-mailako prestakuntza-ibilbidea. Kapitulu horretan hautaketan inplikaturako balioen erradiografia bat eskaintzen da, eta 10. kapitulan, egindako azken erabakiak edo hautespenak islatzen dira.
- 11. kapitulan, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek, hemendik urte batzuetara, pertsona heldu gisa, beren buruak nola ikusten dituzten erakusten du.
- 12. kapituluak, batik bat, konparaziozkoa da, bertan sintetizatzen baitira ama/aitek eta irakasleen kolektiboak nolako pertzepzio- eta irudi-aldeak dituzten gai berberei buruz, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek dituztenekin alderatua.
- 13. kapitulan, Emakundek bultzatutako azterlan batean 2008ko adierazleak ditugula baliaturik, belaunaldien arteko alderaketa-elementuak garatzen dira adin bereko duela 7 urteko mutil eta nesken iritzien eta gaur egungoek dituztenen artean.
- 14. kapituluak ere helburu berbera du, baina kasu honetan emakumeen kolektiboan zentratzen da, Emakundek 2013an bultzatutako azterlan bat baliatuz, oraingoa.
- Eta, azkenik, 15. kapitulan, batik bat, ikerketaren ondorioak islatzen dira, esku artean duguna bezalako azterlan zabal bat sintetizatzeke sortzen diren zailtasunak ahaztu gabe.

Txostenean hainbat taula eta grafiko erakusten dira, kasu gehienetan, ehunekoetan adierazitako hiru emaitza-zutabe dituztela: batean Batxilergoko 2. urteko neska ikasleen emaitzak ("neskak" erreferentziarekin), ikasturte bereko mutil ikasleen emaitzak ("mutilak" erreferentziarekin), eta azkenik, "guztira" adierazten duen zutabea. Adierazleak handienetik txikienera ordenatuta daude, "guztira" izendatutako azken zutabe horretako emaitzen arabera.

Txostenaren diskurtso-bilbea ahalik eta gehien arintzen saiatu garen arren, honek bezala oinarri kuantitatiboa duten ikerketa aplikatuek hain berezkoa duten taula, grafiko eta testuen konbinazioak irakurketa zamatzeko joera izaten du, existitzen diren datuen aniztasunagatik eta galdeketa osatzen duten gaien hedaduragatik.

Datuen nahaste-borrastetik haratago, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen, haien gurasoen eta irakasleen erantzunen atzean ezkututzen diren adierazi gabeko eta gordeko erantzunen patroiak bilatzea da, logikoa den bezala, azterlan honen erredakzioaren helburuetako bat. Goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeko unean tartean ziren esandako hiru agente horien iritzien interpretazioa egiten ahalegindu gara. Harritzekoa ez denez, interpretazioak bere arriskuak ditu, gauza batzuetan asmatzen den bezala, besteetan huts egin daiteke, datuak behar baino gehiago "tenkatzen" badira edo, alderantziz, nahikoa "zukutu" ez badira. Argudio ildo baten bilaketan, hori da aukeraren prezioa, Weber-i kasu egiten badiogu (1964: 13). Jakinaren gainean gaude egin den emaitzen interpretazioa ez dela egin zitekeen bakarra. Eta oso pozgarria litzateke guretzat emaitza hauek, planteatutako helburuei erantzuteaz gainera, azterlan, egintza eta estrategia berriak bultzatuko balituzkete, horrelako gaiak aztertzen jarraitzeko.

BIGARREN ZATIA:

NOR DIRA?

BATXILERGOKO

2. URTEKO

IKASLE NESKA

ETA MUTILEN

PROFILA EUSKADIN

4.

Kapitulu honetan, azterlanean parte hartu duten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen argazki eguneratu bat aurkezten da, haien adina, jatorria, ikaste-teen titulartasuna, hizkuntza-ereduak, maila, eta politikarekiko eta emakumeen mugimenduekiko duten interesa kontuan hartuta. Aldez aurreko testuinguruan kokatzeko ahalegin bat da, ondorengo atalak egokiago ulertzea ahalbidetu dezan.

EZAUGARRI

SOZIODEMOGRAFIKOAK

4.1

17. taulak erakusten du ikerketa honetan parte hartu duten ikasle neska eta mutilen banaketa bai zenbaki absolutuetan eta bai ehunekoetan. Aurrez adierazi den bezala, 2014/15 ikasturtean Euskadiko Autonomia Erkidegoan Batxilergoko 2. urtean zeuden neska-mutilak izan dira.

17. TAULA. Azterlanean parte hartzen duten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak. Guztizkoak eta ehunekoak. 2015

Sexoa	GUZTIRA	%
Neskak	712	54,6
Mutilak	591	45,4
Guztira	1.308	100

Azterlanean parte hartu duen ikasleen kolektibo osoaren batez besteko adina 17,36 urtekoa izan da; apur bat handiagoa mutiletan, nesketan baino. Eraitza horiekin bat etorririk, 17 urteko neska-mutilen kolektiboa izan da ugariena; kolektibo osoaren ia % 70 izan baita.

18. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen batez besteko adina. Ehunekoak. 2015

Adina	Neskak	Mutilak	Guztira
17	71,1	68,0	69,7
18	23,7	25,4	24,5
19	4,1	5,1	4,5
20	0,6	1,0	0,8
21	0,3	0,3	0,3
Ed/Ede	0,3	0,2	0,2
Batez bestekoa	17,33	17,4	17,36

Interesekoa izan daitekeen beste datu bat azterlanean parte hartu duten ikasle neska eta mutiletatik, atzerritar jatorrikoak zenbat izan diren jakitea da. Batxilergoko 2. urteko ikasle, neska eta mutil, gehien-gehienak, % 91,2, Euskadiko AEn jaioko dira. 19. taulak islatzen du egoera horretan leudekeela ikasle neska eta mutilen kolektiboaren gainerako %8,8, eta horietatik "Latinoamerika" deituko herrialdeetakoak direla nagusi, % 47,5, alegia.

19. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen jaiolekua. Ehunekoak. 2015

Jaiolekua	Neskak	Mutilak	Guztira
Bizkaia	42,7	45,7	44,1
Gipuzkoa	34,6	34,5	34,5
Araba	12,8	12,4	12,6
Latinoamerika	3,2	2,5	2,9
Estatuko beste probintzia bat	2,8	2,7	2,8
Ed/Ede	0,8	1,0	0,9
Europa	0,7	0,2	0,5
Errumania	0,6	0,2	0,4
Afrikako beste herrialde bat	0,6	0,2	0,4
Txina	0,6	0,2	0,4
Sahara	0,3	0,3	0,3
Maroko	0,3	0,0	0,2
Asiako beste herrialde bat	0,1	0,2	0,2
Guztira	100	100	100


Azkenik, guztizko kopuruaren % 1,2k adierazi du desgaitasunen bat duela, eta ehuneko hori handiagoa izan da mutiletan (% 2), nesketan baino (% 0,4).

20. TAULA. Desgaitasuna duten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen zenbatekoa, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015

Desgaitasuna	Neskak	Mutilak	Guztira
Bai	0,4	2,0	1,2
Ez	97,2	96,1	96,7
Ed/Ede	2,4	1,9	2,1
Guztira	100	100	100

Atal honetan azterlanean parte hartu duten Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen hezkuntza ezaugarriekin lotura duten hiru alderdi aurkezten dira: ikastetxeen titulartasuna, mailak eta hizkuntza-ereduak. Euskadiko AEko matrikulaziora mugaturik, 1. grafikoak erakusten digu parte hartu duten ikasleen kolektibo osoaren % 56,4 titulartasun publikoko ikastetxe batean matrikulatuta dagoela eta ikasleen gainerako % 43,6k, berriz, itunpeko titulartasunekoetan ikasten dutela.

1. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek eskolak hartzen dituzten ikastetxeen titulartasuna. Ehunekoak. 2015




2. grafikoak erakusten du azterlan honetan parte hartu duten ikasle neska eta mutil guztien % 52,6 Batxilergoko 2. urteko Zientzien modalitatea ikasten ari zirela, % 40,6 Humanitateen modalitatea eta geratzen den % 6,8, berriz, Arteen modalitatea.


Neskek, Zientzien modalitatea gehiengoa izanik ere (% 48,7) Batxilergoko 2. urteko mutilek baino proportzio handiagoan aukeratzen dute Humanitateen modalitatea. Arteen modalitatean ere neskak gehiago dira (% 8,4) modalitate hori egiten duten mutilek baino (% 4,9).

Azkenik, ikerketa honetan parte hartu duten Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutil guztien % 78,4 D ereduari ziren ikasten, eta % 21,6 ziren A ereduari ziren ikasleak (3. grafikoak).

2. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleek, neska eta mutil, egindako Batxilergoko modalitatea. Ehunekoak. 2015




3. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen hizkuntza-ereduen araberako banaketa. Ehunekoak. 2015



Gure autonomia erkidegoko Batxilergoko 2. urteko ikasleen, neska eta mutil, bizikidetz-unitatearen edo bizilekutzat duen familia-esparruaren argazkia egiteak zentzu guztia du ikerlan honetan; horixe baita, hain zuzen ere, esandako kolektibo horren ibilbide biografi-koaren eta sozializazio-prozesuaren gizarte-testuinguru printzipaletako bat. Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen "sozializatorako familia-testuinguru" horren ezagutzara orientatu zen galdeketako galdera sorta bat.

4. grafikoak 2014/15eko ikasturtean Euskadiko Autonomia Erkidegoan Batxilergoko 2. urtean zeuden ikasle neska eta mutilen bizikidetz-unitateen multzokatze bat aurkezten du. Multzokatze hori EUSTATEk –Euskal Estatistika Erakundea– ezarritako tipologian oinarritzen da.¹ Bizikidetz-unitate ugariena, dudarik gabe, "familia nuklearra seme-alabekin" deitua da: ia hirutatik bi (% 67,4). Haren atzetik datoz beste bizikidetz-ereduak, "hedatua" (% 18,3) eta "guraso bakarrekoa" (% 6,3).

4. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen bizikidetz-unitateen tipologiak. Ehunekoak. 2015



Eta azkenik, zilegi iruditzen zaigu beste bi motatako bizikidetz-unitateak ere integratzea (adierazitako EUSTATEn tipologian sartzen ez diren arren), ikasleen kolektibo osoaren % 6 osatzen baitute: amarekin eta haren bikotekidearekin bizi direnak (% 2,9) edota aitarekin eta haren bikotekidearekin bizi direnak (% 3,1).


¹ EUSTATEk –Euskal Estatistika Erakundea– honako definizio hauek eman ditu "familia motei" buruz: "Nuklearra seme-alabekin": bikote ezkondu batek seme-alaba ezkongabeekin osatutako familia-gunea; "Hedatua": edozein motatako familia-gunea zeinarekin ahaide bat edo gehiago bizi diren; eta "Guraso bakarrekoa": amak edo aitak –bakarrik– eta seme-alaba ezkongabeek osatutako familia-gunea.

5. grafikoak Euskadiko AEn bizi diren eta kontsulta egin zaien Batxilergoko 2. urteko ikasleen kolektiboaren ama eta aiten ikasketen maila azaltzen du. Guraso guztien % 40,6k unibertsitateko ikasketak dituzte eta amek lortu dituzte amaitutako ikasketa altuenak: % 43,4; aiten kasuan, berriz, % 37,7 dira unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenak.

Lanbide Heziketa da ikasleen ama eta aiten prestakuntzako bigarren kualifikazio lerroa eta esan behar da ez dagoela alde handirik batzuen eta besteek artean: LH duten amak % 24,2 dira eta aitak % 25.

Batxilergoko 2. urtean semeak eta alabak dituzten gurasoak, gutxi gorabehera, 1965-1975 artean jaiotako pertsonak dira. Belaunaldi hori erdi mailako eta, bereziki, goi-mailako eskola-tzearen protagonista izan zen gure testuinguruan, joan zen mendeko laurogeiko hamarraldiaren bigarren erditik aurrera. Aurrerago adieraziko den bezala, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko egungo ikasleen gurasoen unibertsitate-profil horrek zuzeneko eragina du goi-mailako prestakuntza-ibilbiderako balioen eta lehentasunen egiturari dagokionez.

5. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen ama eta aiten ikasketa mailak. Ehunekoak. 2015.



Informazio garrantzitsua ematen duen beste eremu bat landa lana egin zen momentuan (2015eko otsaila eta martxoa) gurasoek zuten lan egoera (edo jarduerarekiko erlazioa) ezagutzea da. Azterlan honen xede diren ikasle neska eta mutilen adinarekin bat etorritz, ikusi dugu, lan egoerari dagokionez, guraso "aktiboak" (guztizkoaren % 89,2) eta "okupa-tuak" (guztizkoaren % 84,7) direla nagusi, 21. taulako datuei kasu egitera.

21. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen gurasoen egungo lan egoera. Ehunekoak. 2015

Gurasoen egungo lan-egoera	Amak	Aitak	Guztira
AKTIBOAK			
Lanean	78,8	90,8	84,7
Lanik gabe	4,5	4,4	4,5
EZ-AKTIBOAK			
Etxeko lanetan	13,5	0,6	7,1
Gaixorik	0,6	0,2	0,4
Ez du lanik egiten	1,2	0,8	1,0
Erretiratua	1,2	3,2	2,2
Guztira	100	100	100

**EGUNGO INTERESA
POLITIKAREKIKO ETA
PARTE-HARTZE
ESPERIENTZIEKIKO**

4.4

22. taulatik nabarmentzen den lehen egitate da oso interes apala dagoela gaur egun politikarekiko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen aldetik: 6,2, mutilen kasuan, eta apur bat txikiagoa (5,9) neskenean.

Interesgarria da egiaztatzea zer erlazio dagoen gizarte zibileko sareetan parte-hartze handiagoa izatearen –guztizkoaren % 24,1– eta belaunaldi honen politikarekiko interes maila handiagoaren artean.

22. TAULA. Politikarekiko interesa ikasleek, neska eta mutil, elkarte, kolektibo edo GKEren batean parte hartzearen arabera. Batez bestekoak. 2015

Elkarte, kolektibo, GKE, eta abarretan parte hartzea	Nesak	Mutilak	Guztira
Bai parte-hartzeari (%)	27,1	20,5	24,1
Bai	6,5	7,6	7,0
Ez	5,3	5,6	5,5
Politikarekiko interesa	5,9	6,6	6,2

**EGUNGO INTERESA
EMAKUMEEN
MUGIMENDU/
ELKARTEEKIKO
ETA PARTE-HARTZE
ESPERIENTZIEKIKO**

4.5

Komeni da maila are zehatzago batera jaitea Euskadiko AEn bizi diren Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen parte-hartze mailan, kasu honetan, emakumeen mugimenduei dagokienean.

23. taulan ikus daiteke Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen mugimendu/elkarteei buruz duten interesa dezentez handiagoa dela politikarekiko interesa baino (% 5,8) hala ikasle nesken kasuan, nola mutilenean.

Interes hori areagotu egiten da emakumeen errebindikazioekin lotura duten talde, mugimendu edo elkarteetan parte hartzeko esperientzia duenean edo eduki denean.

Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen kolektibo osoaren % 73,7k adierazi du ez duela parte hartzen emakumeen errebindikazioekin lotura duten elkarte edo mugimenduetan; aldiz, batez beste, 8ko puntuazioa eman diote berorien garrantziari. Gehienek halakoetan parte hartzen ez duten arren, irizten diote lan garrantzitsua egiten dutela.

23. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleek, neska eta mutil, mugimendu/elkarteetan duten parte-hartzea eta nolako garrantzia ematen zaien emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko egin duten ekarpenaren arabera. Ehunekoak eta batez bestekoa. 2015

Parte-hartzea	Neskak	Mutilak	Guztira
Ez, inoiz ez	70,7	77,3	73,7
Lehen bai, orain ez era aktiboan	11,5	8,1	10,0
Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	7,6	5,2	6,5
Ed/Ede	2,7	4,2	3,4
Guztira	100	100	100
Batez besteko garrantzia	8,3	7,5	8,0

HIRUGARREN ZATIA

**NOLA IKUSTEN DUTE
BEREN BURUA?**

DITUZTEN BALIOAK

5.


Txostenaren hirugarren parte honek Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleek, neska eta mutil, beren buruak nola ikusten dituzten erakutsi nahi du. Lehenik, "erretratu axiologiko" moduko bat eskainiko dugu, gehien axola zaienari buruz dituzten iritzietatik abiatuta, eta gero hierarkia horretan integratutako bi baliotan zentratutako gara: norberaren autonomian –erabakiak hartzerakoan–, eta emakumeen eta gizonen berdintasunean.

ERRETRATU AXIOLOGIKOA

5.1

Azterlan honen motibazio nagusietako bat Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari zer nolako garrantzia ematen dioten ezagutzea da. Baina balio horren garrantzia beste balio batzuen testuinguruan ulertu behar da. 6. grafikoak erakusten ditu balio honi emandako garrantziaren emaitzak, beste bederatzia balioen emaitzekin batera, batik bat 1998an jaiotako belaunaldi honen balio-hierarkia moduko bat eratuz. Data horrek erakusten digu XXI. mende honetan sozializatutako belaunaldia dela.

6. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek ondorengo alderdi hauei ematen dieten garrantzia. Balioen hierarkia. 0-10 eskala, 2015



Interesatzen zaiguna berehala egin beharko duten goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen hautespenean balio horiek izan dezaketen eragina edo pisua haztatzea bada ere, egia da erretratu axiologiko horrek asko esaten digula haien egungo identitateaz, haien etorkizuneko ibilbideaz eta baita, zergatik ez esan, iraganekoaz ere, zeren belaunaldi horren sozializazio-lanean aritu direnen eta ari direnen agenteei ere arreta jarri baitiegu.

Existitzen den interpretazio aniztasunetik, azpimarratu beharreko egitate garrantzitsuenetako bat da bai neskek eta bai mutilak bat datozela emakumeen aurkako indarkeria desagertzea identifikatzen dutenean garrantzi handiena ematen dioten gertakari bezala. Belaunaldi honetan, emakumeen kontrako indarkeria egoerak lehenean mantentzea egungo neska eta mutilek garrantzi handienekotzat dauzkaten beste eta hurrengo balio guztien kontrako adierazpena litzateke. Horregatik du horrelako protagonismoa haren desagertzea hain orokorki eskatzeak.

Horrez gainera, badira beste "konbergentzia elementu" batzuk ere belaunaldi honek hainbat baliori edo bizitzako zenbait alderdiri ematen dien garrantzi mailari dagokionez. Horien artean, dudarik gabe, beren erabakiak hartzerakoan norberaren autonomiari ematen diotena, zeina balio nagusi eta erabakigarri gisa agertzen baita, 9,3ko batez bestekoarekin. Balio horri berariazko trataera eskainiko diogu hurrengo kapituluan.

Oro har, lehen begiratuan, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen balioen hierarkia ez da oso desberdina. Norberaren autonomiak ez ezik, justiziaren (9,1), emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren (9,1), erantzukizunaren (8,6), elkartasunaren (8,4), kultur eta sexu dibertsitatearekiko errespetuaren (8,0), idealismoaren (7,8), eta pragmatismoaren (7,8) balioek ere batez besteko altuak lortu dituzte, salbuespen batekin: garrantzi erlatibo txikiagoa eskaini diote biek objektuak edukitzeari (kontsumismoa): 5,6.

ERAGIN-AGENTEAK


5.2

Ikerketa honen helburu printzipaletakoa ez den arren, galdeketaren diseinuan interesgarria iruditu zitzaigun Euskadiko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen balio-hierarkiaren eraikuntzan sozializazio-agenteei izan duten pisua eta garrantzia identifikatzea.

Ez dago inolako zalantzarik belaunaldi honen sozializazio-agente gisa familia-inguruneak jokatzeko duen paper protagonistari buruz. 7. grafikoak erakusten duenez, egia da bigarren agentearen parekoen taldea litzatekeela (6,8), generoaren arabera aldeekin, aurrerago adieraziko den bezala, baina belaunaldi honek garbi dauka familia-ingurunearen eragina dela garrantzizkoena beren balio-egituraren eraikuntzan (8,1).

Oso urrun geratzen dira beste albo-agentek edo eragin erlatiboagoak duten batzuk, hala nola hezkuntza-ingurunea (5,79), komunikabideak (5,21), iritzi publikoa (4,79), liburuak (4,65), web ingurunea eta gizarte-sareak (4,49), eta, azkenik, nabarmena da, gurea bezalako gizarte sekularizatu baten testuinguruan, esparru erlijiosoaren hondar-pisua (1,51). Bide batez esanda, emaitza horiek kontuan hartzekoak izan daitezke zenbait forotan piztutako asaldurak zertxobait baretzeko, berorietan garrantzi ikaragarria ematen baitiote gizarte-sareek eta internetek "gure gazterian" duten eraginari.

7. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen balioetan eragina duten agenteak. 0-10 eskala, 2015



Badira, hala ere, bi desberdintasun garrantzizko, gutxienez, sozializazio-agenteen eragin horretan, generoaren arabera. Alde batetik, nesken artean, lagunek –neska edo mutil– haien balioetan duten eraginak dezentez protagonismo handiagoa du agente horrek mutilen artean duen pisuak baino (7,03 nesketan, eta 6,44 mutiletan). Bestalde, nabarmena da norberaren iritziak (“neronek”) duen protagonismoa mutilen artean (5,20), baina ez nesken artean (3,10). Mutilentzat “neronek” laugarren eragin-faktorea da, eskola-ingurunearen eraginetik oso hurbil.

Ildo horretan, interesgarria da azpimarratzea “neronek” deitu dugun kategoria hori berez sortu zela (irekian), galdeketa diseinatzerakoan. Kategoria hori galdeketa galdera sortan lehendik sartuta egon izan balitz, emaitzak handiagoak izango ziratekeen bi kasuetan, inolako zalantzarik gabe.

Edonola ere, eta iritzi hori nola eraiki den ezagutzeko beharrezkoak diren adierazleak eskura ez ditugun arren, ondoriozta daiteke, Euskadiko Batxilergoko 2. urteko mutilen artean behintzat, norberaren iritziaren eragina garrantzi handiagoko faktorea dela ikasgelako eta belaunaldiko kide dituzten neskekin alderatuta, azken horiek adierazten baitute eragin handiagoa dutela haiengan familiakoen iritziak (8,4), eta parekoen taldearenak (7,0). Itxuraz, belaunaldi honetako mutilek autonomia handiagoren irudia transmititzen dute beren erabakiak kudeatzeko orduan, eta, agian, kasu gutxiago egiten diote beste pertsona batzuen iritziari, belaunaldi bereko kide dituzten nesken kasuan baino. Ikusiko dugu zer puntutaraino finkatzen den egitate hori txosten honen ondorengo ataletan.

NORBERAREN AUTONOMIA: BALIO NAGUSIA

6.

Lehen argazki axiologiko honen ondoren, non Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek beren bizitzan garrantzi handiena ematen dieten balioak, irizpideak edo alderdiak islatu baitira, bai-eta haiengan eragin handiena duten agenteak ere, barnera gaitzke analisi sakonagoak egitera kolektibo horretatik gehien interesatzen zaizkigun esparruetako bitan: zer nolako norberaren autonomia maila hautematen duten beren erabakiak hartzeko orduan (horien artean, goi-mailako prestakuntza-ibilbidea aukeratzea), eta zer iritzi duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz.

Aurreko kapituluan adierazi dugu beren erabakiak hartzerakoan norberaren autonomia izatea dela belaunaldi honen balio printzipaletako bat: 9,5, batez beste, nesken kasuan, 9,1 mutilenean, eta 9,3 guztiak multzoan hartuta. Jarraian, norberaren autonomiaren balio hori eguneroko bizitzako dimentsio zehatzetan nola gauzatzen edo islatzen den ikusi eta aztertu nahi dugu.

Belaunaldi horretako gehientzat, beren erabakiak hartzerakoan norberaren autonomia izatea genero-dimentsiotik harago doan zerbait da; hori baino gehiago eskubide bezala hautematen dute, eta nolabait esanda, pertsonari atxikita dagoen balio bat bezala.

DITUZTEN ESPERIENTZIAK EGUNEROKO ERABAKIETAN

6.1


Behin belaunaldi honek garbi utzi ondoren norberaren autonomia pertsonari atxikita doan baliotzat daukala, interesgarria da ideien mundu horretatik maila praktikoago batera jaitea, kasu honetan, nola hautematen duten beren autonomia maila Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska eta mutilek beren eguneroko bizitzako sei alderditan.

Aurreko azterlan batean islatu zen bezala (Emakunde, 2013:55), arau orokor gisa, ez zaio inori gustatzen autokritikoezia izatea bere biografia kudeatzen den moduari buruz. Bistan dago pertzepzioetan oinarritutako emaitzekin ari garela lanean, eta norberak ezartzen dituela bere neurriak eta itxaropenak betetzeko dituen maila propioak.

Edozein moduz ere, emaitzek erakusten dute, hala nesken nola mutilen kasuan, norberaren autonomia maila handia hautematen dutela aipatutako eguneroko bizitza pertsonaleko sei alderdietan, izan ere, erantzun elementia kontzentratu baita "bai" eta "zerbaiten baitan" kategorietan, eta, aldiz, ikaragarri gutxi "ez" kategorian (gutzizkoaren % 2,3, nesken kasuan eta % 3,9, mutilenean).

8A grafikoko alderdi azpimarragarrienetako bat da Batxilergoko 2. urteko neskek beren erabakiak hartzerakoan norberaren autonomiaz duten pertzepzioan, emaitza altuagoak ematen dituztela ikasgelako eta belaunaldiko kide dituzten mutilek baino, planteatutako esparru guztietan, diruaren kudeaketa salbuetsita (% 62,8 neskek eta % 74,8 mutilek).

8A. GRAFIKOA. Norberari buruzko iritzia pertsona burujabe gisa, eguneroko praktikan erabakiak hartzerakoan. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Baiezko erantzunak. Ehunekoak. 2015




Azken kasu horretan –diruaren kudeaketa– neskek hautematen duten autonomia maila txikiago hori “zerbaiten baitan” erantzunaren kategorian kontzentratzen da; horrek esan nahi du, esparru horretan, negoziazio maila handiagoa dutela neskek beren agente hornitzaileekin –ama edo aita, kasu gehienetan–, mutilek dutena baino (8B).

Aitzitik, belaunaldi honetako 17 urteko neska eta mutilek, generoaren arabera, norberaren autonomia inplikaturako beste agente batzuekin negoziatzeko eguneroko estrategiak izan daitezkeen ikuspegi honekin aurrera eginez, adiskide berriak egiteko ahalmenean eta norberaren iritzia adierazteko orduan alde aipagarriarik antzematen ez bada ere, norberaren autonomia maila handiagoa islatzen da nesken artean, Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean prestakuntza-ibilbidea hautatzerakoan (% 87,6 baiezko erantzun eta mutilek % 79,2), aurrerago adieraziko diren emaitzen aurrerakin gisa.

Eta erabakiak hartzerakoan belaunaldi honetako emakumeek norberaren autonomia handiagoa duten pertzepzio hori are garbiago ikusten da bikote harremanen esparruan (% 78,1 baiezko erantzun vs % 64,5, mutilen kasuan), eta are ehuneko txikiagoekin “zerbaiten baitan” kategorian (% 18,5 vs % 26,6, hurrenez hurren).

8B. GRAFIKOA. Norberari buruzko iritzia pertsona burujabe gisa, eguneroko praktiketan erabakiak hartzerakoan. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. "Zerbaiten baitan" erantzunak. Ehunekoak. 2015



NORBERAREN AUTONOMIA GENEROAZ HARAGOKO ESKUBIDE BEZALA


6.2

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska eta mutilen norberaren autonomiari buruzko pertzepzioaren inguruko aurreko emaitza horiek ez dira ezagunak esandako neska eta mutil horientzat. Horregatik egokia izan daiteke txosten honen emaitzen hirugarren mailako analisi modura, bai neskek eta bai mutilek beste generoaren –eta beste belaunaldi batzuen– autonomiari buruz dituzten pertzepzioak aintzat hartzea, zeren eta pertsona batek eduki dezake norberaren autonomia handiagoaren edo txikiagoaren sentsazioa bere erabakiak hartzerakoan, baina pentsa dezake, orobat, beste kolektibo batzuek ahalduntze maila indibidual handiagoa edo txikiagoa dutela, berarenarekin alderatuta.


9. eta 10. grafikoek ez dute zalantzarako tarterik uzten gehiengoak atal honen tituluan adierazitakoari buruz duen iritzia ildoaren inguruan: guztiz zeharkakoa jotzen dute. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzian, hala nesken nola mutilen kasuan, norberaren autonomiaren balioa ez dago lotuta generoari, baizik eta pertsonari atxikitako balio bat da. Bai neskek eta bai mutilek uste dute haien generoak ez duela desberdintasunik inplikatzen norberaren autonomia mailari dagokionez. Eta emaitza horrek, printzipioz, belaunaldi barruan hautemandako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun irudia ematen du, oso esanguratsua, dudarik gabe, norberaren ahalduntze maila honetan.

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleentzat, hala nesken nola mutilen kasuan, norberaren autonomiaren balioak zeharkako izaera izateaz gainera, inolako alderik gabekoa emakumeen eta gizonen artean, zentzu zabalean edo generikoan ulertuta, era berean, generoaren eraginik gabeko eskubide gisa hautematen da XXI. mende honen testuinguruan sozializatutako emakume eta gizonen belaunaldiaren barruan.

9. GRAFIKOA. "Erabakiak hartzeko autonomia handiagoa edo txikiagoa izatea ez dago emakume edo gizon izatearen baitan". Euskadiko AEko Baxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015



10. GRAFIKOA. Norberaren autonomiaren maila, eguneroko bizitzako erabakiak hartzerakoan, beren belaualdiko neskekin edo mutilekin alderatuta. Ehunekoak. 2015




**...BAINA
ESKUBIDEAREN
ITZULPENA EZ DA
HUTSEAN EGITEN:
BURUJABETASUN
EKONOMIKOA**

6.3

Hala ere, diskurtsotik harago (edo honantzago), neskek eta mutilak kapaz dira beren "zalan-tzak" adierazteko autonomiaren balioaren izaera transzendente horri buruz, erantzunak gure eguneroko praktikako "gertaera" zehatzagoetara orientatzen direnean. 11. grafikoko emaitzei kasu egitera, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek ez daukate oso argi zer puntutaraino dagoen lotuta ohiko enplegu egoera batek ahalbidetzen duen independentzia ekonomikoa norberaren autonomia zentzu zabal batean konkistatzearekin edo haren aplikazio eraginkorrarekin.

11. GRAFIKOA. "Enplegua duten emakumeak burujabeagoak dira etxean bakarrik lan egiten dutenen aldean": Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015




Kasu honetan, gertaera hori espermentatu ez izanak baldintzatzen du erantzuna. Baina, era berean, txosten honen ondorengo ataletan garatuko den analisi eta interpretazio ildo baten aurrerapena egiten da, ahalduzaren beste maila ez indibidual batzuetan, kasu honetan lanaren esparruan, generoa oraindik ere emakumeen autonomiaren faktore mugatzaile gisa hautematen den neurrian. Eta zentzu horretan interpretatu behar litzatekeela uste dugu aurreko 10. grafikoan neskek adierazitako % 6,9 hori, izan ere, gehiengoaren banaketaren barruan sartzen diren arren, autonomia gutxiago dutela irizten baitiote, beren adineko mutilek baino.

Eta gero zer gerta ere, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek, beren ibilbide biografikoaren momentu honetan, oso garbi daukate independentzia eko-

nomikoa dela norberaren autonomia praktikan jartzeko bidea. Horrexegatik sartzen dute (12. grafikoa) beren lehentasun printzipalen artean, apur bat gehiago neskentzat (% 77,8), mutilentzat baino (% 74,3).

12. GRAFIKOA. Independentzia ekonomiko lehentasun gisa Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilentzat. "Ados eta Erabat ados" erantzunen batuketak. Ehunekoak. 2015




**PERTSONA
BURUJABEAGOTZAT
DAUZKATE BEREN
BURUAK AURREKO
BELAUNALDIK BAINO**

6.4


Hurrengo bi grafikoek berretsi egiten dute norberaren autonomiari buruzko belaunaldi barruko iritzi zeharkako hori Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek erabakiak hartzeko orduan. Hala, bai neskek eta bai mutilak bat datoz berriro ere beren erabakiak hartzeko orduan autonomia maila handiagoko pertsona gisa identifikatzen direnean, beren aurreko belaunaldiekin alderatuta, bai gurasoenarekin eta bai aiton-amonenarekin.

Eta, generoari dagokion gizarte-aldaketa bat nabarmentzeko, 13. eta 14. grafikoetan ikusten da neskek direla beren eguneroko erabakiak hartzerakoan norberaren autonomiaren pertzepzio maila handiena erakusten dutenak, beren generoko erreferentziekiko, kasu honetan amak (% 59,3) eta amonak (% 71,3).

13. GRAFIKOA. Norberaren autonomiaren maila, eguneroko bizitzako erabakiak hartzerakoan, beren ama/aitekin alderatuta. Erantzuna "Bai, burujabetza handiagoa, dudarik gabe". Ehunekoak. 2015



14. GRAFIKOA. Norberaren autonomiaren maila, eguneroko bizitzako erabakiak hartzerakoan, beren amona eta aitonekin alderatuta. "Bai, burujabetza handiagoa, dudarik gabe". Ehunekoak. 2015



Bigarren egitatea da, bai neskek eta bai mutilek diotela, beren guraso eta aiton-amonekiko norberaren autonomia mailak handitu badituzte ere, gizonzkoen belaunaldi hauek beren adineko emakumezkoek baino norberaren autonomia maila handiagoetatik abiatu zirela.

Alegia, 1998 inguruan jaiotako Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska eta mutilen belaunaldi honetan, aldaketa prozesu bikoitza gertatu da norberaren autonomiari dagokionez: batetik, belaunaldi barruan, generoak parekatu egin dira, ez baitute nesken eta mutilen artean alderik nabaritzen esparru horretan, generoaren arabera; bestetik, belaunaldi batzuen eta besteen artean, konkista bat egon da, handitu egin da ahalduntze indibiduala, batez ere aurreko emakumeekin alderatzen direnean, beren amekin eta amonekin.

Eta ikusiko dugu aurreratze edo hobetze ikuspegi hori bera islatzen dela une honetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoeraren alorrean ere.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA: NESKAK, BIZIPENETIK; MUTILAK, URRUNAGOTIK

7.


Kapitulu honek Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioari buruz eurek dituzten bizipenen inguruko iritziak erakusten dira. Horregatik, genero bakoitzak egozten dion garrantzi maila planteatzen dugu, bai-eta belaunaldi barruko kontzientziazio maila ere.

BALIO GARRANTZITSUA, EMAKUMEENTZAT BATIK BAT

7.1

Hasteko, partekatzen dituzten puntuak nabarmentzen baditugu, 15. grafikoak "belaunaldi barruko adostasun" eredu hori islatuko luke. Emakumeen eta gizonen berdintasunari ematen zaion garrantzia –oro har– oso handia bi kasuetan (handia eta dezentekoa kategoriak).


15. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ematen dioten garrantzia. Ehunekoak. 2015



Hala ere, grafikoak bistaratzen du zazpi puntuko aldea dagoela nesken alde (% 91,0) –mutirik % 84,1ean geratzen dira– eta garrantzi “handiaren” kategoria ere neska gehiagok ematen diote. Eta generoaren arabera “ñabardura” horiek are gehiago markatzen dira garrantzi generiko edo diskurtsiboetatik –ez hain lotesleak, agian– balioak “gauzatzera” eta eguneroko jarduneko eta ibilbide biografikoetako “bizipenetara” igarotzen garenean, generoaren arabera. Hala, emakumeen eta gizonen berdintasun balioari egotzitako garrantziaz belaunaldi barruan jasotako konbergentzia-puntuetatik dibergentzia-puntu esanguratsuetara pasatzen da.

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen balioen hierarkia jasotzen duen grafikora berriro etorrira, ohartuko gara belaunaldien marran ikusten den konbergentzia gorabehera, alde eta “ñabardura” esanguratsuak daudela, generoaren arabera (belaunaldi beraren barruan). Adibidez, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko 17 urteko neska ikasleen iritzian erabakiak hartzeko orduan autonomia izateak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren garrantzi maila berdina duen bitartean (9,5), parekatze hori ez da gertatzen haien adin bereko mutilen artean (8,6). Izatez, ezarritako hamar elementuko sorta osotik, horixe da alde erlatibo handiena islatzen duena nesken eta mutilen artean (0,8).

16. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek on-dorengo alderdi hauei ematen dieten garrantzia. Balioen hierarkia. 0-10 eskala, 2015



Horrela, txosten honetan behin eta berriro agertzen den adierazleetako bat bistaratzen zaigu: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari garrantzi handiagoa ematen diotela neskek mutilek baino. Belaunaldi honetan, emakumeen eta gizonen berdintasun balioak bizipen maila desberdina hartzen du genero bateko eta besteko pertzepzioaren arabera. Batxilergoko 2. urteko neskentzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak erabakiak hartzeko orduan autonomia izateak duen garrantzi maila bera du, bereizi ezineko tandem bat balitz bezala. Haien ikaskide mutilentzat, aldiz, posible da norberaren autonomia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bereiztea, ez baita tandem modura hautematen, baizik eta bi ibilgailu independente bailiran, lehen balioak –autonomiak– norberari eragiten dio, baina bigarrena –emakumeen eta gizonen berdintasuna– urrunxeagotik ikusten dute.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna garrantzi handiko baliotzat dauka neska eta mutilen belaunaldi honek. Nolabait esanda, jakintzat ematen den balio bat da, beren soziazio-testuinguruaren parte izan den neurrian. Hala ere, emaitzetatik ondoriozta daiteke mutilentzat balio hori bizipenean zertxobait urrunago geratzen zaien alderdi bat dela, iritzia emateko zerbait, beste gai bat; neskentzat, aldiz, balio horrek beste inplikazio bat du beren eguneroko bizipenetan eta ibilbide biografikoan, txosten honen hemendik aurrerako hainbat ataletan erakutsiz joango garen bezala.

Azken batean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko inplikazio mailan badago aldea generoaren arabera: neskek bizipenetik inplikatzen dira, eta mutilak urrunagotik.


17. grafikoak egiaztatzen du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko kontzientziario maila, batez ere, belaunaldi honetako nesketan sostengatzen dela (% 72,9). Eta berdintasunaren arloko kontzientziario maila horretako nesken protagonismoa belaunaldi bereko mutilek ere partekatzen dute (% 63,1).

Beste interpretazio batzuen artean, 17 urteko neska eta mutilen belaunaldi honetan ere iritzi sozial edo kolektibo berbera mantentzen da, alegia, emakumezkoen ardura dela, egiaz, genero berdintasunaren arloko kontzientziarioa, emakumeak direla balio horren protagonista nagusiak eta azken gerizpeak.

Interpreta daiteke, bestalde, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen belaunaldian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak, gaur egun, garrantzi handia hartu duela ikuspegi "formal" edo "diskurtsibo" batetik. Maila horretan belaunaldi barruko adostasun zabal bat dago, eta hala, nolabait esanda, jakintzat ematen den balio bat bihurtu da, pieza bat gehiago duela 17 urte jaiotako neska eta mutilen belaunaldi honen nortasun pertsonal eta kolektiboaren eraikuntza "normalizatuaren" puzzlearen barruan.

Baina balio hori eguneroko praktika sozialetan gauzatu behar denean, neskek dira ohartzen direnak eta "bizi" dutenak emakumeen eta gizonen berdintasuna ez dela diskurtso soil bat, aldiz, ondorio argiak eta zehatzak dituela emakume gisa duten oraingo eta etorkizuneko bizimoduan. Eta "genero (femeninoko) bizipen metatze" horretan eurenak ere sartzen dira, zuzenean esperimintatuak, baina baita, haien adina kontuan harturik, iraganeko eta orainaldiko testuinguruetan beste emakume batzuek bizitako edo transmititutako esperientziak ere.


17. GRAFIKOA. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko belaunaldi barruko kontzientziario maila, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. Ehunekoak. 2015




Ondorengo grafiko hauek azpimarratzen dute planteamendu hori. Ideien mailan mantentzen bagara, hau da, izan behar duenaren mailan, iritziak paretsukoak dira berriro arlo honetan kontzientziazio maila igotzea beharrezkoa dela irizten diotenean (18. grafikoa): % 83,3 ikasle nesken kasuan, eta % 76,1, mutilen kasuan.

Hala ere (19. grafikoa), eguneroko kezken terrenora jaisten garenean, pertsona baten erabakietan eragina duten –hainbat mailatakoa izan daiteke eragin hori– eguneroko auzietara, alegia, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urtean dauden nesken % 80,8k aitortu dutenez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna une honetan kezkatzen dituen gaia da. Mutilen kasuan, berriz, ia bi heren kezkatzen ditu (% 64,6), hau da, 16,2 puntuko aldea dago. Eta ia erantzun berberak errepikatzen dira –baita nesken eta mutilen arteko aldea ere, kasu honetan 16,6 puntukoa– emakumeen eta gizonen arteko erlazioak eraldatzeak haientzat zer nolako garrantzia duen galdetzen zaienean (mutilek % 68,5, eta neskek % 85,1).

18. GRAFIKOA. "Bai neskek eta bai mutilek are kontzientzia handiagoa izan behar genuke emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan" Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015



19. GRAFIKOA. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren garrantzia eta emakumeen eta gizonen arteko erlazioen eredua aldatzearena, une honetan, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilentzat. Baiezko erantzunak. Ehunekoak. 2015



Emakumeen eta gizonen berdintasunaren garrantziari buruzko erantzunetan, *generoaren araberako izaera edo diferentziaren zama* islatzea da gure intentzioa. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska ikasleen erantzunetan, diskurtsoari praktika eta haien genero izaera erasten zaizkio. Belaunaldi berekoak eta ikasgelan kide dituzten ikasle mutilen erantzunetan, berriz, gizarteak bere egindako diskurtsoaren pisua handiagoa da bizitako praktikarena baino. Haien genero izaerak (gizonezkoak dira) auzi horiek urrunagotik begies-tera eramaten ditu, inplikazio maila txikiagoz, alegia.

LAUGARREN ZATIA

**NOLA IKUSTEN DUTE
EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNAREN GAURKO
EGOERA?**

AURRERAPENAK PERTSONIFIKATZEA; OZTOPOAK IDENTIFIKATZEA

8.

Aurreko kapituluan ez bezala, oraingoan 2015ean Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urtea egiten ari ziren ikasle neska eta mutilen kolektiboak emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoera orokorra *nola ikusten duten* ezagutzea interesatzen zaigu, lehen eskutik. Kontua, beraz, gaur egun bizi diren gizarte-testuinguru edo -agertokiaren pertzepzioari buruz neska eta mutil horiek duten irudia islatzea litzateke.


PERTZEPZIO OROKORRA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ALDERAKETA

8.1

20. grafikoak azterlan honen beste adierazle garrantzitsuenetako baten berri ematen du, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzia erakusten baititu gizaratean, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egungo lorpen mailari buruz, bai haien gurasoen belaunaldian eta bai ikasle horien beraien belaunaldiaren barruan.

Beti kontuan edukita emaitzek baieztapen bakoitzari buruzko adostasun maila erakusten dutela, nabarmentzen den lehen egitatea da 1997an jaiotako pertsona hauen belaunaldiaren iritzian berdintasunaren lorpena gure gizaratean oraindik lortzetik urrun dagoen prozesu bat dela, izan ere, % 24,3 besterik ez baitator bat egindako baieztapen horrekin.

20. GRAFIKOA. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egungo egoera Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. "Ados eta Erabat ados" erantzunak. Ehunekoak. 2015



Behin identifikaturik dagoenean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lorpenera daraman bidearen etapa, testuingururik zabalenean –prozesu horretan azken helmuga bat dagoen metafora (jada higatua) erabilia–, adierazle argigarria da dagoen pertzepzioa: belaunaldi honek bide luzeagoa daukala eginda gizartearen egoera orokorarekin eta beren gurasoen berdintasun egoerarekin alderatuta. Izatez, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutil guztien % 45,5ek irizten diote emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortuta dagoela jada belaunaldiaren barruan, eta ia % 25en iritzian, haien amen eta aiten belaunaldian ere bai.

Belaunaldi barruko iritzi orokor horrek baditu ñabardurak generoaren arabera, argi geratzen baita neskek desadostasun maila handiagoak agertzen dituztela adin bereko mutilek baino, alderaketa esparru guztietan (gizartean, gurasoen belaunaldian, eta belaunaldi barruan). Baina bistan geratzen da, orobat, emakumeen eta gizonen behin-betiko berdintasuna lortzeko oraindik bide luzea dagoela aitortzen duten arren, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko nesken iritzian helmuga hori hurbilago dagoela haien belaunaldian (% 36,8), gizartean oro har (% 17,8) eta haien gurasoen belaunaldian baino (% 18,8).

**EMAKUMEEN
DISKRIMINAZIOAREN
KONTZIENTZIA:
EGUNGO EGOERA
ETA ARRAZIOIAK**

8.2


Ilido horretan, komenigarria da ezagutzera ematea une honetan, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzia gaur egun emakumeen diskriminazio-egoeren inguruan dagoen kontzientziazio mailari buruz.

Belaunaldi honetan, emakumeak jotzen dira emakumeen beraien diskriminazioaren edo berdintasun ezaren kontzientziaren protagonista; gizonezkoen kontzientziazioa, aldiz, urrugo geratzen da, eta, edonola ere, gehiago hautematen da nesken artean (% 66,4), mutilen artean baino (% 74,3), 21. grafikoko emaitzei kasu egitera.


Parte hartu duten ikasle guztien % 13,3k (% 14,9 neskak eta % 10,8 mutilak) uste dute, ordea, emakumeek beraiek ez dutela diskriminazioaren kontzientziarik; aipagarria da hori esplikatzeke matxismoaren pisua (% 32,8), pentsamolde-eredu nagusia bera den neurrian diskriminazioa "naturalizatu" eta "barneratu" egiten baitu, hala kontzientzia hartzea eragotziz (22. grafikoa).

Parte hartu duten ikasleen % 27,5ek (% 20,0 neskak eta % 24,5 mutilak) gizonek emakumeen diskriminazioaren kontzientziarik ez dutela esplikatzeke eman dituzten arrazoen kasuan, aldiz, motiboak hitzez emateko zailtasunekin batera –"ez daki/ez du erantzun" kategorian islatzen da hori– matxismoaren esplikazioak (% 18,5) protagonismoa partekatu beharra dauka gizonezkoek egitate horren aurrean duten interes faltarekin, arazotik urrugo daudelako edo ez dutelako egunero bizi (% 19,4) (23. grafikoa).


21. GRAFIKOA. Emakumeen diskriminazioaren kontzientzia, gaur egun, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. "Baiezko" erantzunak. Ehunekoak. 2015



22. GRAFIKOA. Emakumeen diskriminazioaren kontzientziarik eza emakume beraien aldetik, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. Arrazoiak. Ehunekoak. 2015



23. GRAFIKOA. Emakumeen diskriminazioaren kontzientziarik eza gizonen aldetik, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. Arrazoiak. Ehunekoak. 2015



**EMAKUMEEN
BERDINTASUN
EZAK IRAUTEN DU,
BAINA
AURRERAPENEKIN:
JARRAIKITASUNAREN
ARRAZOIAK**

8.3


24. grafikoak islatzen du, zentzu estuan, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen hiru laurden baino gehixeagoren iritziz (% 77,6) gaur egun, oro har, emakumeak diskriminatuta daudela gure gizartean. Irakurketa horren euskarritzat, ordea, ñabardura oso desberdinak dituzten bi erantzun erantsi behar dira: batetik, gehiengoak, guztizkoaren % 57,1ak, atzera begiratu, irizten dio arindu, moteldu egin direla diskriminazio-egoerak, hau da, "aurrerapena" egon dela; bestetik, % 20,5ak uste du, kontrara, berdintasun ezeko baldintzak lehenean mantentzen direla, alegia, ez dela egon inolako aurrerapenik edo aldaketarik arlo honetan, denboran zehar.

Emakumeen berdintasun baldintzetan, oro har, egon den "aurrerapen" irudia da, edozein moduz ere, egitate azpimarragarriena. Irudi hori sostengatzen dute, gainera, Batxilergoko 2. urteko ikasle neskek gehiengoz (% 66,3), haien ikasgelako kideen gainetik (% 46).

Neskak dira arlo honetan aurrerapen handienak hautematen dituztenak. Baina, era berean, neskak dira diskriminazioaren erabateko desagerpena gutxien hautematen dutenak ere. Generoaren arabera bereizitako "bizipena" litzateke, berriro ere, emaitza hauek interpretatzeko aldagaia: Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilek adierazitako motiboen analisisan, "ez daki/ez du erantzun" kategoriaz gainera, beste iritzi bat nagusitzen da; beren ingurune hurbilenean ez dutela esperimintatzen emakumeen diskriminazio egoerarik.


Gainera, aurrerapena hautemateari buruzko iritzietan generoaren arabera dauden aldeak ez dira nabaritzen emakumeak diskriminatuta daudela dioten erantzunetan (% 19,5 neskek eta % 21,7 mutilek), baizik eta diskriminazio ezaren pertzepzioan (% 9,4 neskek, % 24,5 mutilek; guztizkoaren % 16,3).

24. GRAFIKOA. Emakumeen diskriminazio egoera, gaur egun, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. Ehunekoak. 2015



25. grafikoak erakusten du, gure iritziz, aurrerapen edo emakumeen diskriminazioaren gainbeherako joeraren pertzepzio hori, hain zuzen ere, belaunaldi honek gure gizartean hauteman duena. Oso argigarria da, izan ere, bi generoetan honi buruz dagoen adostasun handia; horregatik, belaunaldi honetan, gehienak ados daude diotenean emakumeek gero eta aukera gehiago dituztela bizitzako eremu guztietan (jendartean, politikan, lan munduan, kulturean, aisialdian, prestakuntzan, etab.) presente egoteko. Eta hemen ere aurrerapenen pertzepzio handiagoa dute neskek (% 87,9).

25. GRAFIKOA. "Emakumeek gero eta aukera gehiago dituzte bizitzako eremu guztietan (jendartean, politikan, lan munduan, kulturaren, aisialdian, prestakuntzan, ...) presente egoteko": Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzia. Ehunekoak. 2015




Emakumeentzako *aukera* gehiago egote horrek, oro har, ez du eragozten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen kolektiboak gure eguneroko bizitzan mantentzen diren emakumeen diskriminazio-egoeren agertokiak identifikatzea eta horretarako arrazoiak adieraztea.


26 eta 27. grafikoek gure azterlanaren xede den kolektiboak galdeketa adierazitako iritzien kategorizazioa islatzen dute, kasu honetan, zein arrazoiengatik dioten Batxilergoko 2. urteko neska eta mutilek, aurrerapenekin (% 57,1) edo aurrerapen gabe (% 20,5), emakumeen diskriminazioa mantendu egiten dela gure gizartean.

Deigarria gertatzen da, berriro ere, "ez daki/ez du erantzun" kategorian emandako erantzun kopuru esanguratsua. Erantzunik ez emate hori, hala nesken nola mutilen kasuan, hiru egitateren ondorio litzateke: lehena, koiuntura izaera hutsekoa, zeren eta, kasu honetan behintzat, batzuetan luze samarra egin zitzaizen galdeketa baten azken-azkenean kokatua baitzegoen galdera. Bigarren egitatea da, adin horietan, iritzi motibatu bat emateko ahalmena oraindik elaborazio-prozesuan dagoela: gauzak modu batera edo bestera hautematen dira, sentitu gehiago egiten dira, arrazoitu baino. Eta hirugarrena litzateke, aurrekoari estu lotuta, eta sakontasun handiagoko interpretazio-hipotesi gisa, agian galdeketa honek, bai genero bat eta bai bestea, beharbada beren eguneroko bizitzako lehen mailako kezken artean ez dauden zenbait gai eta alderdi arrazoiak emanez eta idatziz jartzera obligatzen zituela.

26. GRAFIKOA. BAI existitzen da emakumeen diskriminazioa gaur egun, baina aurrerapenak egin dira. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen arrazoiak. Ehunekoak. 2015



27. GRAFIKOA. BAI existitzen da emakumeen diskriminazioa gaur egun. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen arrazoiak. Ehunekoak. 2015



Argudio ildo horretatik irten gabe, "berdintasun ezaren jarraitutasuna, oro har" (beste espezifikaziorik gabe) kolektibo honek emakumeak gure gizartean diskriminatuta daudela baieztatzea ahalbidetzen duten arrazoiak zehazteko dauzkan zailtasunen adierazlea da. Eta arrazoi horrek, gainera, protagonismoa hartzen du bai emakumeen diskriminazioaren arloan aurrerapenak identifikatzen dituzten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen artean (% 21,2) (26. grafikoa) eta bai, kontrara, aurrerapenik hautematen ez dituztenen artean (% 21,3) (27. grafikoa)

Zehaztasun maila handiagoa lortzen dute beste erantzun batzuek, bereziki, lanaren arloa identifikatzen dutenean emakumeen berdintasun ezeko egoerak gaur egun nabarien gertzen diren agertoki gisa. Horixe da, hain zuzen ere, oztoporik garrantzizkoena diskriminazioa mantentzen dela irizten dion Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen kolektiboarentzat (% 26,2) (27. grafikoa), eta bigarren oztopoa da aurrerapenak –baina ez lanaren eremuan– hautematen dituen kolektiboarentzat (% 17,7) (26. grafikoa).

Aurrerapenekin edo aurrerapen gabe, emakumeak gaur egun gure gizartean diskriminatuta daudela baieztatzen duten Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek argudiatzen duten hirugarren arrazoiak da "matxismoa/sistema patriarkala" oraindik indarrean dagoela (% 13,4 eta % 22,1).

Azkenik, hainbat erantzun ikusi dira, gutxiago izan arren, zehaztasun handiagoa dutenak. "Emakumeen kontrako indarkeria" egoerak existitzea, "etxeko-familiako arduradun nagusi gisa emakumea izendatzea", edota "emakumea sexu-objektu gisa" hartzea, zalantzarik gabe, gizarte-bizitza ulertzeko eta egituratzeko era guztiak blaitzen dituen kultura patriarkal

horren ondorio dira. Bestalde, zenbait agente sozial –emakumeen mugimenduak, kasu-historian zehar, emakumeen berdintasun ezeko hainbat egoera murriztearen protagonista gisa identifikatzeko ahalmenak ere atentzioa eman digu.

**LANEKO AGERTOKIA:
ZAIN DITUZTEN
BERDINTASUN EZEN
KRONIKA AURRERATUA**

8.4


Laneko agertokia identifikatu dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko oztopo nagusietako bat bezala Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek. Egokia iruditzen zaigu puntu honetan sakontzea, ez bakarrik galdeketaren diseinuak horretarako aukera ematen digulako, baizik eta lortutako emaitzek generoen arabera diferentzia esanguratsuak identifikatzen dituztelako belaunaldi beraren barruan, neska eta mutil horiek izango dituzten aukerei eta enplegu-baldintzei buruz duten pertzepzio "aurreratuari" kasu egiten diogunean.

Eta "aurreratua" diogu zeren ez dugu ahaztu behar lanaren arloa, gure azterlanaren xede den kolektiboaren parte handienarentzat, ez dela espermentatu duten agertoki bat, bizi izan duten zerbait, ze gure testuinguruan, 17 urteko neska eta mutilek lan mundukoak ez diren agertokietan zentratzen dituzte beren gizarte-praktikak (hezkuntzan, aisialdian, etxean/familian, ...).

Gure interpretazio-ildoarekin bat etorritik, azterlan honetan, lehenik eta behin, "belaunaldiko konbergentzia" bat identifikatu da berdintasunari buruzko diskurtsoan, lanaren arloan emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioak jokatu beharreko paperari buruz. Baina, lehen esan dugun bezala, balio horren "aurreratutako edo esperotako" praktika zehatzera "jaistean", belaunaldiko konbergentziak generoaren arabera barneko diferentziak bihurtzen dira.


Diskurtsoari dagokion lehen mailatik hasita, hau da, genero berdintasuna "logikoa", "formala" eta "esperotakoa" izatea, 28 eta 29. grafikoetan begien bistan geratzen da nesken eta mutilen iritzien kidetasuna eta zeharkakotasuna lanaren agertokian bi oztopo identifikatu behar dituztenean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Kasu batean, soldata aldeak (% 80,1). Bestean, neurri txikiagoan bada ere, "kristalezko sabaia" deitu izan zaion gertakaria, kasu honetan, emakumeen presentzia hainbat erakundetako erabakitzeke ahalmen handiko lanpostuetan (% 58,5).

28. GRAFIKOA. "Ez da posible emakumeen eta gizonen artean berdintasuna egotea, lanpostu berdinean lan eginda, emakumeek gizonek baino ondotoz gutxiago kobratzen duten bitartean". Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015



Berriro ere, bi erantzunetan ikusten da oztopo horiek identifikatzeko pisu erlatiboa handiagoa dela nesken kasuan. Baina generoaren araberrako ñabardura esanguratsuak ateratzen dira argitara, *diskurtsotik* –kasu honetan, emakumeen eta gizonen berdintasun balioaren garapen-eritmoa eta sedimentazioa oztopatzen duten lan munduko bi gertaera identifikatzearen bitartez– *praktika sozial zehatzera* igarotzean, *kasu honetan, lanaren agertokian*, esan bezala, praktika "aurreratua" den arren.


29. GRAFIKOA. "Lan-baldintza hobekak egongo dira erabakiak hartzeko postuetan emakume gehiago daudenean". Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015




30. grafikoa paradigmaticoa da belaunaldi barruko generoaren araberako arrakala hori adierazteko. Izan beharko lukeenaz ("ez da posible berdintasuna baldin ...") edo etorkizuneko behar batez ("lan-baldintza hobekak egongo dira ...") aritu ordez, orainaldiko pertzepzio batez hitz egiten denean, kasu honetan "lan-baldintza berdina" izateaz, alde ikaragarria nabarmentzen da (21,1 puntukoa, alajaina) nesken eta mutilen artean. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken % 70,8k hautematen dute emakumeek ez dituztela gizonezkoen lan-baldintza berdina; belaunaldiko eta ikasgelako haien kide mutilek berriz, erantzun orekatua eman dute: % 49,7koa.

Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen arteko iritzi eta pertzepzio desberdintasun horiek islatzen dira 31. grafikoa. Nesken % 58k ez dute uste emakumeek gizonezkoen aukera berdina dituztenik beren lanbide-karreraren garapenean, eta horrek esan nahi du 20 puntuko aldea dagoela galdera horretan adin bereko mutilek emandako erantzunetan (% 38,8).

30. GRAFIKOA. "Emakumeek eta gizonek lan-baldintza berdina ditugu." Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015




31. GRAFIKOA. "Emakumeek eta gizonek aukera berdinak dituzte beren lanbide-karreran". Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015



Eta XXI. mende honetan sozializatutako herritarren belaunaldi honek, goi-mailako prestakuntza-ibilbidea amaitu ostean, generoaren arabera, lan munduko baldintza eta aukeretan zain izango dituen berdintasun ezen kronika aurreratu honi amaiera emateko, har dezagun kontuan emakumeek enpleguan dituzten berdintasun ezak moteltzeko tresna gisa meritu eta ahalegin akademikoari egozten zaion ahalmen desberdina. Ikasturte bereko mutilek ez bezala, Batxilergoko 2. urteko neskek ez dute "hartarainoko" federik lan merkatuan sartzeko giltza gisa hezkuntzako tituluek izan dezaketen eraginaz (32. grafiko). Lan merkatuak, orain arte, generoa du, eta ez femeninoa. Tituluek, hortaz, laneko egitura-kulturarekin talka eginez jarraituko lukete. Eta horrek, dudarik gabe, generoaren arabera bereizten diren eraginak ditu goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko erabakia hartzeko orduan.

32. GRAFIKOA. "Emakumeentzat gizonentzat baino zailagoa izango da beti lana aurkitzea, hezkuntzako titulu gehiago eduki ala ez" Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015




**AURRERAPENAK
ETXE-FAMILIA MAILAN
ETA AFEKTIBITATEAN**

8.5

Interpretazio-ildo horretan sakonduz, azterlan honek sostengatzen du Euskadin bizi den 17 urteko pertsonen belaunaldi honetan indarrean dagoela oraindik emakumeen eta gizonen boterearen banaketa asimetriko bat, esparruen arabera. 33. grafikoak plano berean kokatzen ditu Batxilergoko 2. urteko ikasle neskek eta mutilek genero bakoitzak etxe-familiako eta laneko agertokietan duten "erabakitzeko ahalmenari" buruz duten pertzepzioa. Hala, bai neskek eta bai mutilek (botere) orekatuko egoera bat islatzen dute etxe eta familiako harremanen esparruan; aldiz, botere "simetria" hori ez da gertatzen laneko agertokian.

Eta balantze horren alderik adierazgarriena ez da bakarrik neskek argi eta garbi adierazten dutela hori 35,1 puntuko aldearekin –hau da, hamarretik lauren iritzian (% 46,3), lan munduan generoko oreka bat legoko erabakiak hartzerakoan–, baizik eta mutilek ere argi daukatela, zeren eta haietako hirutatik batek (gainerako % 36a, % 100 osatu arte) irizten baitio, zalantzarik gabe, botere desorekak edo berdintasun ezak daudela lanaren esparruan.


33. GRAFIKOA. Laneko agertokia vs. etxe-familiako agertokia: erabakitzeko ahalmenaren oreka emakumeen eta gizonen artean Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. "Erabat ados eta Ados" erantzunak. Ehunekoak. 2015



Balantze honetaz eman daitezkeen iritzien eta interpretazio ugarien artean (botila erdi bete-ta edo erdi hutsik), emaitzen argitara identifika daiteke ikerketa honetan, gure ingurunean sozializatutako 17 urteko neska eta mutilen belaunaldi honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan hautemandako konkistak edo aurrerapenak islatzen direla etxe-familiako agertokian; eta, aitzitik, oraindik asko dagoela egiteko lanaren agertokian, edo, nahiago baldin bada, gizarte-aldaketako prozesu honek erritmo motelagoa daramala esparru horretan.

34. grafikoa lanekoak ez diren erlazioen esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gauzatzen ari den seinaleztat har daiteke. Aburuen baterakotasuna bistakoa da proiektu erkide baten eguneroko kudeaketan bikote-harremana zer modutan sostengatu behar den iriztean. Baina, kontuz, diskurtsoaren terrenora itzuli gara, Goffmanek adierazitako gizarte-harremanen dramaturgia-metaforako inpresioen maneira edo kudeaketa taktikora, kasu honetan, erantzukizunak eta erabakiak "partekatzea". Eta diskurtsoaren edo sozialki espero den etikaren aurrean, baterakotasuna edo adostasuna da jarraitzen den araua. Hala ere, jasota geratu da mutilek ez daukatela horren argi partekatzearen hori (% 86,3 eta neskek % 91,7). Nabardura horiek, emaitzetan generoaren arabera azaleratzen diren alde txiki horiek, esaten ari garen bezala, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko iritzi ahulagoak, diskurtso erretorikoagoak adierazten dituzte 17 urteko belaunaldi honetako mutilen artean.

34. GRAFIKOA. "(Bikote) harreman batean, emakumeek eta gizonek erantzukizun eta erabaki guztiak partekatu behar dituzte, berdintasunez". Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015




**ETA AURRERAPAUISOAK
ERE BAI HEZKUNTZA-
INGURUNEAN**

8.6

Azkenik, egokia dirudi Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzia eta pertzepzioak ezagutzea xede duen kapitulu honetan, hezkuntzaren ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak duen egoerari buruz zer iritzi duten erakustea. Lan munduari buruzko iritzietan ez bezala, kasu honetan belaunaldi honek zuzenean bizitako esperientziez edo "bizipenez" ari gara hizketan, kontuan izanik ikastetxea, oro har, eta ikasgela, zehazki, sozializaziorako ingurune nagusietako bat izan dutela.

35. grafikoko emaitzek islatzen duten irudiaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sendotze prozesuan dagoela dirudi eskola-ingurunean. Ez neskek eta ez mutilek, ez dute beren genero izaeraren araberako alderik hautematen hezkuntza prozesuan. Baina bistakoa da, era berean, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen heren bat baino gehixeagok (grafikoaren % 100era heltzeko falta den zatia), aldiz, hautematen dituela aldeak.


35. GRAFIKOA. Ikasgelan generoaren arabera orientatutako hezkuntza. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. "Ados ez eta Inondik ere ados ez". Ehunekoak. 2015



Hezkuntza ingurunearen argazki honetan kokatuko lirateke, belaunaldi honek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aurrerapenak hautematen dituen agertoki gisa, 36. grafikoko emaitzak. Baina, berriro ere, bistara ateratzen dira erantzunetan generoaren araberako "ñabardurak". Horrela, hezkuntza-ingurune formalean emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egin den irudi hori sendoagoa da Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken artean, ez baitute hautematen, adibidez, generoaren arabera bereizitako tratuerik % 84,0 kasutan, edota konfiantza handiagoa dago neskekiko irakasle taldearen aldetik, kasuen ia % 69an.

Aldiz, haien ikasgelako eta belaunaldiko mutilek berdintasun gutxiagoko irudia murrizten dute beren eskola-inguruneei buruz, kasu honetan, beren buruaren kontra. Irudi luke Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilen parte esanguratsu batek bizipen gisa hartzen dituela beren ikaskide neskekiko diskriminazio positiboko ekintzak, bai konfiantza handiagotari eta bai tratuari dagokionez.

36. GRAFIKOA. Ahalmenei buruzko konfiantza eta generoaren arabera bereizitako tratua ikasgelan. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. "Ados ez eta Inondik ere ados ez": Ehunekoak. 2015



Eta azken gogoeta honek bide ematen digu kapitulu hau itxi eta hurrengoari hasiera emateko, zeina, ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak Euskadiko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko orduan daukan eragina identifikatzera orientatuko baita.

BOSGARREN ZATIA

**GOI-MAILAKO ZEIN
PRESTAKUNTZA-IBILBIDE
HAUTATUKO DUTE?**

HAUTAKETAN INPLIKATUTAKO BALIOAK: DISKURTSOA

9.

Txostenaren zati honen helburu printzipala Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko erabakia hartzean inplikatura dauden balioak identifikatzea da; horien artean dago, jakina, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa.

Aurreko ataletan adierazitako erretratu axiologikoaren eta iritzien parte handi baten adierazpena baita, bai neskek eta bai mutilek beren ibilbide biografikoan zedarri bat marka dezakeen erabakia bizitzen ari diren "momentu" batean, hain zuzen ere. Gure kasu-azterketaren amaiera da, beraz.

Zati hau bi kapitulu ia salomondarretan banatu dugu: lehenengo honek ibilbidea hautatzeko erabakian inplikatura dauden balioei jarriko die arreta, diskurtso mailan, eta Batxilergoko 2. urteko neska eta mutilek zer egiteko asmoa duten nabarmenduko dugu. Hurrengo kapituluak, ordea, diskurtsoetatik praktikorako iragaitea aztertuko du, eta azken aukerak zein izan diren erakutsiko du titulazioen eta jakintza-arloen arabera. Ikus daitekeen bezala, erabakia hartu eta bideratzeko une horretan familia-inguruneak daukan eraginari arreta jartzen dion azken atal bat ere sartu dugu.

NORBERAREN AUTONOMIAN OINARRITUTA HARTUTAKO ERABAKIA

9.1

Azterlan honen helburu nagusietako bat Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako prestakuntza-ibilbidea aukeratzeko erabakia hartzean balioek nola eragiten duten edo jokoan nola sartzen diren jakitea da, eta balioetan oinarritutako hautaketa horretan generoaren araberako alde aipagarriak baden edo ez.

Horrekin, neurri handi batean, ikerketa honetako planteamendu teoriko-metodologikoa aplikatzen dugu: belaunaldi honen ibilbidean oinarritzko "zedarri" bat markatzen duen "erabakia hartze" hori praktikan gauzatzea, kontuan izanik, gainera, gertatzen ari zen "une" berean jaso zela, galdeketa baten bitartez.


Berrito azpimarratu nahi dugu ikerketa aplikatu honetako landa lana garatzeko aukeratutako unearen "intentsioa", zeren eta otsailean eta martxoan, ikasle horiek handik sei hilabetera hasiko zuten ibilbideari zegozkion alde aurreko izen-emateak egin behar baitzituzten.

Gainera, egokia da hemen adieraztea diseinatutako galdeketa zehar hainbat galderatan formulatuta ekiten zaiela gai horiei. Eta horrek, alderdi horrek azterlanean duen garrantzia ez ezik, lortutako emaitzen sendotasuna erakusten du, behin eta berriro errepikatu direlako.

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilei galdetzen zaienean zerk duen garrantzia eta, hortaz, eragina, berehala hasiko duten goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen hautaketan, erabaki horretan "norberaren autonomiak" duen protagonismoa,

egia esan, egundokoa da (8,27). Irizpide horren ondoren, eta dezentez atzerago, hautatu-tako titulazioaren laneko proiektzioa (6,69), eta lortutako batez besteko nota eta nahi den titulazioak eskatzen duena uztartzeko irizpide akademiko-administratiboa datoz (5,87).

37. GRAFIKOA. Sei irizpideri ematen zaien garrantzia goi-mailako titulazio bat hautatzeko orduan. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Otik 10erako eskala. 2015



37. grafikoan erakusten den erabakia hartzeko uneko eraginen mapan, gurasoen eragina (3,72) apala dela esan daiteke, eta titulazioaren genero-adskripzioaren eragina, orain arteko ohiko matrikulazio datuen arabera (1,35 eta 1,28), dudarik gabe, oso hondarrekoa da.


**AUKERA
BERDINTASUNEAN
HARTUTAKO ERABAKIA**

9.2

38. grafikoa, gure iritzian, Euskadiko A Eko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen artean gehiengoaren sintesi bikaina da, goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen hautaketan aukera-berdintasunaren egungo egoerari buruz duten pertzepzioari dagokionez. Horrela, hala nesken nola mutilen iritzian, emakumeek gizonek dituzten aukera berdinak dituzte titulazio bat aukeratzeko orduan (% 82,4).

Eta aurreko atalean planteatutako emaitzen ildo beretik, baldin eta mutilentzat laneko irteeraren dimentsioak garrantzi gehixeago badu ere, egia esan, belaunaldi honetako hiru kideetatik bik diote, bai neskek eta bai mutilek, aintzat hartzen dutela etorkizun profesionala goi-mailako ikasketak aukeratzeko orduan.

38. GRAFIKOA. Aukera-berdintasuna eta etorkizun profesionalaren eragina goi-mailako titulazioa hautatzeko orduan, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen artean. "Erabat ados eta Ados" erantzunak. Ehunekoak. 2015



**"GUSTUZ/BOKAZIOZ":
HAUTAKETAKO
PROTAGONISTA**

9.3


Emaitza horien argitara, are gehiago banakatzea interesatzen zaigu 17 urteko neska eta mutilen belaunaldi honek ahalduz indibidualari buruz duen pertzepzioaren sendotasun maila, haien ibilbide biografikoan "zedarri" garrantzizkoa izango den horretan erabakia autonomoki hartzeari dagokionez. Ondoren erakusten ditugu erabaki autonomo hori zehazten duten balioak.

Galdeketa nahia vs. errealitatea dialektikaren arabera artikulatu zen. Galdeketa 6. galderak, Euskadiko AEn Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak ikasturtea amaitzean ikastea "gustatuko litzaiekeen" titulazioa eta une horretan "azkenik" ikasiko dutena zehatz-mehatz idaztera "behartzen" zituen. Aurrez aipatu den bezala, aukera hori egiteko "momentua" 2014/15 ikasturteko otsaila-martxoa izango zen.

Bi kasuetan titulazio berbera markatzen zen kasuan, nahia eta errealitatea eskutik doazela interpretatzen dugu. Bat ez datozenean, berriz, aukeraketan norberaren nahiak baino eragin handiagoa duten beste balio batzuk edo kanpoko joko-faktore batzuk daudela interpretatu dugu.

Euskadiko AEn 2014/15eko ikasturtean Batxilergoko 2. urtean matrikulatutako hamar ikasle neska eta mutiletatik sei baino gehixeagok diote (% 61,3) gustatuko litzaiekeen goi-mailako titulazioa aukeratzeko erabakia hartu dutela azkenean. Gainera, gustuaren araberrako aukera eta azkenean egindakoa bat etortze hori zertxobait handiagoa da nesken artean galdeketa erantzun dioten unean (% 64,6). Haien ikasgela eta belaunaldiko mutilek, ordea, zalantza handiagoak dituzte, zeren eta % 42,6k adierazten dute, azkenean, gustatuko litzaiekeena ez den beste titulazio bat ikasiko dutela.

39. GRAFIKOA. Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean goi-mailako titulazioa hautatzea: gustatuko litzaiekeenaren aukera vs. "azken" aukera. Ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015



Zein izan daitezke generoaren araberako alde arin honen (7,2 puntukoa) interpretazioak aurkitzea ahalbidetuko diguten arrazoiak, erabakiak hartzerakoan nahiak eta errealitatea uztartzearen gauzatze mailari buruz? Batxilergoko 2. urteko mutilek beren gustuetatik "kanpoko" beste balio eta itxaropen batzuei erantzun behar dietela esan nahi al du? Edota, alderantziz ikusita, Batxilergoko 2. urteko neskek agian kanpoko eragin horien pisu txikiagoa dutelako, norberaren autonomia handiagoa dutela esan nahi al du, beren gustuekin bat datozen prestakuntza-ibilbideak aukeratzeko erabakia hartzerakoan?

24. taulan ikusten den bezala, lortutako emaitzek ez dute ildo horretako interpretazioak egiteko biderik ematen, zeren eta Euskadiko A Eko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilei egitea gustatuko litzaiekeen goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen eta azkenean egingo dutenaren arteko aldeak ez baitira ikasle horiengan beren gustuek baino kanpoko beste faktore batzuek eragin handiagoa izan dutenaren ondorio.

24. TAULA. Goi-mailako titulazioaren hautaketan eragina duten faktoreak. Azken aukera vs. gustatuko litzaiekeenaren arteko aldea. Euskadiko A Eko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. 0-10 eskala. 2015


Goi mailako titulazioaren hautaketari ematen dioten garrantzia...	AZKENIK			GUSTATUKO LITZAIDAKE			ALDEAK		
	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira
... gustatzen zaidalako/ bokazioz	8,8	8,1	8,5	9,1	8,7	8,9	-0,3	-0,5	-0,4
... lanerako dituen irteerengatik	7,0	7,2	7,1	6,8	7,2	7,0	0,2	0,0	0,1
... soldata on bat irabazteko (egonkortasun ekonomikoa)	5,8	6,3	6,00	5,8	6,4	6,1	0,0	-0,1	-0,1
... beste pertsona batzuei laguntzeko	6,6	5,2	6,0	6,8	5,3	6,1	-0,2	-0,1	-0,1
... batez besteko/mugako notak ahalbidetzen didalako	5,0	4,8	4,9	4,4	4,4	4,4	0,6	0,4	0,5
... etxean ekonomikoki iristen direlako	4,7	4,4	4,6	4,4	4,4	4,4	0,3	0,0	0,2
... nire ohiko bizilekutik hurbil ikasi daitekeelako	4,0	4,5	4,2	3,7	4,3	4,0	0,4	0,1	0,3
... ama ados dagoelako	4,0	4,1	4,1	3,9	4,1	4,0	0,2	0,0	0,1
... aita ados dagoelako	3,8	4,1	4,0	3,7	4,0	3,8	0,1	0,1	0,1
... titulua lortzea ez delako zaila	3,1	3,5	3,3	3,0	3,5	3,2	0,2	0,0	0,1
... nire lagunak ados daudelako	1,9	2,5	2,1	1,9	2,4	2,1	0,0	0,0	0,0
... nire irakasleak ados daudelako	1,6	2,3	1,9	1,5	2,3	1,9	0,1	0,0	0,0
... nire orientatzailea bat datorrelako	1,5	2,2	1,8	1,4	2,2	1,8	0,1	0,1	0,1
... hori egin ohi dutelako nire sexuko/generoko pertsonak	1,0	1,7	1,3	0,9	1,6	1,2	0,1	0,1	0,1

Bai "gustatuko litzaidake" aukeran eta bai "azkenik egingo dudana" delakoan izendatutako titulazioak xehekiago aztertuta egiaztatuko dugu haietako gehienak antzekoak direla, eta ñabardura mailako aldeak dituztela beren artean, jakintza-arlo berberaren barruan, edota titulazio jakin baten adar edo espezializazioaren barruan. Horregatik, goi-mailako hurrengo prestakuntza-ibilbidearen erabakia hartu behar den momentuan hartuta dago (otsaila-mar-txoa), eta, eskuarki, oso mugatuta dagoen jakintza-arlo batera orientatzen da.

Diferentzien arrazoiak gehiago dira "norberaren zalantzak" edota "gustatuko litzaikeena zehaztu gabe edukitzea" justu aukeratu behar zuten goi-mailako ibilbideari buruzko galdera egin zieten "unean", eta ez "kanpoko" beste faktore batzuk –lan mundukoak, familiakoak, ...– tartean sartu eta erantzuna aldarazi zutelako. Gainera, grafikoki adierazi ez badugu ere, azterketan egiaztatu dugu Batxilergoko modalitatea –Artistikoa, Zientifikoa eta Humanistiko– ez dela sobera urruntzen erantzun-patroi horretatik.

Aukera egiaz mugatzen duen "kanpoko oztopo" bakarra "batez besteko/mugako nota" da, 0,5eko aldearekin, zeina "gustatzen zaidalako/bokazioz" erantzuneko -0,4 diferentziatik kentzen baita. Titulazio bat asko gustatuagatik edo bokazio handia izanagatik, kanpoko ezarpen batzuetara egokitu beharra dago, kasu honetan, neurri administratibo-akademiko batera. Dударik gabe, azken erabakian 0,5 puntuko igoera izateak –azken erabakiaren eta gustatuko litzaikeenaren arteko balio diferentzia guztietan handiena (24. taula)– ematen digu oinarria galdeketari erantzuna emateko unean aurrez aipatutako zalantzak edo ziurgabetasunak zehazki non kokatu jakiteko. Alegia, "momentu" horretan, bai neskek eta bai mutilek, Batxilergoko 2. urteko azterketa eta ebaluazioetan buru belarri egonik eta unibertsitateko sarrera-proba zain zutela, ez zeukatela ziurtasunik beren errendimendu akademikoak titulazio bat edo bestea egitea ahalbidetuko ote zien, esan bezala, jakintza-arlo nahiko mugatu baten barruan.


40. GRAFIKOA. Goi-mailako titulazioaren azken hautaketan eragina duten faktoreak. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. 0-10 eskala. 2015



Laburbilduz, 24. taulari, 40. grafikoari eta, bereziki, 41. grafikoko faktore-multzoei kasu egiten badiegu, ikusiko dugu goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeke unean eragin handiena duen faktorea norberaren gustua dela ("gustatzen zaidalako/bokazioz"), 8,5eko batez bestekoarekin Batxilergoko 2. urteko ikasle guztientzat.

Baldintza sine qua non horren ondoren, eragina duten faktoreen bigarren multzo bat agertzen da, aukeratzen duten prestakuntza-ibilbideak gero izango dituen laneko irteeretan ("lanerako irteerengatik") edota ekonomia-soldatan ("soldata on bat irabazteko/ egonkortasun ekonomikoa") arreta jartzen dutenak.

41. GRAFIKOA. Goi-mailako titulazioaren azken hautaketan eragina duten faktoreen multzoa. 0-10 eskala. 2015



Hirugarren faktore edo arrazoi bat ere agertu da gustuaren dimentsio pertsonalean eta pronostiko ekonomiko-laboraetik kanpo kokatzen dena, hautatutako goi-mailako titulazioaren garapen profesionalak hirugarren pertsonetik izango duen inpaktuan, alegia ("hirugarren pertsonen laguntzeko"). Zentzu horretan, norberaren aukeraren proiektio soziala adierazten duen faktorea litzateke, horregatik, gure interpretazioan, erabakiak hartzeko uneko balio pertsonalen eremuaren barruan integratu behar da.

Erabakiaren aurreko katalizatzaileek ez bezala, oso bestelako izaera dute nork bere erabaki indibiduala hartetik "kanpokoak" bezala har daitezkeen gainerako faktoreek. Baina bada guztiek partekatzen duten elementu erkide bat: duten eragin-ahalmen eskasa, 10etik 5 puntuz azpikoa, betiere ikasle neska eta mutilen iritzietan oinarrituta.

Ikasle mutil edo neskaren familia-testuingurutik hasten baldin bagara, bistakoa da ikasleek kontuan hartzen dutela beren bizikidetz-unitateko ahalmen ekonomikoa ("etxean ekonomikoki iristen direlako"). Baina 24. taulan adierazten zen bezala, familiaren eragina erlatiboa da (4,6), eta oso gutxi igotzen da azkeneko erabakian, gustatuko litzaiekeen titulazioarekin alderatuta (0,2).

Egon daitezke interpretazio desberdinak "jatorriko familia" deitu faktore horrek izan dezakeen pisuari eta nahien eta errealitateen arteko aldaezintasunari buruz. Interpretazio horietako batek aldeztu du familiako baldintza ekonomikoaren eragina integratuta dagoela jada, aldeztu aurretik, ikasle neska edo mutilak bere erabakia hartzerako. Alegia, ikaslearen

gustuak, bokazioak, lanerako izan ditzakeen irteerak edo batez besteko nota bat lortzeko interes maila ez direla hutsetik sortzen, baizik eta aurrez ezarririk egon ohi den posibilitate-abaniko batean mugatuta egon ohi direla. Beste interpretazioetako batek jatorriko familiaren itxaropenen edo desioen dimentsioa nabarmentzen du; kasu horretan, familia inguruneak, dituen ahalmen ekonomikoak dituela, ondorengoei transmititzen die dirua ez dela oztopo izango haien garapen edo mugikortasun sozialerako ("hezkuntzak du lehentasuna", "egin behar diren ahalegin guztiak egingo dira", etab.).

Faktore horri estu loturik, bereziki berorren izaera kasik aldaezinari planteatzen diren bi aukeretan ("gustatuko litzaidake" eta "azkenik"), titulazioa ikaslearen ohiko bizilekutik hurbil/eroso egin daitekeelako aukeratzea aurkitzen dugu (4,2), amaren eragina (4,2), eta aitaren eragina (4,0).

Baina are txikiagoa da oraindik beste sozializazio-agente batzuek Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilengan duten eragina goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia hartzean: "lagun sarea" (2,1) eta hezkuntza-agentek ("irakasleak eta orientatzailea"; 1,9 eta 1,8, hurrenez hurren). Eta erabakian eragina duten faktore-abaniko horretan, genero-rolaren erreproduktzioa daukagu azkeneko tokian, 1,3, oso hondarreko inpaktua, dudarik gabe.

**BALIOEN
ZEHARKAKOTASUNA
GORABEHERA,
GENEROAREN
ARABERAKO
ZENBAIT ÑABARDURA**


9.4

Hala, ondorio nagusi gisa esan daiteke, 1998an jaio eta Euskadin bizi diren neska eta mutilen belaunaldi honetan, goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko azken hautaketa egiteko erabakia hartzeko eredu oso argia dagoela. Gustuen eta azken errealitatearen arteko diferentziak, gehiago dira erantzuna emateko unean (otsaila/martxoa) zituzten zalantza edo ziurgabetasunen ondorio, erabaki horretan eragin dezakeen balio-egiturarenak baino. Eta norberarekin lotura duten balioek –haien gustu-bokazioak, laneko irteerak edo esperotako inpaktu ekonomikoak– paper protagonista jokatzen dute "kanpoko" bezala kategorizatu ditugun beste faktore multzo batzuekin alderatuta (genero-eragina, irakasleen kolektiboa, amak, aitak eta haien ahalmen ekonomikoa); nabarmentzekoa da, orobat, generoaren arabera "ñabardura" batzuen existentzia.

Trazatuaren antzekotasuna ahaztu gabe, 42. grafikoak bistan uzten ditu ñabardura horiek. Alde batetik, egiaztatu da Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken artean "gustatzen zaidalako/bokazioz" faktoreak pisu erlatibo handiagoa duela titulazioa aukeratzeari buruzko erabakia hartzean (8,8). Eta gauza bera esan daiteke "beste pertsona batzuei laguntzeko" faktoreaz (6,6), zeinak alde dezentea baitu ikasle mutilengan duen eraginarekin (5,2).

Halaber, neskengan "soldata/egonkortasun ekonomikoa" (5,8) eta "laneko irteerak" (7,0) faktoreek, garrantzizkoak izan arren, emaitza apalagoak dituzte ikasgela eta belaunaldi bereko mutilengan baino. Izatez, mutilengan, "beste pertsona batzuei laguntzeko" balioa, neskengan "soldata on bat irabaztea" baino gorago kokatzen da. Emaitza horiek bide ematen dute ondorioztatzeko –eta, nolabait ere, aurreratzeko– bai neskek eta bai mutilek hautatutako arreta edo zainketarako orientazio soziala.

42. GRAFIKOA. Goi-mailako titulazioaren azken hautaketan eragina duten faktoreak. Generoaren arabera aldea Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilengan. 0-10 eskala. 2015



Laburbilduz, aintzat hartzen badugu neskek transmititu duten segurtasun handiagoa gus-tatuko litzaien goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen eta azkenean egingo dutenaren arteko kidetasuna argi edukitzeko orduan (% 66,6); gustu/bokazioaren eragin handiagoa; laneko etorkizunaren eta, batez ere, inpaktu ekonomikoaren eragin erlatibo txikiagoa beren ikasketen etorkizuneko praktika profesionalean beste pertsona batzuetara orientatzeko oraingo erabakian; eta, azkenik, kanpoko agenteek haien erabakian duten eragin txikiagoa (amek, aitek, lagunak, irakasleak, orientatzaileak eta genero-eraginak), Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neskek txosten honetan marrazten ari garen genero-erretira-tua sendotzen dute: emakumeen kolektibo bat non erabakiak hartzea gehiago oinarritzen den norberaren autonomia irizpideetan eta zer izan nahi duten kontuan hartuta, goi-mai-lako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko orduan; haien belaunaldiko mutilek, aldiz, arreta erlatibo handiagoa jartzen diete kanpoko beste inpaktu eta eragin batzuei. Bi generoetan, norberaren autonomia oso balio altua du erabakiak hartzeko unean, baina neskegan are handiagoa da balio hori.

Belaunaldi honek erabaki zehatz bat hartzeko orduan dituen desioak praktikara eramateko maila esanguratsu horren inguruan egin daitezkeen interpretazio ugarietako baten ara-bera, gure komunitatearen irudi bat proiektatzen da epe erdira, non, goi-mailan hezitako pertsonak, gutxienez, hasieratik gogoko zituzten lanbide-gaitasun batzuetan prestatutako

profesionalak izango diren. Beste kontu bat izango da, oso bestelakoa, praktikan nola gauzatzzen den haien egiazko okupazioa.

Posible izango ote da lotura bat aurkitzea erabakiak burujabetasunez hartzeko protagonismo horren –non gustu/bokazioak agintzen duen goi-mailako ibilbidea aukeratzeko orduan– eta Batxilergoko 2. urteko neska ikasleek hutsik egin gabe aurreratutako lan merkatura sartzeko oztopo eta zailtasunen artean? Ez al da izango, maila indibidualean pertsona autonomo baten erretratua marrazten dela, gizarte mailan hautaketa egiteko aukera-berdintasun testuinguru batean, eta, aldiz, erabakiak eta haiei loturik dauden balioak, hautematen dena baino mugatuagoak daudela? Nola ez dute ba gustuen arabera hautatuko, lan mundura sartzeko gaur egun dagoen egoera ikusita?

DISKURTSOETATIK PRAKTIKETARA: AZKEN AUKERAK **10.**


Diskurtso mailan dituzten balioak ezagututa, kapitulu honetan Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen azken hautaketak erakusten dira. Horrela, titulazioen genero-adskripzioen eta haien goi-mailako ibilbideen erretratu eguneratua eskaintzen da, bai-eta haien jarraitutasun tematiaren arrazoiak ere.

UNIBERTSITATE- IBILBIDEARI EMATEN ZAIIO LEHENTASUNA, NESKEN ARTEAN BEREZIKI **10.1**

43. grafikoak ematen du Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek, 2014/15 ikasturtea amaitutakoan, jarraitzeko asmoa duten prestakuntza edo laneko ibilbidearen berri. 2014/15 ikasturteko Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle guztien hamarretik ia zortzi (% 78,9) unibertsitatera begira egotea da, dudarik gabe, egitaterik azpimarragarriena.

Baina grafikoak aipatu gabe utzi ezin diren generoaren arabeko ñabardurak ere ateratzen ditu argitara. Esate baterako, unibertsitate ibilbiderako joera hori nabarmenagoa da nesken artean (% 84,3) mutilen artean baino (% 72,4). Alde horren oinarrian dago, batetik, mutilak gehiago orientatzen direla goi-mailako Lanbide Heziketaren ibilbidera (% 15,4 mutilak, baina neskek % 8,1) eta bestetik, une horretan zalantza maila handixeagoa dutela, gutxiगतik bada ere (% 11,0 eta % 7,2 neskek).

43. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek egingo duten goi-mailako ibilbidea. Ehunekoak. 2015



Beste aukera edo heziketakoak ez diren ibilbide batzuen "hondar" izaera, zalantzarik gabe, une honetan bizi dugun egoera ekonomikoaren adierazpena da. Baina ez bakarrik horrena. Belaunaldi gazteenentzat lan merkatua gaur egun itxita egoteari sozialki eta belaunaldien artean dauden "itxaropenak" gehitu behar zaizkie batxilergoa egiten duten pertsonentzat gure instituzio-esparruan dagokion eta "eduki behar duen" ibilbide biografiko "normalizatuari" buruz: prestakuntza-ibilbideari eutsi behar zaio, unibertsitate mailan, ahal izatera, eta are gehiago emakumezkoa baldin bazara.


**TITULAZIOAK ETA
JAKINTZA-ARLOAK:
"EMAKUMEA-
IRAKASLEA-MEDIKUA",
"GIZONA-INGENIARIA-
TEKNIKARIA" EREDUAK**

10.2

Atal honek jakintza-arloen berri ematen du, eta, ondorioz, galdeketan ikasle neska eta mutil beraiek adierazitako titulazioen berri; ez gara sartu, beraz, une honetan, hautaketa horien arrazoietan existitu daitekeen genero-adskripzioa baloratzen.

44. grafikoak Batxilergoko 2. urteko ikasleek azkenean egiteko asmoak dituzten unibertsitateko titulazioen jakintza-arloen araberrako multzokatze bat aurkezten du. Gogoratu nahi dugu hor kontzentratzen direla erantzun guztien % 78,9. Zalantzarik gabe, "Irakaskuntza teknikoak" kategoriak islatzen ditu generoaren araberrako alde garrantzitsuenak unibertsitateko prestakuntza-ibilbidea hautatzerakoan, ia 24 puntuko aldea mutilen alde (% 32,4; neskek, aldiz, % 8,7).

44. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek azkenean ikasiko dituzten jakintza-arloak. Ehunekoak. 2015




“Gizarte zientziak eta juridikoak” (% 53,4) eta “Osasun zientziak” (% 17,5) eremuetan integratutako titulazioetara neskek duten orientazio handiagoa ere begi-bistakoa da, era berean, ia 10 puntu portzentualeko aldearekin, mutilekin alderatuta.

Aitzitik, “Zientzia esperimentalak” eta “Humanitateak” eremuetan genero arteko oreka handiagoa dago, nahiz eta neskek pisu erlatibo handiagoa duten mutilen hautaketan Irakaskuntza Teknikoek eragiten duten efektu zentripeto diferentziala dela medio.

Titulazioei arreta jartzen badiegu, 45. grafikoak are gehiago zehazten du non kokatzen den generoen arteko aldea Euskadiko etorkizun hurbileko unibertsitateko prestakuntza-ibilbideak aukeratzeko orduan. Unibertsitateko titulazio aipatuenen selekzio bat eginda, hautaketa egiteko genero-aldeen eredua, bereziki, “Ingeniaritza (oro har)” –hori baita azken aukeretan lehena mutilen % 41entzat, eta aldiz, nesken % 13,1entzat– eta “Irakasletza (oro har)” aukeretan ezartzen da, azken hori delako nesken lehen aukera –% 25,1, baina % 5,9 baizik ez, mutilen kasuan–.

Eta “Irakasletza (oro har)” titulazioarekin batera, “beste pertsoneri laguntzea” faktorearen beste adierazpen batzuk dira katalizatzaile nagusi Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken kasuan, aurrez adierazi den bezala, horregatik dute neskek pisu handiagoa Erizaintzan, Psikologian eta Medikuntzan, azkenik egingo dituzten titulazioen artean.


45. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek azkenean ikasiko dituzten titulazioak. Eskatuenean hautaketa. Ehunekoak. 2015



Orain da une egokia adierazteko, eta, hortaz, grafikoki berresteko, aurrez adierazitako interpretazio-gakoetako bat: diferentziarik ez dagoela, oro har, jada identifikatutako generoaren arabera "ñabardurak" kenduta, gustuaren arabera egindako hautaketaren eta unibertsitateko titulazioaren azken aukeraren artean. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen gustuen "kanpokotzat" hartu ditugun faktoreen eragina (enplegarritasun mailarekin, familiako edo hezkuntzako agenteen edo lagunen iritziekin, edo generoarekin zerikusia dutenak) egonkor mantentzen da, zeren 46. grafikoan ez dira lekualdaketa handiak antzematen jakintza-arlo batetik bestera.

Aldeak, batik bat, titulazio baten hautaketan pisu esanguratsua duen "kanpoko" faktore bakarraren eraginagatik erregistratzen dira. "Osasun zientziak" eremuko titulazioen –hau da, Medikuntza eta Erizaintza– beherakadak, batez besteko edo mugako nota asko igo delako, eta aldiz, "Gizarte zientziak eta juridikoak" eremuko titulazioen hazkunde erlatiboak, oro har, eta konparazioz, sartzeko nota apalagoekin, interpretazio hori egitea ahalbidetzen du.


46. GRAFIKOA. Azken aukera vs. gustuaren arabera, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen aldetik. 2015



“Gizona-ingeniaria-teknikaria” eta “emakumea-irakaslea-medikua” ereduak mantentze hori, azken jakintza horiek besteen zainketarako orientazio handiagoa dutenak –nesken hautatze-irizpideetan eragin handiagoa duen balioa baita hori–, ez da aienatzen, itxuraz, azkenean, Lanbide Heziketako goi-mailako ibilbidea egitea erabaki zuten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen % 11,4aren kasuan ere.

Hala, izaera teknikoko lanbide-arloen nagusitasuna handiagoa da Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilen artean, bereziki, Informatika; Fabrikazio mekanikoa; Komunikazioa, irudia eta soinua; Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak. Kontrara, izaera sozialeko lanbide-arloak gehiago ematen dira Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken artean, bereziki, Gizarte- eta kultur-zerbitzuak; Osasuna; Administrazioa eta kudeaketa; eta Ostalaritza eta turismoa.

47. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek azkenean ikasiko dituzten LHko lanbide-arloak. Ehunekoak. 2015




**GENERO-ADSKRIPZIO
HANDIAGOA
GOI-MAILAKO
TITULAZIOETAN
BATXILERGOKO
MODALITATEETAN
BAINO**

10.3


48. grafikoak erakusten du, lehenik, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen % 85i "batere ez" edo "gutxi" eragin ziela genero bereko pertsonen presentzia handiagoak edo txikiagoak.

Izatekotan ere, badirudi mutilen artean duela eragin erlatibo handixeagoa genero bereko ikaskideen presentzia handiago edo txikiago horrek, eta 49. grafikoan ikus daitekeen bezala, bereziki kontzentratzen dela ematen du une honetan "Artistikoa" modalitatearen barruan ikasketak egiten ari direnen artean, non eraginik "batere ez edo gutxi" kategoria % 68,9ra heltzen baita.

48. GRAFIKOA. Genero bereko pertsonen presentzia handiagoaren edo txikiagoaren eragina Batxilergoko modalitatea hautatzeko orduan. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Ehunekoak. 2015



49. GRAFIKOA. Genero bereko pertsonen presentzia handiagoaren edo txikiagoaren eragina Batxilergoko modalitatearen arabera. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. "Batere ez eta Eragin txikia" erantzunak. Ehunekoak. 2015




Izatekotan ere, badirudi mutilen artean duela eragin erlatibo handixeagoa genero bereko ikaskideen presentzia handiago edo txikiago horrek, eta 49. grafikoan ikus daitekeen bezala, bereziki kontzentratzen dela ematen du une honetan "Artistikoa" modalitatearen barruan ikasketak egiten ari direnen artean, non eraginik "batere ez edo gutxi" kategoria % 68,9ra heltzen baita.

Eta modalitate artistiko hori hautatzean estereotipoa zama bat izan bazen bere garaian mutilen batek egin behar izan zuen hautaketan, oso bestelakoa da, ia existitzen ez dena, genero bateko edo besteko pertsonen presentziak Batxilergoko 2. urteko ikasle neskengan izan zuen eragina, hiru modalitateetako edozein hautatzeko orduan.

Azterlan honen emaitzen azterketatik interes handiko alderdi bat ondoriozta daiteke, du-darik gabe: goi-mailako titulazioek duten genero-adskripzio handiagoa, aldagai horrek Batxilergoko modalitateetan duen eraginaren aldean. 50. grafikoak ez du zalantzarako tarterik uzten: erantzun guztien % 70ak Batxilergoko modalitate bat egitean neska edo mutila izateak ez duela garrantzirik irizten dion bitartean, portzentaje hori guztizkoaren % 58,4ra jaisten da goi-mailako titulazio baten kasuan.

Eta diferentzia horren gordintasunak protagonista bat du: Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilak. Horien kasuan, bitatik batek baino gehixeagok irizten dio neska edo mutila izateak aldea markatzen duela goi-mailako ibilbide bat hautatzeko orduan, 18 puntu portzentual gutxiago hezkuntzako aurreko aukera egitean baino, hau da, Batxilergoko modalitatea hautatzean.

50. GRAFIKOA. Generoaren garrantzia Batxilergoko modalitatea vs. Goi-mailako titulua hautatzeko orduan. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen iritzia, neska eta mutil. Baiezko erantzunak. Ehunekoak. 2015



Zergatik hautematen da bortizkiago goi-mailako titulazioen genero-adskripzio hori Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko mutilen kasuan eta gutxiago haien ikasgelako eta belaunaldiko neskenen? Batxilergoko 2. urteko neska gehienek goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakiak hartzeko beren genero izaera ez dutela faktore mugatzaile gisa ikusten esan nahi al du horrek, eta haien ikasgelako eta belaunaldiko mutilek, aldiz, pertzepzio mugatuagoa dutela? Hori dela eta, goi-mailako prestakuntza-ibilbideak hautatzeko orduan, aukera-berdintasuna garatuago eta sedimentatuago ote dago nesken artean? Norberaren autonomia handiagoa ote dute erabakiak hartzeko? Hala, kontrara, Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilak ote dira titulazioei buruzko generoaren arabera begirada berezitua mantentzen dutenak? Beldurra eta erresistentzia erakusten dutenak botere-espazioen galera potentzialaren aurrean?

Egia esan, galdera konplexuak dira argi eta zehatz-mehatz erantzuteko. Ez da ulertzen erraza zergatik gertatzen den jauzi edo alde handi hori genero-adskripzioari dagokionez, hezkuntzako maila baten, Batxilergoa, eta hurrengoaren artean, Goi-mailako heziketa zikloa. Baliteke "bizitakoa"/"esperotakoa" dikotomia baliagarri izatea. Ikasten ari diren Batxilergoko modalitatea, jada hautatu eta esperimintatutako zerbait, nolabait esanda, joandako urak dira. Goi-mailako prestakuntza-ibilbidean, aldiz, unibertsitatekoan, batez ere, gizarte-irudikapenek –genero-irudikapenak barne– eragin handiagoa dute.


**GENERO ESTEREOTIPOAK
GOI-MAILAKO
TITULAZIOETAN:
LANEKO
SEGREGAZIOAREN
GELAURREA**

10.4

51. grafikoak oso-osorik erakusten ditu goi-mailako titulazioen genero-orientazioari buruz Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emandako erantzun guztiak. Belaunaldi horren gehiengoak aldeztzen du titulazioak ez direla modu berezitan orientatzen neskengana edota mutilengana (% 58,4). Baina hamar puntu portzental baino gehiagoko aldea dago nesken iritzien (% 63,3) eta mutilen iritzien artean (% 52,6).

Illo horretan, guztizkoaren % 17,9k irizten diote badaudela mutilengana orientatuagoak dauden titulazioak, eta % 17,7k, berriz, neskengana orientatuagoak daudela; horrek esan nahi du, epe erdira, aurreikustekoa dela oraingo genero banaketak erreproduzitzea jakintza-arloei eta gaitasun profesionaleri dagokienez. 25 eta 26. taulak guztizkoaren % 35,6ren iritzietan zentratzen dira. "Gizona-ingeniaria-teknikaria" eta "emakumea-irakaslea-medikua" eredu estereotipatuak argi eta garbi agertzen dira berriro. Eta badirudi estereotipoak markatuxeagoak daudela ikasle neskengan, mutilengan baino. Neskentzat, Ingeniaritza kasik emakumerik ez dagoen titulazioa da, eta gauza bera Jarduera fisiko eta kirol zientzien kasuan. Hirugarren pertsonen zainketara edo arretara zuzendutako titulazioak, aldiz (Irakasletza, Erizaintza, Medikuntza), horiek bai, titulazio femeninoak jotzen dira.

51. GRAFIKOA. Goi-mailako titulazioetako generoaren araberako orientazioa Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilei. Ehunekoak. 2015



Ikasle mutilen kasuan, berriz, irudikapen hori mantentzen den arren, egia da tarte bat uzten diotela, behintzat, bai nesken eta bai mutilen presentziari aurreko titulazio estereotipatuen horietan.

25. TAULA. Neskei eta mutilei orientatuagoak dauden titulazioak Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska ikasleen iritzia. Ehunekoak. 2015

Titulazioak	Neskak	Mutilak	Guztira	Aldea
Ingeniaritza (oro har)	0,0	62,5	28,2	-62,5
Erizaintza	37,1	1,3	20,9	35,9
Irakasletza (oro har)	34,0	0,0	18,6	34,0
Medikuntza	12,4	2,5	7,9	9,9
Enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentzia	3,1	11,3	6,8	-8,2
Jarduera fisiko eta kirol zientziak	0,0	13,8	6,2	-13,8
Zuzenbidea	4,1	7,5	5,6	-3,4
Psikologia	6,2	1,3	4,0	4,9
Arte ederrak	3,1	0,0	1,7	3,1
Guztira	100	100	100	

26. TAULA. Neskei eta mutilei orientatuagoak dauden titulazioak Ikasle mutilen iritzia. Euskadiko AEko Batxilergoko 2.a. Ehunekoak. 2015

Titulazioak	Nesakak	Mutilak	Guztira	Aldea
Ingeniaritza (oro har)	6,3	64,8	37,3	-58,4
Erizaintza	22,2	1,4	11,2	20,8
Irakasletza (oro har)	28,6	2,8	14,9	25,8
Medikuntza	22,2	2,8	11,9	19,4
Enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentzia	9,5	11,3	10,4	-1,7
Jarduera fisiko eta kirol zientziak	1,6	12,7	7,5	-11,1
Zuzenbidea	7,9	4,2	6,0	3,7
Psikologia	1,6	0,0	0,7	1,6
Arte ederrak	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100	100	100	

**NORBERAREN
AUTONOMIA
EDOZERTARAKO
ERANTZUN GISA:
KAUSA ETA EFEKTUA**

10.5

Posible al da iriztea, hortaz, gure testuinguruan, genero aldagaiaren pisua handitu egiten dela hezkuntzako aukerak egitean prestakuntza-ibilbidearen mailak gora egiten duen neurrian? Hori diotela dirudi ikerketa honen emaitzek.

Nola interpretatu orduan, zer arrazoirengatik erreproduzitzen diren neurri handi batean, behin eta berriro, genero-adskripzioak goi-mailako prestakuntza-ibilbideak hautatzerakoan? Nola interpretatu hori, gainera, azterlan honen emaitzetan oinarrituta, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek ere egitura kateatu hori erreproduzitzen jarraitzen baldin badute?


Bada, 17 urteko neska eta mutilen belaunaldi honek nahikoa argi du bere erantzuna: pertsona bakoitza burujabea da (askea) erabaki bat hartzeko orduan, kasu honetan, titulazio bat hautatzea (8,1) 52. grafikoan adierazten den bezala.

Generoaren arabera berezitatuko gustuak (4,8) edo gizarteko eta generoko inertziak (4,6) pisua hartzen dute esplikazio gisa, erabakia hartzeko uneko norberaren autonomiaren itzalean. Eta nabarmentzekoa da belaunaldi honek familiako (3,4) eta hezkuntzako (2,5) inguru-neeie gozten dien eragin eskasa titulazio feminizatu edo maskulinizatu horiek berritzean.

Norberaren autonomia da faktore erabakigarria. Horrela ixten da, beraz, belaunaldi honen balioei buruzko argudio axiologikoa: erabakiak hartzea ahalbidetzen duen balio berak ematen du bidea genero-orientazioak erreproduzitzeko goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko orduan. Norberaren autonomia litzateke, hortaz, edozertarako balio duen erantzuna edo balioa, kausa eta efektua, ezinbesteko baldintza norberak nahi duena hautatzeko.

Eta erabakia hartzeko uneko norberaren autonomia hori legitimoa ez ezik, ukiezina da, nolabait esanda, bortxaezina belaunaldi honen pentsamoldearen arabera.

52. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilentzat titulazio femeninoago edo maskulinoagoen jarraitutasuna esplikatzeko arrazoiak. 0tik 10erako eskala. 2015



**AUTONOMIA HAUTAKETA
EGITEAN, BAI, BAINA
UNIBERTSITATERA:
FAMILIA-
INGURUNEAREN
ERAGINA**

10.6

Azterlan honen helburuetatik urrun geratzen da gurasoek, sozializaziorako agenteak diren neurrian, nortasun indibidualen eta sozialen osaketan dituzten -ageriko eta/edo ezkutuko-eraginetan sakontzea. Ez da ahaztu behar, aurreko atal batean islatu zen bezala, belaunaldi honen iritzian, familia-ingurunea izan dela sozializaziorako agente eraginkorrena haien baliogegitura osatzeko orduan.


Gure helburuak apalagoak dira: Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia bideratu duen balio-egitura hori ikasleen hurbileneko familia-ingurunean zenbateraino "sostengatua" dagoen ezagutzea, ikasle berorien iritzian.

Eta "berorien iritzian" diogu, zeren, ez dezagun ahaztu, alabak eta semeek beren gurasoen iritziari buruz duten iritziaz ari garela. Emaitzek hirugarren pertsonen iritziei buruzko pertzepzioak islatzen dituzte, hau da, zeharkako iritziak, eta hurrengo kapitulurako utzi da gurasoek zuzenean emandako iritzien azalpena.

Emaitzak argigarriak dira gure testuinguruan belaunaldien artean dagoen kidesun mailari buruz, goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko erabakia hartzeari dagokionez eta berori "bideratzearen" inguruan. Baina horren aurretik, egokia iruditzen zaigu arreta jar-tzea, lehenik, 17 urteko alaba eta semeek beren bizitzako hainbat esparruri buruz gurasoek dakitenaren edo ez dakitenaren inguruko pertzepzioari.

53. grafikoan adierazten da haiek "egiten dutenaren" ezagutza hori, eta "eskola" mailakoa da ama/aitek lehentasuna ematen dioten ezagutza-esparrua. Belaunaldien arteko eta ama-aita eta seme-alaben arteko erantzukizun nagusietako bat da, eta nabarmen geratzen da Euskadiko ama eta aiten gehiengoak badakitela "nola doazen ikasketetan"; "Batxilergoko zer modalitate egiten ari diren" eta, azkenik, "zer egiteko asmoak dituzten hurrengo ikas-turtean".

53. GRAFIKOA. Amen eta aiten ezagutza Batxilergoko 2. urtean dauzkaten alaba eta semeen bizitzako zenbait esparruri buruz. "Asko daki eta Badaiki" emaitzak. Ehunekoak. 2015



Behin adierazi ostean, Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian, haien ama eta aiten ezagutza maila handia beren seme-alaben eskola-jarduerekin zerikusia duen guztian, "hurrengo ikasturtean egiteko asmoa dutenari" buruzko erabakiari dagokionez, 27. taulako emaitzek ez dute zalantzarako tarterik uzten: alabak edo semeak hartutako erabakiaren sostengua erabatekoa da kasuen ia % 75ean. Eta % 92ra hurbilduko litzateke, bi onarpenak sartuko balira, aita/amen gustuak beste batzuk izanik ere.


Belaunaldien arteko adostasun bat dago alabaren edo semearen goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia autonomia indibidualaren balioan oinarritzen dena; eta errespetatu egiten da bere ibilbide biografikoan halako garrantzia izango duen erabaki hori protagonizatzen eta pertsonifikatzen duen alabaren edo semearen erabakia. Ez da generoaren arabera nabardurarik hautematen Euskadiko bizikidetza-unitateak Batxilergoko 2. urteko alaba eta/edo semeekin lerrotatze horretan.

27. TAULA. Amen/aiten iritzia goi-mailako prestakuntza-ibilbideaz erabakia hartu behar duen pertsonari buruz Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean, Euskadiko AEko ikasle neska eta mutilen arabera. Ehunekoak. 2015

Gurasoen iritzia	Nesak	Mutilak	Guztira
Gutziz babestua sentitzen naiz nire erabakian	73,8	75,8	74,7
Beste zerbait egitea gustatuko litzaioke, baina, azkenean onartu du nire erabakia	9,6	8,5	9,1
Beste zerbait egitea gustatuko litzaioke, baina ez da inoiz tartean sartu gai horretan	8,9	7,8	8,4
Beste zerbait egitea gustatuko litzaioke eta oraindik gaiaren inguruan negoziatzen ari gara	2,5	1,9	2,2
ED/EDE	2,0	1,3	1,7
Ez du nire erabakia onartzen, baina nahi dudana egiteko asmoa dut	1,5	1,5	1,5
Ezin diote ekonomikoki aurre egin	0,7	1,4	1,1
Ez du ideiarik ere, eta ez zaio interesatu ere egiten	0,7	1,3	0,9
Ez du nire erabakia onartzen eta haiek nahi dutena egitera behartuta nago	0,3	0,6	0,4
Guztira	100	100	100

Baina irudi ideal horrek baditu muga batzuk, bideratze batzuk. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen gurasoek beren alaba eta semeek goi-mailako titulazioa "burujabetasunez" hautatzea ahalbidetzen edota errazten dute, hori bai, ahal izatera, unibertsitateko ibilbideari lehentasuna emanez (54. grafikoa).

54. GRAFIKOA. Amen/aiten iritzia Unibertsitatea edo Lanbide Heziketa nahiago izateari buruz Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean, Euskadiko AEko ikasle neska eta mutilen arabera. Ehunekoak. 2015



Eta praktikan, hau da, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek azkenik egindako hautaketaren erabakian, badirudi ama/aitek nahiago zuten horrek baduela saria. Arrazoi horregatik sartu dugu familia-ingurunearen eragina –sotilagoa, zalantzarik gabe, baina eragina, azken batean– ikasle neska eta mutilek hautemandako norberaren autonomiaren irudi –orain erlatibizatuta geratu den– horretan.

“Nahi duen titulazioa hautatzen du burujabetasunez, baina unibertsitatekoa bada betiere”
 Eta irizpide hori, dudarik gabe, sendotasun handiagoz orientatua dago nesken kasuan. Gurasoei erlatiboki gutxiago axola zaie mutilek Lanbide Heziketako goi-mailako titulazio bat ikastea nahiago izatea unibertsitateko titulu bat baino (% 66,6). Nesken kasuan, ordea, aukera horrekin gurasoen erdiak baino gutxiago egongo lirateke ados (% 48,5) eta are gutxiago aukeratutako Lanbide Heziketako goi mailako titulazio hori mutil gehiagok egiten badute (% 38,6).

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen jatorriko familien tes-tuinguruan kokatutako adierazle horiek identifikatzen dituzte, titulazioa eta matrikulazioa hautatzean, unibertsitateko ibilbideak Lanbide Heziketako goi-mailako ibilbideen gainetik kokatuta egotearen arrazoietakoz. Baina baita Lanbide Heziketako lanbide-arloetako askok beren genero-adskripzioa zergatik indar handiagoz erreproduzitzen duten ere.

SEIGARREN ZATIA

**NOLA IKUSIKO DITUZTE
BEREN BURUAK?**

GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA- IBILBIDEA AMAITU ONDOREN

11.

Galdeketaren barruan hainbat galdera sartu ziren Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek beren buruak nola imajinatzen dituzten jakiteko, pertsona helduak direnean. Ariketa prospektibo honen helburu nagusia adierazitako goi-mailako prestakuntza-ibilbideen eta, heziketa-etapa hau amaitutakoan, euskal herritarren belaunaldi honek jarraituko dituen bizitzako ibilbideen arteko jarraikitasun-lerroak identifikatzea da.

LANBIDE ASKOTARIKOTASUNA, BAINA SEGREGAZIO HORIZONTALERANTZ

11.1

28 eta 29. taulek argi uzten dute neskei eta mutilei lan egitea gustatuko litzaikeen lanbideen askotarikotasuna dela erantzun kopuru handiena bildu duen aukera, hamarretik ia lautan gertatu baita hori (% 39). Hori esan ondoren, aurrez aipatutako goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen eta nahi izandako okupazio profesionalaren arteko begi-bistako kidetasunak dira bigarren elementu azpimarragarria. Horregatik, berriro ere agerian geratzen dira generoaren araberako aldeak lanbide teknikoan -mutilek nahiago dituztenak- eta gizarte- eta osasun-lanbideen artean -neskek nahiago dituztenak-, goi-mailako heziketaren inguruan burujabetasunez hartutako erabakiekin bat datozelarik.

Kasu esanguratsuenetan arreta jartzearren, belaunaldi honetako emakumeen artean irakasle lanbidea (Irakasletza) guztizkoaren % 15,2ra iristen da, eta erantzun guztien ia % 82 kontzentratzen ditu. Eta gauza bera esan daiteke Erizaintzaz (% 4,7 eta erantzun guztien % 82,4), edota Psikologiako aukera guztiez. Mutilen kasuan, % 19,6ren garapen profesionala Ingeniaritzara orientatzen da, guztizkoaren % 71,2 kontzentratzen duela; edota erantzun guztien % 92,3 Informatikan.

28. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleei, neska eta mutil, lan egitea gustatuko litzaiekeen lanbideak. Ehuneko bertikalak. 2015

Egiteko asmoak dituzten lanbideak	Neskak	Mutilak	Guztira
Beste lanbide batzuk	40,5	36,7	39,0
Irakasletza (oro har)	15,2	5,3	11,4
Ingeniaritza (oro har)	5,1	19,7	10,7
Medikuntza (oro har)	9,5	3,2	7,0
Ed/Ede	3,4	10,1	6,0
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentzia	4,4	7,4	5,6
Psikologia	7,1	0,0	4,3
Zuzenbidea	4,1	3,7	3,9
Erizaintza	4,7	1,6	3,5
Ikertzailea / Laborategia	4,4	1,6	3,3
Informatika	0,3	6,4	2,7
Fisioterapeuta	1,4	4,3	2,5
Guztira	100	100	100

29. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleei, neska eta mutil, lan egitea gustatuko litzaiekeen lanbideak. Ehuneko horizontalak. 2015


Egiteko asmoak dituzten lanbideak	Neskak	Mutilak	Guztira
Beste lanbide batzuk	63,5	36,5	100,0
Irakasletza (oro har)	81,8	18,2	100,0
Ingeniaritza (oro har)	28,8	71,2	100,0
Medikuntza (oro har)	82,4	17,6	100,0
Ed/Ede	34,5	65,5	100,0
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza	48,1	51,9	100,0
Psikologia	100,0	0,0	100,0
Zuzenbidea	63,2	36,8	100,0
Erizaintza	82,4	17,6	100,0
Ikertzailea / Laborategia	81,3	18,8	100,0
Informatika	7,7	92,3	100,0
Fisioterapeuta	33,3	66,7	100,0

**SEGREGAZIO
BERTIKALA
ERANTZUKIZUNEN
LANPOSTUETAN**

11.2

18 urteko neska eta mutilen belaunaldi honek egindako lanbide prospekzioan generoaren arabera eta okupazioei buruzko segregazio horizontaleko joeren identifikazio horren osagarri modura, 55. grafikoa okupazioei buruzko "segregazio bertikaleko" joerak aurkitzen saiatzen da.

55. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek iristeko asmoak dauzkaten lanpostu profesionalak. Ehunekoak. 2015



Galdeketa itaundu zitzaien ea "noraino iristea gustatuko litzaiekeen" etorkizuneko beren lanpostuan. Egitate azpimarragarrienetako bat da Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutil guztien % 76k "nolabaiteko erantzukizunen" bat izatera iristeko asmoak dituztela beren etorkizuneko lanbidean. Egindako goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen ondorio inplizitua edo esperotakoa litzateke "persona enplegatu" bat gehiago ez izateko asmoa.

Erantzukizuneko lanpostuaren barruan bi maila bereizten dira: gehieneko erantzukizuna ("nagusi izatera iristea") eta erantzukizun bat izatea ("nagusi izatera iritsi gabe"). Eta hemen bai identifikatzen direla generoaren arabera alde batzuk: gehieneko erantzukizuneko postuen ehuneko handiagoa kontzentratzen dute mutilek (% 45), haien ikasgela eta belaunaldiko neskek baino (% 37,4). Nesken artean, gainera, "nagusi izatera ez iristea" da, gutxiagatik bada ere, lehen aukera (% 38,2).

**BESTE BALIO
INPLIZITU BATZUK
PERTSONA HELDU
GISA DUTEN
PROIEKZIOAN**

11.3

Kapitulu hau amaitzeko, galdeketako beste galdera batek planteatzen zuen ea zeintzuk izango ziratekeen Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilentzat balio edo egitate garrantzikoena etorkizunean pertsona heldu bihurtzen direnean.


56. grafikoak bistaratzen du gaur oraindik gaztea den belaunaldi honen prospekzio axiologikoa hainbat eremutan: enpleguari dagokionez, lanak prestakuntza-ibilbidearekin izango duen erlazioan, etxeko-familiako bizikidetzaren ereduaren, adiskidetasunaren balioan, diruarenean, eta, azkenik, bere idealen aldeko jarraikitasunean (desio dena lortzeko).

Bi alderdiri ematen zaie aparteko balioa: "ikasi den lanbidean lan egiteari" (8,25), eta "beren amets pertsonala lortzeko ahaleginean" jarraikitasunez saiatzeari (8,23).

Lehenengoaren kasuan, ikasle horiek une honetan bizi duten egoerak –batez ere ikasketak egitera bideratuta– zuzeneko eragina du heziketan egingo duten inbertsioaren ostean, ikasten dutenarekin ahalik eta antz handiena duen lanpostu batean aritzeko desioan. Agian aurkituko ditugu emaitza horretan prestakuntza-ibilbide bat "gustuz/bokazioz" aukeratzeko orduan hartutako erabakia interpretatzeko elementuak. Lan mundura sartze hori, bere erantzukizun mailarekin eta, hortaz, gainerako okupazioetatik berezituia, aurreko atalean adierazi dugun bezala, egindako apustuan asmatu izanaren gauzatze ukigarria izango litzateke, kontuan izanik, esanda bezala, apustu hori norberaren autonomiaren baliotik eginga izan zela.

Egiaztatzen dugu kidesun handiak daudela ikasi duzun horretan lan egitearen eta norberaren ametsari eustean eta horretan irautean integratutako idealismoaren artean, balio hori ia parean kokatzen baita. Balio horren inguruan aurkitzen ditugu jarraikitasuna, ahalegina, norberaren borondatea, guztiak ere materialistagoak, instrumentalagoak edo pragmatikagoak diruditen beste balio batzuen gainetik kokatzen direla, hala nola diru asko irabaztea (6,55). Interpretazio horri lotuta dago hirugarren tokian kokatuta dagoen "lanean arrakasta izatea" (7,68), arrakastaren pertzepzioak hainbat esanahi izan baititzake.

56. GRAFIKOA. Balioak eta etorkizuneko proiektuak Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilentzat. 0-10 Eskala. 2015



17 urteko ikasle neska eta mutilen belaunaldi honek "etxeko agertoki pribatu-afektiborako nahi duen ereduaz" egindako proiektioaz interesaturik, 56. grafikoak erakusten du hiru eredu-tipo ideal hartu zirela kontuan egin zitzaizen galdera-sortan: "bikotekidearekin eta haurrekin" (ama-aita-haurrak), "bikotekidearekin bizitzen" (bikotea) eta "bakarrik edo lagunekin bizitzen" (independente). Azkeneko bizikidetza eredu horrek eman ditu emaitza apalenak (4,79), oso antzekoak, gainera, mutilen eta nesken artean. Gehiengoa lortu dutenak, beraz, beste bi bizikidetza ereduak izan dira, lehen postuan "bikotekidearekin bizitzen" (7,68), eta apur bat atzerago "bikotekidearekin eta haurrekin" (7,57).

Belaunaldi honetan guztiz finkatuta dago, bai beren balioetan eta bai etorkizuneko portaera praktiko (potentzialetan), etxe esparruko bizikidetza ereduaren ondorengoek ez dutela oinarrizko protagonismoa. Eta hori gure testuinguruan gertatzen ari den lehen mailako gizarte-aldaketa prozesu bat da, agian isilean geratzen ari dena afektibitatearen eremuan dagoelako, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa praktikan eta bizitzako erabakietan eragina duten balioen aldaketa dela medio.

Azkenik, bihurtzeko egunez gure testuinguruan pertsona helduak izango diren proiektio axiologiko honen emaitzetan deigarrien gertatzen den alderdietako bat neskek eta mutilek

etorkizunerako proiektioetan erakutsi duten homogeneotasun handia da. Egia da neskek batez besteko handiagoak ematen dituztela, baina azterlan honetako beste adierazle askoren kasuan ere gertatu den zerbait da. Genero batekoak edo bestekoak izan, pertsona helduak direnean izango duten irudiari buruzko belaunaldiko konbergentzia horrek sendotu baizik ez du egiten honako egitate hau; gure testuinguruan balioen eta itxaropenen egitura zeharkakotasunez sedimentatuta dagoela. Oso bestelako zerbait da eguneroko praktikan dimentsio handiagoa hartzen duten ñabardura horiek kontuan hartzea.

ZAZPIGARREN ZATIA

**NOLA IKUSTEN DITUZTE
GURASOEK ETA IRAKASLEEN
KOLEKTIBOAK?**

KONBERGENTZIAK ETA ÑABARDURAK 12.

Kapitulu honek gure azterlanaren ezaugarrietako bat den "osoko ikuspegiaren" emaitzak aurkezten ditu. Metodologiari buruzko kapitulu adierazi zen bezala, azterlan honetan komenigarria ikusi genuen ikerketak zuzenean markatutako Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen kolektiboaren "autorretratuan" edo iritzi soiletan geratu ordez, egoeraren argazki hori, perspektiba gehiagotatik, ikuspegi integral batetik "osatzea".

Gurasoen eta irakasleen kolektiboaren parte-hartzea da –ez dira alferrik Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen kolektiboarekin erlazio eta ezagutza handienetakoa duten gizarte-eragileetako bi– lanaren ikuspegi integral edo alde anitzekoaren froga behinena.

Kapitulu honetan perspektiba zeharo aldatzen da iritzia ematen duten pertsonen dagokienez, ez ordea iritziaren xede den kolektiboaren kasuan, hori lehengo bera baita: Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutirik. Azterlan honetan ez diegu galdetu gurasoen kolektiboari eta irakasleentz beren buruen gainean, baizik eta beren alaba, seme eta ikasleei buruz dituzten iritzirik eskatu dizkiegu, alegia, "nola ikusten dituzten", neurri handi batean, ikasle neska eta mutilen galdeketa planteatutako intereseko gai eta alderdi berbereri dagokienez.

Hori guztia dela eta, kapitulu honek "konparaziozko ikuspegia" erakusten du eta "osoko testuinguru" batean kokatzen ditu goi-mailako ibilbidea erabakitzeko unean jokoan sartzen diren 17 urteko euskal ikasleen belaunaldiaren balioak. Konbergentziak eta desadostasunak hautemango dira planteamenduetan, iritzi-emaitzak bakoitzak jokatzen duen rola araberak, eta are gehiago zabalduko dira generoaren araberrako ñabardurak, aurreko kapituluetan jada hautemandako nesken eta mutilen arteko aldeak.

Horrela, kapitulu honetako emaitzek argi erakusten dute gurasoek beren alaba eta semeek pentsatzen dutenari buruzko pertzepzioaren "hurbiltasuna", eta, aldiz, irakasleen kolektiboaren "urruntasuna". Ama/aiten emaitzak 17 urteko haien alaba eta semeen iritzietatik oso hurbil kokatzen dira, eta horrek erakusten du, gauza gehiagoren artean, "belaunaldi arteko" eta "familia barruko konbergentzia" maila oso esanguratsua dagoela gure testuinguruan.

Aitzitik, azterlan honetako irakasleen kolektiboaren emaitzak ia beti ikasle neska eta mutirik beren buruz dituzten auto-pertzepzioen emaitzetatik –eta, hortaz, baita haien gurasoentatik ere– beherago kokatzen dira. Irudipena ematen du irakasleen kolektibo honek "jaitsi" egiten dituela norberaren autonomiaren arloan, emakumeen eta gizonen berdintasunean, prestakuntza-ibilbideak hautatzeko irizpideetan eta goi-mailako titulazioen genero-adskripzioetan ikasleek dituzten auto-pertzepzioetako asko. Irakasleen kolektibo honek marrazten duen argazkian, azken batean, generoen arteko aldeak markatuagoak daude, belaunaldi honetan, ikasleek beraiek eta haien gurasoek hautematen dituztenak baino.

Kapitulu honetako grafiko eta tauletan ikasle nesken, mutilen eta kolektibo osoaren emaitzak aurkezten dira, jada ezagunak badira ere eta txosten honetako aurreko ataletan islatu diren arren. Eta adierazle horiei ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren emaitzak gehitu zaizkie, kasu honetan, ikasle neskei buruz dituzten iritzirik ("irakasleak neska ikasleak") eta ikasle mutirik buruzkoak ("irakasleak mutil ikasleak") bereizten direla.

Era berean, konparaziozko kapitulu honetan, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen emaitzei soilik eskaini zaizkien aurreko kapituluetan erabilitako azalpen-ordena berberarekin jarraitu dugu. Uste dugu erraztu egiten duela kapituluaren irakurketa, zeinak, ikusiko denez, izaera sintetiko markatua baitu.


**EGUNGO INTERESA
EMAKUMEEN
MUGIMENDU/
ELKARTEEKIKO
ETA HAIEN
GARRANTZIA**

12.1

57. grafikoak, lehen aldiz, konparaziozko kapitulu honetan zehar azalduko den erantzun-patroi bat islatzen du, hau da, gurasoak hurbilago daudela beren alaba eta semeek pentsatzen dutenaren pertzepzioetik, eta, aldiz, irakasleen kolektiboa urrunago.

Hala, irakasleen kolektibo honen iritzian, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen mugimenduei buruz duten interesa eta haiei ematen dieten garrantzia emakume beraien bizi-baldintzak hobetzeko gizarte-eragile gisa, ez da onarpen mailara iristen (4,3 eta 4,9, hurrenez hurren). Eta horretan diferentzia oso esanguratsua dago pertsona interesatu berberak –haien ikasle neska eta mutilek, alegia– emandako iritziekin alderatuta.

57. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen mugimendu/elkartekiko duten interesaren, ematen dieten garrantziaren eta politikarekiko interesaren ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. 0-10 eskala. 2015



Parametro honetan, beharbada, gurasoek hurbiltasun txikiagoa erakusten dute beren alaba eta semeen iritziekiko (6,4 eta 6,8, hurrenez hurren), hurrengo beste emaitza batzuetan baino, aurrerago adieraziko den bezala. Agian horrek erakusten du, hipotesi modura, esparru hori ez dela familia barruko elkarrizketetan ateratzen den edo intereseko gai bat.

Esan behar da, azkenik, politikarekiko interesaren inguruko emaitzak direla parametro bakarra non hiru kolektiboen iritzia ia-ia bat datozen. Adostasun nahikoa orokortua dago, beraz, belaunaldi honek arlo horri buruz duen interesari dagokionez.

ERRETRATU AXIOLOGIKOA

12.2


58. grafikoan erakusten den hiru dimentsioko argazki axiologikoaren ikuspegi alderatutik, gure iritzian ondoriozta daitekeen joera nagusietako bat gurasoek beren alaba eta semeei egozten dieten irudiaren eta seme-alaba horiek proiektatzen dutenaren konbergentzia da. Kolektibo batek eta besteak murriztutako lerroak oso antzekoak dira, apur bat apalagoa parametro gehienetan gurasoen kasuan; baina horrek ez du kentzen haiek iriztea Batxilergoko 2. urteko haien alaba eta semeek garrantzi handia ematen diotela emakumeen aurkako indarkeria desagertzeari, erabakiak hartzeko orduan autonomia izateari, justiziarri, emakumeen eta gizonen berdintasunari, erantzukizunari, elkartasunari, kultur eta sexu dibertsitatearekiko errespetuari, eta uste dute, gainera, idealistagoak direla, ez hain kontsumistak.

Ama/aiten irudi "on" horrek talka egiten du irakasleen kolektiboak belaunaldi honetaz egiten duen erretratu gordinago edo, ez behintzat hain onberarekin. Eta hori ez bakarrik joera orokorrean, baizik eta belaunaldi honetako mutilen kasuan, bereziki. Ildo horretan, irakasleen kolektiboaren iritzia ez du zalantzarako tarterik uzten: haien ustez, mutilek balio guztiei ematen dieten garrantzi maila ikasgela eta belaunaldi bereko neskek balio horiei ematen dieten garrantziaren azpitik kokatzen da.

Irakasleen kolektiboak bere ikasleen pertzepzioan duen generoaren arabera alde hori ez da nabaritzen soilik neskek eta mutilek genero-indarkeria desagertzeari ematen dioten garrantzi desberdinean (8,5 eta 5,74), baizik eta paradigmatikoki agertzen da emakumeen eta gizonen berdintasunari ematen dioten garrantzian: mutilek 6,7 eta neskek, aldiz, 8,4. Hori horrela izanik, irakasleen kolektiboaren pertzepzio honek mutilen hierarkia axiologikoaren azken tokietan kokatuko luke berdintasunaren balio hori, haien ustez Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilek kultur eta sexu dibertsitatearekiko errespetuari, idealak izateari edo pertsona solidarioa izateari ematen dioten garrantziaren paretsuan, eta kontsumoarekiko interesari eta pertsona praktikoa izateari egozten diotenaren atzetik.

Irakasleen kolektiboak, beraz, sendotu egingo luke, neurri handi batean, aurrez jada adierazitako planteamendu bat: mutilak, beren bizitza pertsonalean eta egunerokoan, urrunago sentitzen direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioaren garrantziari dagokionez. Belaunaldi bereko neskek ez bezala, nesken artean berdintasunaren balioak tandem bat eratzen baitu emakumeen aurkako indarkeria desagertzearekin (8,5) eta, irakasleen kolektiboaren aburuz, Batxilergoko 2. urteko neska ikasleek erabakiak hartzeko orduan autonomia izateari ematen dioten garrantziarekin (8,0).

58. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak ondorengo alderdi hauei ematen dieten garrantziaren ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. Balioen hierarkia, 0-10 eskala, 2015




ERAGIN-AGENTEAK

12.3

Gurasoak bat datoz berriro Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko beren alaba eta semeekin. Eta oraingoan, familia-inguruneak eragin-agente gisa jokatzeko duen paper protagonista dagokionez. Neurri handi batean, gurasoen kolektiboak haien alaba eta semeen oso antzeko emaitzak islatzen ditu, agian lagunei eragin maila handiagoa egozten badie ere.

59. grafikoan erakusten diren irakasleen kolektiboaren emaitzak ere ados daude familia-inguruneak jokatzeko duen paperari buruz, baina eragile protagonistakidetzat hartzen duela belaualdi horretan parekoen taldeak duen eraginarekin batera.

GRAFIKOA 59. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen balioetan eragina duten agenteen ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. 0-10 eskala, 2015



Deigarria da irakasleen kolektiboa bera dela eskola-inguruneari eragin handiena egozten diona eragin-agente gisa (6,9), dezentez gorago horretaz ikasleek (5,8) eta gurasoek duten pertzepzioa baino (5,3). Alde horiek, dudarik gabe, interes handikoak dira eta interpretazio desberdinen eta etorkizuneko azterlanen xede izan daitezke. Litekeena da izatez duena baino eragin handiagoa egoztea norberak gehien ezagutzen duen inguruneari.


Aipamen berezia merezi du "neronek" kategoriak. Argi eta garbi, barneko eragin-irizpide honek –ez da, beraz, kanpoko agente batena– txosten honetako aurreko atal batean adierazitakoa baino ere pisu handiagoa hartzen du hemen. Izatez, hala ama/aitek (5,9) nola, eta bereziki, irakasleen kolektiboak (7,1) belaunaldi honetan eragin handienetakoa duen alderdi gisa hartzen dute. Emaitza hauen argitara, 17 urteko neska eta mutil hauen belaunaldiak berak bere buruaz duena baino belaunaldi indibidualistago baten kanpoko irudia agertzen zaigu.

NORBERAREN AUTONOMIA ALDERATUA

12.4

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urtean alabak eta semeak dituzten gurasoek baieztatzen dute, dudarik gabe, haien seme-alabek burujabetasun indibidual handiagoa dutela orain, alaba eta seme horien oraingo adinarekin (17 urte) haiek –gurasoek– zutena baino. Gehiengoaren irudi honek (% 73,6) bide ematen du berresteko ahalduntze indibidualaren dimentsio honetan, bai gizartean eta bai belaunaldien artean, oso aldaketa handia gertatu dela gure testuinguruan. Erabakiak hartzeko orduan autonomia izatearen balioak, beraz, zimendu sendo eta gotorrak ditu.

60. GRAFIKOA. Batxilergoko 2. urteko alaba eta semeen adina zutenean, haien Ama/Aitek beren eguneroko erabakiak hartzeko orduan zuten norberaren autonomia mailaren ikuspegi alderatua. Ehunekoak. 2015




Burujabetasun indibidualaren balioan eta praktikan izandako aurrerapen handi horrek are sendotasun handiagoa hartzen du denboran oraindik atzerago begiratzen badugu, kasu honetan, gure amona eta aitonen garaira. 61. grafikoan egiaztatzen da iritzi horien konbergentzia, bai seme-alaben eta bai gurasoen kasuan.

Hala ere, bada belaunaldien arteko desberdintasun bat gaur egun erabakiak hartzeko dagoen autonomia mailaren auto-pertzepzioan, bi belaunaldiak alderatzen badira. Alabak eta semeek irizten diote beren burujabetasun maila, dudarik gabe, gaur egun gurasoena baino handiagoa dela. Baina 61. grafikoan adierazten da ikuspegi hori ez dutela partekatzen haien amek eta aitek. Gurasoen belaunaldi honek ere berarentzat aldarrikatzen du erabakiak hartzeko autonomia mailaren igoera, dudarik gabe esan baitu maila hori apalagoa zela duela hiru hamarraldi gutxi gorabehera, hau da, gurasoek orain haien alaba eta semeek duten adin bertsua zutenean. Haien kasuan, beharbada, norberaren autonomia praktikan jartzea handituz joan zen haien ibilbideak bizitzan aurrera egin ahala; eta guraso horien alaba eta semeek, aldiz, askoz goizago eskuratu dute.

Edonola ere, pertsona bakoitzak, eta, ondorioz, belaunaldi bakoitzak beren burujabetasun indibidualaren mailaz –oraingoa eta alderatua (konparazio guztiak dira gorrotagarri, esan ohi da)– izan dezakeen pertzepzio desberdina gorabehera, bistakoa da zer transmititu den belaunaldi batzuetatik besteetara: norberaren autonomia oinarritzko balioa dela nortasun pertsonalaren egituraketan.

61. GRAFIKOA. Eguneroko bizitzako erabakiak hartzeko orduan, norberaren autonomia mailaren ikuspegi alderatua, beren ama/aitek gaur dutenarekin eta amona/aitonek lehenago zutenarekin alderatuta. Erantzuna "Bai, burujabetza handiagoa, dudarik gabe". Ehunekoak. 2015




**EMAKUMEEN ETA
GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNAREN
EGOERA GAUR EGUN**

12.5

62. grafikoak bi interpretazio ildo nagusi ateratzea ahalbidetzen du: lehenengoaren arabera, aztertutako hiru kolektiboak bat datoz, gehiengoz, diotenean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gure gizartean, bai helduen belaunaldian eta bai gazteenean, oraindik lortzetik urrun dagoen zerbait dela.

62. GRAFIKOA. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaur egungo egoeraren ikuspegi alderatua. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzia, haien gurasoena eta irakasleen kolektiboarena. "Ados eta Erabat ados" erantzunak. Ehunekoak. 2015



Eta bigarrenak dio, gaur egun, Euskadin, Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilak direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lorpena, oraindik osatzeko asko falta badu ere, prozesu aurreratuago batean dagoela hautematen dutenak, gurasoen eta irakasleen kolektiboaren pertzepzioak gainditzen dituztela. 17 urteko mutilen aldetik lorpen horretan aurrerago egotearen pertzepzioa, hortaz, gainera kokatzen da, bereziki, bere belaunaldi propioan (% 56,0), gizartean, oro har (% 32,1), eta haien ama/aiten belaunaldian (% 32,3).

Nolanahi ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egungo egoerari buruzko antzeko iritzia duten hiru talde agertzen dira, lorpen mailaren pertzepzio handienetik txikienera: jada adierazitako Batxilergoko 2. urteko 17 urteko mutilena; alabena eta gurasoena, oso antzeko emaitzekin; eta, azkenik, irakasleen kolektiboa, dudarik gabe kritikoena arlo honetako gaur egungo egoerarekin, nahiz eta aurrerapen arin bat hautematen duen beren ikasleen belaunaldian irakasle beraien belaunaldiarekiko eta gizartearekiko, oro har.


**EMAKUMEEN ETA
GIZONEN
BERDINTASUNAREN
KONTZIENTZIAZIOA
ETA GARRANTZIA**

12.6

Euskadin emakumeen eta gizonen berdintasunak duen egoera panoramikoaren egungo argazkia atera ondoren, egokia da une honetan berriaz arreta jartzea gure autonomia erkidegoko Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken eta mutilen arteko garrantzi mailari buruzko iritzi desberdinei.

Irakasleen kolektiboaren iritziari esker, 63. grafikoak sendotu egingo luke txosten honetan adieraziz gatozen planteamendua: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna balio garrantzitsuagoa dela Batxilergoko 2. urtean dauden 17 urteko nesken eta mutilen arteko berdintasunari baino. Irakasleen kolektiboak aditzera emandako generoaren arabera aldeak oso esanguratsuak dira: % 63,7, mutilen kasuan, % 90,2, neskenean.

63. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ematen dioten garrantziaren ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. Ehunekoak. 2015




Irakasleen kolektiboaren aldetik iritzi horretan egon litezkeen okerbide potentzialak aintzat harturik ere, belaunaldi beraren barruan generoaren arabera alde horien adierazpena ez dago kontraesanean emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioan existitzen diren aldeekin. Eta argitara ateratzen dira kontzientziazioaren arloan ere: 64. grafikoan adierazten den bezala, kolektibo honek dudarik gabe dio Batxilergoko 2. urteko ikasle neska kontzientziatuagoak daudela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, urte bereko mutilak baino (84,3).

**GOI-MAILAKO
IBILBIDEAK:
UNIBERTSITATEA
DA AUKERA**


12.7

65. grafikoak Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek 2014/15 ikasturtea amaitu ostean jarraitzeko asmoa duten heziketako edo laneko ibilbidearen berri ematen du; horrekin batera, gurasoen kolektiboak eta irakasleenak galdeketa egiteko unean haien alaba eta semeek eta ikasleek jarraituko zuten ibilbideari buruzko iritzia ere jasotzen da.

64. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko belaunaldi barruko kontzientziazio mailaren ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. Ehunekoak. 2015



65. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak egingo duten goi-mailako ibilbidearen ikuspegi alderatua. Irakasleen kolektiboaren iritzia. Ehunekoak. 2015



Egia bada ere irakasleen kolektiboak jaitsi egiten duela unibertsitateko ibilbidera orientatutako ikasleen stocka, haietako hainbat goi-mailako lanbide heziketara bideratzen dituelako, unibertsitateko ibilbidearen protagonismoa, nesken kasuan bereziki, indartsu agertzen da berriro.


**ZER BALIO DAUDEN
INPLIKATUTA
GOI-MAILAKO
IBILBIDEA
AUKERATZEKO
ORDUAN**

12.8

Gustua, bokazioa, adierazpenaren dimentsioa agertzen da berriro lehen arrazoi modura goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzeko esplikaziotzat, zeharkakotasunez, hiru kolektiboetan.

Oro har, gurasoen iritziek Batxilergoko 2. urteko haien alaba eta semeek marraztutako joera jarraitzen dute. Badirudi, gainera, onartuta daukatela bigarren mailako eragina dutela titulazioa hautatzeko erabaki espezifikoan, ez ordea, ikusiko dugun bezala, haiek unibertsitatera bideratzeko orduan. Edonola ere, ama/aitek garrantzi handiagoa egozten diete haien alaba eta semeek baino kanpoko bi faktoreri: batez besteko/mugako notari (6,5) eta egindako hautaketaren gastuei aurre egiteko modua izateari (5,8).

66. GRAFIKOA. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak goi-mailako titulazioa hautatzeko orduan eragina duten faktoreen ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. 0-10 eskala. 2015



Irakasleen kolektiboa ere bat dator gurasoekin kanpoko faktoreei garrantzia ematerakoan, eta, berriro ere, hain ideala ez den irudi bat proiektatzen du goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen hautaketan eragina duten balioei buruz. Gustuaren garrantzia mespretxatu gabe (8,3), bokazioarekin lotutako interes horri aipatutako kanpoko bi faktoreen eragina gehitu behar zaio –administratibo-akademikoa eta ekonomiko-materiala (7,2, kasu bakoitzean)–, gainera, hautatutako titulazioaren laneko irteerek eta eman dezakeen egonkortasun ekonomikoak ere badute beren pisua.


Azkenik, interesgarria da hiru kolektiboak bat etortzea hautaketa horretan irakasleek eta orientatzaileak duten bigarren mailako paperaz. Emaiza hori agian deigarriagoa gertatzen da irakasleen kolektiboan bertan, kolektibo horrek eragin handiagoa egotzen baitie esandako hautaketan parekoen taldeari edota titulazioaren beraren genero-adskripzioari.

**FAMILIA-INGURUNEAREN
SOSTENGU MAILA
TITULAZIOA
BURUJABETASUNEZ
HAUTATZEAN**

12.9


67. grafikoak berretsi egiten du, lehenik, jada adierazitako Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzia diotenean haien ama eta aitek ezagutza maila handia dutela beren alaba eta semeek beren bizitzako eskola-hezkuntza dimentsioan dituzten oraingo eta etorkizuneko jardueri buruz. Irakasleen kolektiboak egitate hori berrestek sinesgarritasun handiagoa ematen dio.

67. GRAFIKOA. Batxilergoko 2. urteko alaba eta semeen bizitzako zenbait esparruri buruz gurasoek duten ezagutzaren ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. "Asko daki eta Badaki" emaitzak. Ehunekoak. 2015




Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen ama eta aiten seme-alabei buruzko ezagutzari gure azterlanaren esparruan are garrantzi handiagoa duen beste elementu bat gehitzen zaio: alabak edo semeak burujabetasunez aukeratutako goi-mailako tituluari gurasoen gehiengoak erabateko sostengua ematea. 68. grafikoko emaitzek ez dute "belaunaldien arteko adostasun" guztiz zabal honen interpretazioetarako zirrikiturik uzten, beren alaba eta semeen biografia-ibilbideko "zedarri" garrantzitsu horretan. Nahiz eta, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, baldintza gabeko sostengu hori ez den huts-hutsean egiten.

68. GRAFIKOA. Batxilergoko 2. urtea amaitutakoan goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia hartu behar duen pertsonari buruz amek/aitek duten iritziaren ikuspegi alderatua. Ikasle neska eta mutilen, amen eta aiten iritzia. Ehunekoak. 2015



Ikasleak burujabetasunez hartutako erabakiari emandako sostenguaren osagarri gisa, 69. grafikoak gurasoen eta haien seme-alaben artean dagoen kidesuna erakusten du goi-mailako prestakuntza-ibilbidea aukeratzekoan izan beharreko autonomiaren balioa aldezteko orduan. Beste behin ere, irakasleen kolektiboak postura zuhurragoa edo maltzurragoa hartzen du, hura ukatu gabe baina (6,4), norberaren autonomiaren balioak erabakiak harterako unean duen inpaktua balioesteko orduan. Horregatik, kolektibo horren erantzunetan goi-mailako ibilbidea aukeratzeko orduan beste faktore batzuek duten eragina nabarmentzen da, hala nola, gustuaren generoaren arabera soziazio berezitua (5,9), edota familia-ingurunean jakintza-esparruetarako dagoen joera (5,3).

69. GRAFIKOA. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilentzat titulazio femeninoago edo maskulinoagoek lehenean irautea esplikatzan duten arrazoiak ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren iritzia. 0tik 10erako eskala. 2015




Edozein moduz ere, hiru kolektiboek berretsi dute Euskadiko Autonomia Erkidegoko bigarren hezkuntzako eskola ingurune gehienetan ez dela generoaren arabera orientaziorik ematen goi-mailako titulazioak aukeratu behar dituztenean. Halakorik dagoenean, eskola ingurunetik kanpo izan ohi dute jatorria.

Aurreko kapituluan planteatutako argudio nagusiaren ildotik, 70. grafikoko ikuspegi alderatua nabardurak sartzen dizkio aurrez adierazitako "belaunaldien arteko adostasunari" gure testuinguruan goi-mailako titulazioa hautatzeko orduan. Emaitzetatik ondoriozta daitezke gurasoak ez direla haien alabak edo semeak azkenean hautatutako titulazioaren xehetasunetara jaisten, aitortzen baitute bera dela interes eta informazio gehien duena erabakia hartzeko orduan.

Ama/aitak, ordea, irmoago agertzen dira, ez hain etorkor, titulazio hori kokatuta dagoen goi-mailako ibilbidearen lehentasunari buruz, dela Unibertsitatekoa edo Lanbide Heziketa-aren arlokoa. Eta unibertsitateko ibilbidea izan ohi da lehenesten den aukera, inolako zalan-tzarik gabe, Euskadiko ama eta aiten kasuan.

Beraz, bideratze sotilagoa da, seme-alabentzat nahi luketen esparrua mugatzen zaie –ibilbidea, kasu honetan–, haiek gustuko duten titulazio zehatza hauta dezaten. Eta matrikulazioei dagozkien azkeneko emaitzak kontuan hartzen baditugu, argi dago goi-mailako heziketa ibilbidearen ordez unibertsitateko ibilbidea leheneste horrek baduela nolabaiteko eragina azken erabakian.

70. GRAFIKOA. Batxilergoko 2. urtea amaitutakoan Unibertsitatea edo Lanbide Heziketa nahiago izateari buruz amek/aitek duten iritziaren ikuspegi alderatua. Ikasle neska eta mutilen, amen eta aiten iritzia. "Erabat ados eta Ados" erantzunak. Ehunekoak. 2015



Laburbilduz, burujabetasun individualaz ari bagara Euskadiko AEko 17 urteko neska eta mutilen belaunaldiak Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean hartu beharreko erabakian, esan dezagun baduela titulu zehatza hautatzeko, baina ez hainbeste ibilbideari dagokionez.


**GENERO-ESTEREOTIPOAK
GOI-MAILAKO
TITULAZIOETAN**

12.10

71. grafikoan egiaztatzen da bat datozela Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilak eta irakasleen kolektiboa genero-adskripzio gabeko goi-mailako titulazioen gaur egungo egoerari neurri jakin bat emateko orduan: dauden titulazioen bi heren direla diote, gutxi gorabehera.

Gurasoek hautematen dute, aitzitik, bi titulazioetatik bat, gutxienez, orientatuagoak daudela neskengana (% 23) edo mutilengana (% 22,8). Kolektibo honek irizten dio, hortaz, goi-mailako titulazioetan genero-adskripzioa hedatuago dagoela haien alabak eta semeek eta irakasleen kolektiboak uste dutena baino.

71. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen-
tzako goi-mailako titulazioetako generoaren arabera orientazioaren ikuspegi alderatua. Ama/aiten eta irakasleen kolektiboaren
iritzia. Ehunekoak. 2015



ZORTZIGARREN ZATIA

**BATXILERGOKO IKASLE NESKA
ETA MUTILEN BELAUNALDIA:
JOERAK ZORTZI URTE GEROAGO**

**BELAUNALDI
BARRUKO
ALDERAKETA-
ADIERAZLEAK**

13.

Ikerketa hau diseinatu zenean, oso kontuan hartu zen hainbat adierazle lortzeko aukera; era horretan posible izango zatekeen erkaketak egitea, kolektibo berberarentzat, 2015eko azterlan honetako emaitzen eta, 2008an, *Nerabeak Euskadin. Hurbilketa ahalduztetik abiatuta* (EMAKUNDE; 2009) izenburuko azterlaneko landa lana egitean lortutako emaitzen artean.

Kapitulu honek Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska eta mutilen belaunaldian aldaketarik edo jarraitutasunik badagoen jakitea ahalbidetzen du, azkeneko zortzi urteotan zehar.


**UNIBERTSITATE-
IBILBIDEAREN
JARRAIKITASUNA,
NESKEN ARTEAN
BEREZIKI**

13.1

Bistan geratzen da 72. grafikoan, Batxilergoko ikasle neska eta mutilek hautatutako ibilbidean, unibertsitaterako orientazioaren nagusitasuna mantentzen dela. Are gehiago, azken zortzi urte hauetan zehar, Euskadin, lehenetsun horrek gora egin duela dirudi, nesken artean bereziki.

Ematen du, beraz, alderdi honi dagokionez, erabakiak hartzeko egituretan eta prozesuetan ez dela gure testuinguruan aldaketarik izan, alderantziz baizik: Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen ibilbide biografiko "normalizatua" unibertsitateko ikasketak egitea da, are gehiago emakumea baldin bazara.

72. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko ikasle neska eta mutilek egingo duten goi-mailako ibilbidea. Ehunekoak. 2008-2015 bilakaera



**SEGREGAZIO
HORIZONTALA
LEHENEAN
MANTENTZEN DA**

13.2

30. taulak pertsona helduak zirenean izan nahi zuketean lanbideetan zer nolako bilakaera izan duten erakusten du. Zortzi urte geroago egiaztatuta geratu da segregazio horizontalaren iraunkortasuna. Nabarmen geratzen dira generoaren arabera aldeak lanbide teknikoaren mutilek nahiago dituztenak- eta gizarte- eta osasun-lanbideen artean -neskek nahiago dituztenak-. Eta alderdirik azpimarragarrienetakoa da generoaren arabera lehentasunen banaketa egonkor mantentzen dela. Adibidez, Irakasletzan kontzentratzen dira oraindik neskek nahiago dituzten lanbideen % 15; mutilen kasuan, berriz, % 5ean geratzen dira.

Nolanahi ere, badirudi bi norabideetako lehentasun-patroi horiek apur bat leuntzen dituzten aldaketa joerak hasi direla azaltzen. Esate baterako, Ingeniaritzan hazkunde txiki bat nabaritu da aukera hori egin duten neskegan 2008 eta 2015 artean, nahiz eta oraindik mutilak gehiago handia izan. Eta gauza bera esan daiteke Erizaintzan, oraingoan mutilen kasuan. Baina, berriro diogu, egitate nagusia da diferentziak mantendu egiten direla.

30. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilei lan egitea gustatuko litzaiekeen lanbide eskatuenean hautaketa. 2008-2015 bilakaera

	NESKAK		MUTILAK		GUZTIRA	
	Neskak 2008	Neskak 2015	Mutilak 2008	Mutilak 2015	Guztira 2008	Guztira 2015
Egiteko asmoak dituzten lanbideak						
Beste lanbide batzuk	24,2	40,5	15,1	36,7	27,8	39,0
Irakasletza (oro har)	14,6	15,2	5,5	5,3	10,1	11,4
Ingeniaritza (oro har)	3,5	5,1	15,1	19,7	9,2	10,7
Medikuntza (oro har)	13,4	9,5	4,7	3,2	9,1	7,0
Ed/Ede	19,4	3,4	17,8	10,1	18,6	6,0
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentzia	6,0	4,4	3,1	7,4	4,6	5,6
Psikologia	2,0	7,1	0,5	0,0	1,3	4,3
Erizaintza	5,5	4,7	0,5	1,6	3,1	3,5
Informatika	1,3	0,3	5,2	6,4	3,2	2,7
Fisioterapeuta	2,8	1,4	0,8	4,3	1,8	2,5


**KRISTALEZKO
SABAIAREN
MOTELTZA?:
NAGUSI IZATEKO
GOGOAREN
HAZKUNDEA
NESKEN ARTEAN**

13.3

73. grafikoak generoaren araberako (okupazioari buruzko) segregazio horizontalaren ibilbidea osatzen du. Lehenik eta behin ikusten da "nagusi izatera iristea" aukerak, alderaketak eginda, erantzun maila altuagoak ematen dituela mutilengan, nesken gain.

Hala ere, generoaren araberako diferentzia hori egiaztatu ostean, badirudi segregazio bertikal horretan aldaketa arin bat iradokitzen dela: zortzi urte geroago, belaunaldi honetako neska gehiago baitaude "nagusi izatera iristea" aukera markatu dutenak. Dударik gabe, aldaketa arina da, % 32,5ekoa zen 2008an eta % 37,4koa 2015ean, baina joera gisa interpreta daiteke eta zaindu egin beharko da etorkizunean.

73. GRAFIKOA. Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek iristeko intentzioak dituzten lanbideko postuak. Ehunekoak. 2008-2015 bilakaera



**PERTSONA HELDU
GISA DUTEN
PROIEKZIOA**

13.4

Konparaziozko kapitulu honi amaiera emateko, 31. taulan erakusten da gaur gaztea den belaunaldi honen prospekzio axiologikoaren bilakaera, hainbat eremutan.

31. TAULA. Euskadiko AEko Batxilergoko ikasle neska eta mutilen nahiak eta etorkizuneko proiektuak. 0-10 eskala. 2008-2015 bilakaera

Nola ikusten duzun zeure burua PERTSONA HELDUA zarenean...	NESKAK		MUTILAK		GUZTIRA	
	Neskak 2008	Neskak 2015	Mutilak 2008	Mutilak 2015	Guztira 2008	Guztira 2015
... zeure ametsa izaten eta hura lortzeko ahalegintzen	8,29	8,53	7,92	7,86	8,11	8,23
... lanean arrakasta izanez	7,83	7,79	7,91	7,56	7,87	7,69
... bikotekidearekin bizitzen	7,96	7,75	8,05	7,59	8,00	7,68
... lagun berberak mantenduz	8,56	7,48	8,47	7,70	8,52	7,58
... bikotearekin eta haurrekin	8,15	7,65	8,22	7,47	8,19	7,57
... diru asko irabazten	7,52	6,45	7,84	6,68	7,67	6,55
... bakarrik edo lagunekin bizitzen	5,1	4,79	4,78	4,80	4,94	4,79

“Zeure ametsa lortzea, horretarako ahaleginduz” aukera mantentzen da belaunaldi honen helburu nagusi gisa azken zortzi urteotan zehar. Eta neskek dira oraindik, zortzi urte geroago, balio horren protagonistak, zeren eta “lanean arrakasta izateak”, bigarren mantentzen den balioa, lehenengora postura gehiago hurbiltzen den puntuazioa lortzen baitu ikasgela eta belaunaldi bereko mutilen kasuan.

Horren interpretazio bat izan daiteke mutilentzat kidetasun handiagoa egon daitekeela lanean arrakasta izatearen eta ametsa lortzearen artean. Aldiz, arrakasta pertsonala eta arrakasta profesionala bata bestetik urrunago leudeke nesken kasuan.

“Etxeko agertoki pribatu-afektiborako nahi duten ereduaren” proiektzioak, berriz, ez du aldaketa handirik izan. “Bikotean bizitzen” eta “bikotekidearekin eta haurrekin” egonkor mantendu dira, azken 8 urteotan, belaunaldi honetan nahiago dituzten aukera nagusi gisa, nahiz eta “bikotean bizitzen” aukerak hazkunde arin bat izan duen; alegia, horrek berretsiko luke belaunaldi honetan finkatu den bizikidetzaren erudian ondorengoek ez dutela nahitaez bete beharreko protagonismorik.

BEDERATZIGARREN ZATIA

**EMAKUMEEN IRITZIAK
EUSKADIN: JOERAK HIRU URTE
GEROAGO**

**ALDERAKETA
ADIERAZLEAK
EMAKUME
BERAIEN
ARTEAN**

14.

Diseinatu zenean, ikerketa honek oso kontuan eduki zuen *Emakume helduen ahalduntze-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoan* (EMAKUNDE; 2013) azterlana. Horixe izan zen, hain zuzen ere, Emakundek bultzatutako azkeneko ikerlana eta bere xedea 18 eta 65 urte arteko euskal emakumeek hautemandako ahalduntze maila ezagutzea zen.

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasleen kolektiboari –17 urte dituzte, batez beste– planteatu zaion galdeketan 2013an erabilitako galdeketan jasotako hainbat galdera erreproduzitu dira, helburu argi batekin, zenbaterainoko bat etortzeak edo diferentziak dauden jakitea, gure ingurunean, berehala helduak izango diren emakume gazteenen (Batxilergoko 2. urtea ikasten ari direnak), eta hurrengoan artean (horien ahizpak, amak edota amonak), emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaur egungo egoerarekin lotura duten arloetan.

Kontua, beraz, euskal emakumeen iritzien panoramika oso bat lortzea da, eta esan behar da, ikusiko den bezala, nahikoa homogenea dela.

**GAUR EGUNGO
INTERESA
POLITIKAREKIKO,
EMAKUMEEN
MUGIMENDUEKIKO
ETA PARTE-HARTZE
ESPERIENTZIEKIKO**

14.1

Hiru parametro bateratzen dira 32. taulan: alde batetik, emakumeen lau belaunaldiek duten politikarekiko interes baxua egiaztatu da; egia da, dena dela, neska gazteenek, 2015 honetan 17 urte dituztenek, gainerakoek baino apur bat interes gehiago erakutsi dutela.

32. TAULA. Politikarekiko interesa; emakumeen mugimendu/elkarteetako parte-hartzea; eta nolako garrantzia ematen zaien emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko egin duten ekarpenaren arabera. Euskadiko AEko emakumeak. Ehunekoak eta batez bestekoak (0-10 eskala). 2013-2015 alderaketa

Parte-hartzea	EMAITZAK 2013			
	Neskak 2015	18-30 urte	31-45 urte	46-64 urte
Ez, inoiz ez	70,6	80,6	75,8	70,7
Lehen bai, orain ez era aktiboan	11,5	11,5	16,0	18,5
Bai, parte hartu dut eta hartzen dut	15,2	7,9	8,2	10,8
Emakumeen Mugimenduen garrantzia	8,3	8,0	8,0	8,2
Politikarekiko interesa	5,6	5,4	4,6	4,7

Lau emakume taldeen iritziak oso antzekoak dira, orobat, emakumeen mugimenduei egozten dieten garrantzi maila handiari dagokionez, agente bultzatzaile gisa ikusten baitituzte emakumeen beraien bizi baldintzak hobetzeko prozesuan.


Eta, azkenik, emakumeen mugimendu eta elkarteetako parte-hartze aktiboaren mailak arrakasta eskasa du Euskadin emakumeen belaunaldi-arku osoan. Edonola ere, parte-hartze maila apur bat handiagoa antzeman da kolektibo gazteenaren aldetik –Batxilergoko 2. urteko ikasle neskek–, adibidez, hurrengo kolektiboarena baino –18-30 urte artean– zertxobait handiagoa. Emaitza horien argitara, esan daiteke euskal gizarte zibilarren aktibismoa, plano honetan behintzat, ez aurrera ez atzera dagoela, baina ez doala gainbehera.

**NORBERAREN
AUTONOMIA:
ALDEAK
ESPERIENTZIATIK
ABIATUTA**

14.2


74. grafikoak adierazten du Euskadiko AEn 2015ean Batxilergoko 2. urtea ikasten ari diren neskek aitortzen dituztela norberaren autonomiari buruzko maila apalenak eguneroko praktika guztietan, gainerako adinetako euskal emakumeenekin alderatuta. Gure iritzia da, aurreko kapituluetan adierazitako emaitzak kontuan izanik –izan ere, neska horien burujabetasun indibidualaren maila konparazioz handiagoa baitzen haien ikasgelako eta belaunaldiko mutilena baino–, lortutako adierazle horiek haien adinaren eta ibilbide biografikoan bizi duten egoeraren logikatik interpretatu behar direla. Gaur Euskadin bizi diren 17 urteko emakumeen kolektibo hori beren bizimodua garatuz doan neurrian, ahaldunduz joango dira emakumeen gainerako belaunaldien emaitzen ildo beretik.

74. GRAFIKOA. Norberari buruzko iritzia pertsona burujabe gisa, eguneroko praktikan erabakiak hartzerakoan. Euskadiko AEko emakumeak. Baiezko erantzunak. Ehunekoak. 2013-2015 alderaketa



Hortaz, norberaren autonomian lotutasun gutxiagoren pertzepzioa dute emakumeek ibilbide biografikoan aurrera egiten duten heinean. Eta itxura dauka independentzia ekonomikoa lortu ahal izateak jartzen dituela oinarri materialak erabakiak hartzeko orduan ahalduntze indibiduala praktikatzeko. 75. grafikoak oso ongi adierazten du ideia hori. Neska gazteenek, 17 urtekoek, norberaren autonomia pertsonari berari atxikitako balio bat dela iriztean, eta, horregatik, ez dagoela haren adierazpena ahalbidetzen duten beste kanal edo euskarrien batzuen mende, islatzen dituzte ehuneko apalenak bi parametro ekonomiko-laboraletan. Aitzitik, urte gehiagoko emakumeek, ibilbide eta esperientzia praktiko luzeagoa izatean, pisu handiagoa ematen diote balio materialari eta txikiagoa izaera idealistari. Horregatik ematen diote garrantzi handiagoa independentzia ekonomikoari eta, bereziki, lan munduan emakume okupatu izateari, eta ez etxe barruko lanetan soilik aritzeari.

75. GRAFIKOA. "Independentzia ekonomikoa nire lehentasunetako bat da" eta "enplegua duten emakumeak autonomoagoak dira erabakiak hartzerakoan, etxean bakarrik lan egiten dutenen aldean". Euskadiko AEko emakumeak. "Ados eta Erabat ados" erantzunen batuketara. Ehunekoak. 2013-2015 alderaketa




Bistan dago 2015ean 17 urte dituzten emakumeek, emaitzen arabera, zerbait susmatzen dutela, baina berorien iritziak gehiago sostengatzen dira diskurtsoan, praktikan baino. Beraz, inozotasun erlatibo bat litzateke, beren etorkizuneko ibilbide biografikoaren irakurketa egitean. Nolabait ere, 18 urte eta gehiagoko emakumeei gustatuko litzaieke esatea haien xalotasun legitimo eta, neurri batean, beharrezko hori gainbehera hasiko dela bizitzak aurrera egin eta pertsona, emakume heldu egin ahala, bereziki, aurrerago esango den bezala, ikasle bizitzak ematen dien segurtasun-perimetrotik irteten direnean. Eta norberaren hazkunde pertsonal horretan irabazten da, hain zuzen ere, burujabetasun indibiduala.

**EMAKUMEEN
DISKRIMINAZIOAREN
KONTZIENTZIA
GAUR EGUN**

14.3

Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko neska ikasleen iritziak sendotu egiten du euskal emakumeen kolektibo guztiaren emaitza, bi urte geroago, emakumeek beraiak beren diskriminazio egoerari buruz duten kontzientziario mailari dagokionez. Beraz, kolektibo-subjektu beraren egoeraren auto-pertzepzioko diagnostiko bat partekatzen da, eta auto-kontzientzia egoera hori abiapuntu giltzarria da zeinahi motatako egintzak aurrera eramateko.

76. GRAFIKOA. Emakumeen diskriminazioaren kontzientzia, gaur egun, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen iritzian. "Baiezko" erantzunak. Ehunekoak. 2015




**EMAKUMEEN
BERDINTASUN EZA
MANTENTZEN DA,
BAINA
GAINBEHERA DOA**

14.4


Emakumeen diskriminazioaren gaur egungo egoerari buruzko erradiografia egitean 18 eta 65 urte arteko euskal emakumeen belaunaldien arku guztia ados egotea izan zen 2013ko aurreko azterlanean adierazitako oinarritzko ondorioetako bat. Kasu honetan axola duena, 77. grafikoko emaitzen argitara, esandako diagnostiko hori "sendotu" izana da, eta 2015ean 17 urte dituzten nesken iritziak integratzearekin lortzen den "zeharkakotasuna".

Hala, Euskadiko hiru emakumetatik bi, adina kontuan hartu gabe, bat datoz iriztean emakumeek diskriminatuta jarraitzen dutela gure gizartean, baina aurrera egin dela. Esanguratsua da, era berean, "aurrerapen" irudi horrek duen kidetasuna emakumeen berdintasun baldintzen inguruan aipatzen denarekin.

77. GRAFIKOA. Emakumeen diskriminazioaren egoera gaur egun. Euskadiko AEko emakumeak. Ehunekoak. 2013-2015 alderaketa



78. GRAFIKOA. "Emakumeek gero eta aukera gehiago ditugu bizitzako eremu guztietan (jendartean, politikan, lan munduan, kulturean, aisialdian, prestakuntzan, etab.) presente egoteko" eta "Erabakiak hartzeko autonomia handiagoa edo txikiagoa izatea ez dago emakume edo gizon izatearen baitan". Euskadiko A Eko emakumeak. "Ados eta Erabat ados" erantzunen batuketak. Ehunekoak. 2013-2015 alderaketa



78. grafikoak erakusten du, gure iritziz, aurrerapen edo emakumeen diskriminazioaren gainbeherako joeraren pertzepzio hori, hain zuzen ere, 17 eta 65 urte arteko euskal emakumeek gure gizartean hauteman dutena. Eta adostasun orokor horren barruan, belaunaldi gazteenetako kideek aldeztu dute are neurri handiagoan emakumeek gero eta aukera gehiago dituztela bizitzako eremu guztietan (jendartean, politikan, lan munduan, kulturean, aisialdian, prestakuntzan, etab.) presente egoteko eta norberaren generoak ez duela eraginik erabakiak hartzeko orduan.

**LAN MUNDUA:
OSATU GABEKO
AGERTOKIA
BERDINTASUNAREN
ARLOAN**

14.5

Baina gauza bat da agertoki batzuetan eta besteetan presente egoteko aukera berdina edukitzea, eta beste bat baldintzak berdina izatea. Eta laneko agertokian kontzentratzen dira gaur egun emakumeek beren berdintasun ezari buruz dituzten pertzepzioak.

Horixe izan zen 18 eta 65 urte arteko emakumeen belaunaldi arku osoaren ondorio nagusia Emakunde 2013an egindako azterlan aplikatuan. Eta 17 urteko neskek, 2015. urtean,


argi eta garbi, diagnostiko ildo berberari eusten diote. Ez lan baldintza berberak, ez aukera berdinak lanbide-karreran, eta ez soldata berdinak: horiexek dira enpleguaren esparruan emakumeei zuzenean eragiten dieten hiru egitateak, 79. grafikoan ikus daitekeen bezala.

Garrantzi handikoa da aldea egotea "aukera berdinak" eta "baldintza berdinak" parametroetan hautemandako berdintasun ezen mailan, urte gehiagoko emakumeen eta 30 urtez azpikoaren artean. Esan liteke beren ibilbide biografikoan berdintasun ez horiek esperimintatu izanak eragina duela haiek agertzen dituzten desadostasun maila dezentez handiago horietan. Geratzen den zalantza da ea euskal emakume gazteenen pertzepzio hori esperientzia laburragoaren ondorio ote den -17 urteko nesken praktika sozialak, adibidez, lanekoak ez diren agertokietan gauzatzen dira (hezkuntza, aisialdia, etxea-familia, ...)-, edota lan munduko berdintasun ez horien moteltze batzuk ikusten hasi ote diren.


Azkenik, eta laneko agertokian kultura maskulinoak duen nagusitasunari buruzko diagnostikoan Euskadiko emakumeen belaunaldi guztien adostasun maila handiaren erakusgarri modura, 2015ean Batxilergoko 2. urtean zeuden 17 urteko nesken iritziak barne, nabarmena eta begi-bistakoa da, 80. grafikoaren arabera, generoaren arabera botereen desoreka, laneko esparruaren eta etxeko-familiako esparruaren artean.

Balantzea, hortaz (botereen eta erabakiak hartzeko ahalmenen balantzea, generoaren arabera) oso desorekatua da, asimetrikoa, belaunaldi desberdinetako euskal emakumeen iritzian. Horregatik diraute lehenean diskriminazio egoerek, laneko agertokian pertsonifikatuta.

79. GRAFIKOA. "Burujabetasun handiagoz erabakiak hartzeko orduan, eragina du guregan gizonak eta emakumeek lan berdina egiteagatik soldata desberdina jasotzeak"; "emakumeek gizonak dituzten aukera berdinak ditugu gure lanbide karreran"; eta "emakumeek gizonak dituzten lan baldintza berdinak ditugu". Euskadiko AEko emakumeak. "Ados eta Erabat ados" erantzunen batuketara. Ehunekoak. 2013-2015 alderaketa



80. GRAFIKOA. "Emakumeek gizonek adinako erabakitzeke ahalmena dugu etxeko-familiako esparruan" eta "emakumeek gizonek adinako erabakitzeke ahalmena dugu lanaren esparruan": Euskadiko AEko emakumeak. "Ados eta Erabat ados" erantzunen batuketa. Ehunekoak. 2013-2015 alderaketa



HAMARGARREN ZATIA

**ONDORIOAK, BIBLIOGRAFIA
ETA ERANSKINAK**

Azterlan honen ondorio printzipaletako bat da *emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa ongi sedimentatuta* dagoela Euskadiko AEn 2014/15 ikasturtean Batxilergoko 2. urtean dauden 17 urteko neska eta mutilen belaunaldi honen gehiengo handi batean.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna garrantzi handiko balioztat dauka belaunaldi honek. Baina ez da auzitan jartzen den balio bat, baizik eta jakintzat ematen dena, beren sozializazioko testuinguru "normalizatuaren" parte izan delako.

Neska eta mutilen belaunaldi honek hautematen du, belaunaldiaren barruan, bide luzeagoa korritu dutela emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, bai haien gurasoekin eta bai egoera edo gizarte orokorrek alderatuta. Horrela, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutil guztien % 45,5ek irizten diote emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortuta dagoela jada belaunaldiaren barruan, eta aldiz, % 25era ez dira iristen aurrez adierazitako bi konparazio eremuetan.

Sedimentazio handiagoko ildo horretan, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urtean alabak eta semeak dituzten hamar gurasotatik zazpi pasak baieztatzen dute, dudarik gabe, haien ondorengoek burujabetasun indibidual handiagoa dutela orain erabakiak hartzeko, alaba eta seme horien oraingo adinarekin (17 urte) haiek –gurasoek– zutena baino. Gehiengoaren irudi horrek berresten du ahalduz indibidualaren dimentsio honetan, bai gizartean eta bai belaunaldien artean, oso aldaketa handia gertatu dela gure testuinguruan. Erabakiak hartzeko orduan burujabe izatearen balioak zimendu sendoak ditu, duela gutxiko azterlan bateko (Emakunde, 2013:99) ondorioetako bat berretsiz.

Intereseko beste alderdi bat da "aurrerapena" hautematen dela, oro har, emakumeen berdintasun baldintzen inguruan. Emakumeenganako diskriminazio egoerak lehenean dira, baina murrizten ari dira. Eta aurrerapen irudi hori are gehiago oinarritzen da Batxilergoko 2. urteko neskekengan (% 66,3), belaunaldi eta ikasgelako kide dituzten mutilengan baino (% 46).

Une batez interpretatuko bagenu ikerlan hau *Euskadiko AEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana*. (Emakunde; 2014) planeko "Balioak aldatzea" programan jasotako helburuak 17 urteko neska eta mutilen belaunaldi honetan izan duten betetze mailaren perspektibatik, ikusiko genuke hainbat adierazletan –adibidez, erantzukizun ekonomikoa gizonen soilik egozte gaitztea (1.1.1 helburu operatiboa), emakumeen eta gizonen lan-arloko rol eta estereotipo ezberdinak izendatzea murriztea (1.1.2 helburu operatiboa), etxe eta zaintzako erantzukizunak partekatu behar direla aitortzea (1.1.3 helburu operatiboa) eta mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek berdintasunaren konkistari egindako ekarpena aitortzea (2.1.3 helburu operatiboa)– formalki behintzat, betetze maila handiak gertatu direla. Beste helburu batzuk, ordea, ez dira bete, bereziki laneko agertokian zentratzen direnak, ikusiko dugun bezala, oraindik gaintu gabeko ikasgaia baitugu hori.

Geure egiten ditugu, beraz, eta horregatik dakartzagu hona, aurreko azterlan bateko ondorengo hitz hauek: "gure gizartean, berdintasuna –eta, bereziki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna– ia inork ahoa betean zalantzan jartzen ez duen arauzko printzipio bihurtu baita, eta hori, iraganari begira, aurrerapen esanguratsua da maila sinbolikoan" (Emakunde; 2012:63) Azterlan honek erakusten du emakumeen eta gizonen berdintasuna "arauzko printzipioa" dela Euskadin XXI. mendean sozializatu diren eta Batxilergoko 2. urtean dauden neska eta mutilen belaunaldi honetan. Bada hasierako abiapuntu "instituzionalizatu" bat,

kultura eta sozializazioko substratu edo oinarri bat, ezinbesteko baldintza dena *emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio hori finkatzeko estrategia berriak abian jartzeko, eta ez bakarrik arau, sinbolo eta diskurtso mailan, baita eguneroko praktika sozialetan ere.*

Ikerlan honetan aldeztu dugu perspektiba modura, balioak praktika sozialetan haragitzen direla. Ez ditugu balioak "end-state" modura ulertzen, baizik eta prozesu sozial gisa, hau da, "praktikan jartzen direnean", portaeretan "hartzen dute balioa", erabaki bat hartzeko orduan (De Francisco; eta Aguiar; 2003), kasu honetan, Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeko momentuan. Horregatik balioak, berez, gizartearen aldaketarako eragileak dira.

Eta esku artean dugun kasuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa gizarte aldaketak sortzen ari da bai hauteskundeetan eta bai emakumeen eta gizonen eguneroko erabaki eta praktiketan, bereziki belaunaldi gazteenen barruan. Segur aski, aldaketa isilak dira eta iraupen luzeak Braudelek adierazi bezala (1968:36), baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak gizarteko eta identitateen eraldaketak esplikatzen dituzten orduan.

Eztabaida genezake (luze eta zabal, gainera) emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioa aintzat hartzeari lotutako eraldaketa horien erritmoaz edota irismenez. Maria Jesus Izquierdoren hitzak –beste behin ere– hona ekarriko (ia hamabost urte dira!), aktore gisa hainbat aldaketa bizitzen ari gara "gustatu ala ez, atzera bueltarik ez dutenak. (...) Sexismoaren aurkako borrokatik sexismo modu berriak jaio dira, baina ez da ahaztu behar hasita dagoela, orobat, patriarkatua eta sexismoa deslegitimatzen dituzten prozesu bat, zeinaren irismena ez dugun ezagutzen" (2001:54-55).

Ona litzateke ahalik eta gehien baliatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio horrek, arauzko printzipio gisa, belaunaldi gazteenetan duen presentzia, esandako balio hori eguneroko praktiketan eta portaera sozialetan finkatzeko. Paradoxikoki, erretorika, kasu honetan berdintasunari buruzkoa, abiapuntu dugu zeinahi etika eraikitzen. Bultzatzen, bideratzen jarraitu beharra dago, jada sedimentatuta dagoena. Lortutakoaren nartzismoan erortzea litzateke "berdintasunaren lilurak" duen arriskua.

"Momentu" eta "belaunaldi" zehatz batean –Euskadiko AEn 2014/15 ikasturtean Batxilergoko 2. urtean dauden 17 urteko neska eta mutilen goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatu behar duten unean– arreta jartzen duen ikerlan honen emaitzek identifikatu dituzten berdintasunari buruzko diskurtso edo erretorika horren alderik ahulenak.

Puntu ahul horietan lehenengoak izaera zabalagoko alderdi bat adierazten digu: kasu gehienetan, errazagoa da egiten duzula esatea egitea bera baino, hau da, zerbaiti "balioa ematea", zer hori "praktikan jartzea" baino.² Esku artean dugun kasuan, estatu mailan egindako azterlan batek ondorioztatu du duela gutxi emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioa presente dagoela belaunaldi gazteen diskurtsoan, orain arte inoiz ez bezala, baina horrek ez duela neurri bereko isla praktika sozialetan (Fernández-Llebrez, F.; eta Camas, F. 2013:109-110).

Diskurtsoaren eta praktikaren arteko desoreka horretan, errealitatearen interpretazio berberaren bi plano sartzen baitira jokoan. Jendeak biak bere egiten baditu ere, oztopo objektiboagoak leudeke lehen planoan, pertsonen kanpokoak, diskurtsoak eta balioak praktika eta portaera ukigarrietara eramateari erresistentziak jartzen dizkietenak. Eta hemen, modu batera edo bestera, "botereaz" ari gara hizketan, Weber, Foucault eta Eliasen terminoetan, hura ulertuz "ez behin betirako eskuratzen den zerbait bezala, baizik eta gizarte-harremanen osagai mugikor bat bezala" (Varela, 1997:47)

² "Hitzetatik ekintzetara" tarte handia dagoela dio esaera batek, eta esan behar da ezin hobeto adierazten duela plan-teamendu hau.

Bigarren planoan, berriz, botere borroka horiekin batera, inozoak ginateke diskurtso guztiak, iritzi guztiak beste gabe sinetsiko bagenitu. Baldin eta, esan dugun bezala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arauzko printzipio politikoki zuzena bihurtuta badago gure testuinguruan, horrek esan nahi du azterlan honetan parte hartu duten Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilen artean ere sozialki espero denarekin bat datozen "inpresioa" eman dutela galdeketari emandako erantzunetan.

GOFFMAN litzateke, azterlan honen planteamenduan hain kontuan izan dugun dramaturgia-metafora, alegia, gizarte-bizitza rolen antzezpen modura hartzen duena, beste interpretazio-perspektiba honen paradigma, egiten dela "esaten denaren" eta errealtatean "egiten denaren" arteko kontraesanetan eragiten duten arrazoiak ulertzeko. Horrela, pertsonak, "antzezle diren neurrian, bai eurak eta bai euren produktuak epaitzeko erabiliak izango diren arau ugarien arabera antzezten ari diren itxura emateak kezkatuko ditu. (...) [Pertsonak] ez daude kezkatuta arau horiek betetzearen arazo moralagatik, baizik eta arau horiek betetzen dituztela sinestarazteko iritzi konbentzigarria eraikitzeko moralaz kanpoko arazoagatik. (...) Antzezle garen neurrian, moraltasunaren tratulari gara" (1987:267).

Ikerlan honetan saiatu baldin bagara ere, ahal zen neurrian, itxurak maneiatzearen arte hori nolabait saihesten, egia esan, erabilitako galdeketaren zati batzuetan gauza izan gara tratu edo salerosketa moral horiek agerian uzteko, -egoki dator hemen Groucho Marxek behinola esandako hura: "horiek dira nire printzipioak; gustatzen ez bazaizkizu, baditut beste batzuk".-

Ildo horretan, txosten honen emaitzetatik ondoriozta dezakegu Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko *mutil* gehienek emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioarekin zuzeneko zerikusia zuten galderei (haren garrantzi maila, kontzientziazioa handitu beharra, gizarteko agertoki guztietan diskriminazioak murriztu beharra, etab.) emandako erantzunak gure ingurunean sozialki edo instituzionalki ezarrita dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko "diskurtso" batez okituagoak daudela, haien ikasgela eta belaunaldiko neskek emandako erantzunak baino. Modu zorrotzagoan esanda, *mutilengan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko "erretorika" gehiago dago, neskengan baino*.

Egitate hori interpretatuko duten elementuen bila hasita, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. ikasturteko 17 urteko mutilentzat erabili diren adierazleetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa bizipenetik urrunago dagoen alderdi bat da, iritzia emateko gai bat; neskentzat, ordea, balio horrek beste inplikazio batzuk ditu beren ohiko eta egungo bizipenetan, bai-eta etorkizuneko hainbat agertokitan izango duten ibilbide biografikoa aurreratzen dutenean ere, lan mundukoa, bereziki.

Hala, zeharka egiaztaturik dauden aurrerapen guztiak gorabehera, eta are gehiago belaualdi horren barruan, bai beren aurrekoekin eta bai gizarte osoarekin alderatuta, azterlan honek erakusten du XXI. mendeko lehen urteotan sozializatutako belaunaldi horretan, mutilak eta neskak bat datozela beren bizitzan eta nortasunetan norberaren autonomiak eta emakumeen eta gizonen berdintasunak duten garrantziaren diskurtsoan. Baina, aldiz, neskak eta mutilak elkarrengandik "urruntzen dira" norberaren autonomia horren eta berdintasun horren eguneroko bizipen praktiko eta aplikatuan.

Horregatik, nesken eta mutilen erantzunek zentzu eta izaera oso desberdina dute. Mutilengan, haien gaurko eguneroko praktketan, eta biharko itxaropenetan, norberaren autonomiaren balioa nahikoa litzateke. Gizarte testuinguruak ez die eskatzen emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioa praktikan jartzerik. Hura irudikatzea gehiago da pertsonaren-norberaren erabaki bat, plus bat haren egiteko eta portatzeko moduan. Nesken kasuan, ordea, norberaren autonomiaren balioak eta emakumeen eta gizonen berdinta-

sunarenak tandem bat osatzen dute. Sustrai beretik abiatzen diren balioak dira, gaurko eta biharko praktika sozialetan.

Hain zuzen ere, *emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioa nola gauzatzen den laneko agertokian* egitatean adierazten dira paradigmatikoki belaunaldi honetako nesken eta mutilen arteko alde handienak. Oso deigarria gertatzen da ikasle neska eta mutilen kolektibo hau, gehienak esparru horretan zuzeneko edo jarraitasuneko esperientziarik gabeak izanik, nola den kapaz *identifikatzeko lanaren agertoki horretan kokatzen dela desberdintasun gune nagusia*, eta beraz, *hor jarri behar direla abian emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko estrategiak*.

Baina batez ere eta gehiengoz, neskak dira, eta ez mutilak, emakumeek lanaren agertokian duten diskriminazio egoera estruktural horretaz gehien jabetzen direnak. Horregatik, esate baterako, Batxilergoko 2. urteko mutilak ez bezala, neskak gutxiago fidatzen dira lan merkatura sartzeko giltza modura hezkuntzako tituluek izan dezaketen eraginaz, merkatu horrek, oraingoz, generoa baitu, eta ez femeninoa. Horregatik, kontua ez da titulu gehiago edo gutxiago edukitzea, haien jabearen generoa baizik. Laneko kultura-egitura ez da uzkurrago edo abegikortasun gutxiagokoa tituluekiko, haien jabe diren emakumeekiko baizik.

17 urteko neska hauek egitate horretaz ohartzea eta argi ikustea da, dudarik gabe, gertakari honen alderik deigarriena –tragikoena ez esatearren–, zain daukatenaren kronika aurreratua baita, txosteneko atal honen tituluaren genioen bezala.

Nola liteke, gaurko egunean, lan mundua bihurtzea emakumeen diskriminaziorako agertoki nagusi Batxilergoko 2. urteko nesken iritzian, eta haien adin bereko mutilek, aldiz gai horri buruz askoz ñabardura gehiago planteatzea? Zeintzuk dira generoaren arabera "bereizitako" sozializazio prozesuak eta komunikazio kanalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, lan munduaren inguruko pertzepzio horri dagokionez? Zer da mutilek ikusi nahi ez dutena, neskek ez bezala? Errazago al da, hortaz, 1997an jaiotako belaunaldi honetako mutilentzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren "erretorikan" mantentzea, eta gero, aitzitik, argitasun berarekin ez ikustea diskriminazio eraginkorreko egoerak, kasu honetan, lanaren munduan?

Ondoriozta al daiteke belaunaldi honetako gizonezkoek emakumeen lan munduko berdintasun gabeziak ez ikuste hori, errealitatea ezkutatzeko era bat dela, eta horregatik, isilpean, oraingo botereen balantzeari dagoenean eusteko modu bat? Hemen irekitzen den azterketa-ildo hau ez dago, izatez, Batxilergoko 2. urteko ikasle mutilei soilik orientatua, gizonen kolektibo osoari baizik. Bourdieuk planteatzen zuen ildotik doa guk aldeztu dugun argudioa ere: "gizonezkoen nagusigoak ohitura maskulinoen gainean gauzatzen dituen eraginak agerraraztea ez da, batzuek uste dutenaren kontra, gizonak desenkusatu saiatzea. Argitu behar da emakumeak nagusigo horretatik –hau da, inposatzen zaizkien egitura objektibo eta asimilatuetatik– askatzeko ahalegin horretan, ezin dutela aurrera egin gizonak ere egitura horietatik askatzen ahalegindu gabe, haien kariatz gizonezkoek nagusigo hura ezartzen laguntzen baitute".

Bestalde, esan behar da, Euskadiko Aeko Batxilergoko 2. urteko ikasle neska eta mutilek Aragoiko ikasleen (Cortés Pascual, 2010; 2012); Balear Uharteetako (Capilla eta Casero, 2012); edo Kanarietako (Santana, 2009; 2012; 2013) *goi-mailako prestakuntza-ibilbidea aukeratzeko eredu berbera jarraitu dutela*; non "gustua" eta "bokazioa" izan diren hautaketako arrazoi nagusia edo protagonista.

Hautatzeko irizpideetan diferentzia faktoreak identifikatzeko xedez, galdeketa itauntzen zitzaien ea zer ikastea "gustatuko litzaiekeen" baina baita "azkenik" zer ikasiko zutela uste zuten ere, Batxilergoko 2. urtea amaitu ostean. Egiaztatu dugu lortutako diferentziak,

gehiago direla erantzuna emateko unean (otsaila/martxoa) zituzten zalantza edo ziurgabetasunen ondorio, erabaki horretan eragin dezakeen balio-egiturarenak baino. Identifikatu diren aldeak, kasu gehienetan, nabardura soilak dira, alegia, jakintza-arlo beraren barruko titulazio desberdinak. Baina, hautaketaren motiboetan, norberari lotutako balioak, hau da, "gustuz/bokazioz"; eta espero diren bai lanerako irteerek eta bai inpaktu ekonomikoek paper protagonista jokatzeko "kanpoko" kategorian eman diegun beste faktore multzo batekin alderatuta: generoaren eragina, irakasleena, gurasoena, eta bizikidetzaren unitatearen ahalmen ekonomikoarena.

Eta bai neskengan eta bai mutilengan, norberaren autonomiak oso balio altua badu erabakiak hartzeko unean, neskengan balio hori ere handiagoa dela egiaztatzen da. Hala, neskek adostasun handiagoa erakusten dute egitea gustatuko litzatekeen goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen eta azkenean egingo dutenaren artean –kasu honetan, alde txikiagoak lehenengo aukeraren eta azkenekoaren artean–; bokazio/gustuaren eragin handiagoa; laneko inpaktuaren eta, batez ere, inpaktu ekonomikoaren eragin erlatibo txikiagoa; eta, azkenik, kanpoko agenteen eragin txikiagoa beren erabakian (gurasoak, lagunak, irakasleak, orientatzailea eta genero-eragina).

Horrela bada, Euskadiko AEko Batxilergoko 2. urteko ikasle nesken argazki honetan ikusten da goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia gehiago oinarritzen dela norberaren autonomiako irizpideetan –zer izatera iritsi nahi duten eta, hortaz, zer egin nahi duten–, belaunaldi bereko mutilen zalantza handiagoekin alderatuta, azken hauek arreta erlatibo handiagoa eskaintzen baitiete kanpoko inpaktuei eta beste eragin batzuei esandako hautaketa egiteko "unean".

Azterlan aplikatu honek izan ditzakeen eta dituen mugen artean, *gustuen, bokazioen eraikuntza sozialean* sakontzeko premia da, beharbada, printzipalenetako bat. Lan ildo hori Bourdieu (1988) planteatutako terminoetan ez garatzea, gure iritzian, ikerlan sozial eta kulturaletan oraindik zabaldua dagoen gabezia bat da. Baina, hala ere, "gustu/bokazioak" goi-mailako prestakuntza-ibilbidearen hautaketan duen pisuaren eta eraginaren atzean ezkututzen den horretan gehiago sakondu ezin izanaren aho-gustu txarra geratu zaigu.

